

Euskaraz

Think Gaur Nafarroa 2020

EAJ-PNVk Nafarroako gizartearekin duen konpromisoa



INDICE

1.	Zergatik Think Gaur Nafarroa 2020	3
2.	Prozesua	5
3.	Nafarroak une honetan bizi duen egoera	10
4.	Nazioarte mailako joerak 2020 eszenatokira begira	15
5.	Gure ikuspuntua. 2020ko Nafarroarako erronkak	31
6.	Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak 2020ko Nafarroari begira	40
7.	Gizarte ardura eta Nafarroako EAJ-PNVren Gobernatzeko zuzena	97

The background is a solid yellow color with a complex, abstract pattern of white lines. These lines form various geometric shapes, including triangles, squares, and circles, some of which are overlapping and creating a sense of depth and movement. The overall effect is a vibrant, modern, and somewhat chaotic visual texture.

1. Zergatik Think Gaur Nafarroa 2020?

Think Gaur Euskadi 2020ren esperientzia

“Think Gaur Euskadi 2020” EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarraren lehendakaritzak 2007ko abenduan hartu zuen konpromiso publikoa izan zen, erakundea , ekimen politikoa eta mezua garai berrietara eta euskal gizartearen beharrezanetara egokitzeko; prozesu honen bidez oraingo egoeraren inguruko hausnarketa egitea bilatzen zen, Euskadiren etorkizunaren testuingurua osatzen zuten gizarte , ekonomia eta kultura mailako joerak ezagutzea eta **EAJ-PNVk epe labur, ertain eta luzera euskal gizarteari egin behar zizkion proposamenak eta helburuak zehaztea, Euskadik mundu globalizatuan harik eta kokapen onena izan zezan.**

2009ko urtarrilean amaitu zen prozesu honen emaitzek konpromiso bat gorpuztu zuten, **EAJ-PNVk euskal gizartearekin hartzen zuen gizarte hitzarmen berria. Gizartearen konpromisoa Euskadiren garapen eta ongizatearen alde.**

Erdietsitako behin betiko agiriaren balioaz gainera, Think Gaur Euskadi 2020 egitasmoaren eskarmentuak erakutsi egin zuen zentzuzkoa eta beharrezkoa zela hausnarketa ireki eta parte hartzailea egitea, ekimen politikorako tresna gisa. Metodologia hau guztiz erabilgarria eta egokigarria izan da bestelako lurralde mailletara.

Nafarroaren zerbitzura dagoen prozesua

Think gaur Euskadiren esperientzia ikusita, Nafar Buru Batzarrak ikusi egin zuen antzeko prozesu batek **Nafarroarako ikuspegi berria** sortzeko tresna egokia eraikiko zuela, “ **goitik behera eraikitako” ikuspegia eta pentsamolde ireki baten bidez Nafarroak bere tokia europar eta mundu mailako eszenatokian zehaztu behar duelakoan.**

Think Gaur Nafarroa 2020 egitasmoak oinarri gisa hartu izan ditu Think Gaur Euskadi egitasmoan izandako hausnarketa eta ekarpenak eta bereziki etorkizunerako makro joerei dagokienez, baina behar besteko elementu bereizgarriak mantendu ditu Nafarroako errealitate ezberdinaren inguruko hausnarketa prozesua izateko.

The background of the slide is a solid red color. Overlaid on this background is a complex, abstract pattern of thin, white lines. These lines form a series of overlapping, irregular shapes that resemble stylized leaves or petals. The shapes are arranged in a somewhat radial pattern, with some pointing towards the center and others pointing outwards. The overall effect is a dense, textured background that changes as the viewer's perspective shifts.

2. Prozesua

**Bost lehentasun
estrategikotan
antolatua izan den
prozesua**

Ezarri genituen helburuak erdiesteko, hausnarketa parte hartzaileko “ Think Gaur Nafarroa 2020” **prozesuak gizarte ireki baten lehentasunak diren bost esparru handitan banatu ditu bere eginkizunak**

- ◆ **Berrikuntza eta lehiakortasuna** ⇒ Koordinatzailea: Manu Ayerdi
- ◆ **Gizarte Politikak** ⇒ Koordinatzailea: Andoni Albéniz
- ◆ **Jasangarritasuna** ⇒ Koordinatzailea: Luis Javier Tellería
- ◆ **Kultura eta Euskara** ⇒ Koordinatzailea: Amaia Arrizabalaga
- ◆ **Nafarroa-Europa** ⇒ Koordinatzailea: Iñigo Zabalza

“Think Gaur Nafarroa 2020” prozesua 2009ko irailaren eta 2010eko irailaren artean garatu izan da.

**Parte hartzerako izan
ditugun aurreikuspenak
gainditu dituen
prozesua**

“Think Gaur Nafarroa 2020” prozesuak parte hartzerako izan ditugun aurreikuspenak gainditu ditu; Nafarroako EAJ-PNVk Nafarroako garapenarekin duen konpromisoa sendotu eta indartu egin du.

Asko izan dira Nafarroaren etorkizunerako ikuspuntua eskaini duten pertsonak. Konpromisodun pertsonak, beren iritziak, ideiak eta harremanak eskaini dizkigutenak, Nafarroaren irudi egiazko eta eguneratua eratzerik izan dezagun. “Globalizazioaren baikortzea” errealitatea izan dadin. Pertsona horiei guztiei, lerro hauekin doa gure esker onik zintzoena.

Parte hartzea eta informazio publikoa

Think Gaur Nafarroa 2020 partaidetzazko hausnarketa prozesurako, **bertoko adituak ekarpenak, azterketa soziologikoak, nazioarteko esperientziak eta Nafarroako gizartearekiko kontrasteak bildu ditugu.** Gainera, definitutako gai kritikoei buruzko txosten ugari egin dira, eta baita ondorio-agiri honen oinarrian dauden hainbat txosten espezifiko ere. Era berean, lan prozesu osoan zehar, informazioa jakinarazteko ahalegin handia egin izan da..




Azken hilabeteotan egindako hausnarketa zenbait fasetan gauzatu da.

1 Oraingo egoeraren inguruko azterketa: analisi honen ardatzek **Nafarroako gaur egungo egoera** eta **nazioarteko joerak (makro-joerak)** izan dira. Era horretan, gure bilakaera zernolako izan den eta gure inguruneke herriekin alderatuta zer moduz gauden aztertu ahal izan dugu. Gainera, munduko joera nagusien azterketa lagungarria izan da mundua norantz doan eta horrek Nafarroan zer eragin duen ikusteko.

2 2020ko Nafarroarentzako ikuspegia **definitzea:** abiapuntua behin zehaztuta, **2020ko Nafarroarentzako ikuspegia zehaztu** da, hau da **2010 urtean egon /izan nahi dugun** modua aurreikusten du eta horretarako zein **balore** behar ditugun.

3 Nafarroak aurrean dituen erronkak zehaztea; ikuspegi horretara iristeko gainditu behar ditugun erronkak eta beraiekiko dugun kokapena zehaztu behar dugu.

4 Jardunbideak eta helburuak ezarri: Nafarroarentzat lehentasuna duten ekintzen mapa egin eta nazioartean arrakasta izan duten esperientziak bildu ondoren, Nafarroako gizartearentzako proposamenak zehaztu ditugu.



Hausnarketarako eskema


Think Gaur Nafarroa 2020k maila goreneko nazioarteko erakundeen eta adituen parte hartzea izan du

Zabalkundea herrialde barruan

Parte hartze aldetik lotutako maila handi horren adierazle batzuk hauexek dira:

- ◆ 50 pertsona izan dira barne lan taldeetan.
- ◆ 150 pertsona aditu izan dira arlo ezberdinetako koordinatzaileengandik kontsultatuak
- ◆ 500 baino pertsona gehiago izan dira hausnarketa prozesu honen markoan antolatu diren hitzaldi, topaketa, mintegi eta lan jardunaldietan eta hauen artean egin da gai guztien inguruko sakontze lana.

“Think Gaur Nafarroa 2020” prozesua Nafarroa herrialde barruan zabaldu da eta topaketak izan dira Lesaka, Elizondo, Lizarra, Altsasu, Lekunberri, Auritz-Burguete eta Tafallan.



3. Nafarroak une honetan bizi duen egoera

Egoera ona da ekonomia alorrean...

Gure gizartearen egoera ona da oro har, ikuspuntu ekonomikotik aztertuta, baina etorkizunari kontu handiz begiratu behar zaio. Azken hamarkada hauetan Nafarroan indikadore sozioekonomikoek aurrerakada egin dute (Nazio Batuen 2006ko Giza Garapenaren Indizearen lehen postuan dago, Islandia, Norvegia edo Kanada herrialdeen gainetik)

Dena dela, aldi honetan bizi izan den aurrerakadaren aurrean, Nafarroak aberastasun erlatiboa galdu du orain dela hiru hamarkada Nafarroarengandik urrun zeuden bestelako ekonomiekin alderatuta, aldi honetan gora egitea lortu baitute (2007ko FUNCAS azterketa).

... baina badira oraindik hobetu behar diren gauza asko

Halaber, Nafarroak gainditu beharreko hainbat erronka ere baditu, gero eta globalizatua den ekonomiaren ongizate maila onargarria mantendu nahi badu. Nafarroaren lehiakortasunerako gako batzuek zerikusia dute bere sektore industrialari lotutako arrisku batzuekin (enpresa handien deslokalizazioa, enpresa txikiek nazioartetzeko zailtasunak dituztela), giza kapitalarekin (jarduera ekintzaile eskasa, goi mailako lanbide heziketan kualifikatutako profesional gutxi) eta inbertsioak eta talentua erakartzeko eta Nafarroan geratzea ahalbidetzeko duen gaitasunarekin.

Bestetik ere, Nafarroak duen defizita eta gainditu behar dena, EBko herrialdeekiko integrazio handiagoa lortzea da Nafarroarentzat interesekoak diren arlo ekonomiko, sozial, kulturaletan eta azpiegitura arloan. Bereziki deigarria da Nafarroako erakundek EAErekin eta Akitaniarekin mantentzen duten erlazio eta lankidetzak eskasa.

Gainditu beharreko bestelako erronka da eredu politiko baztertzailea litzateke, elite batek era ilunean hartzen baititu denoi eragiten diguten erabakiak. Sakontze demokratiko handiagoa behar da. Halaber, gero eta beharrezkoagoa da Euskara eta Euskal Kultura Nafarroan aintzat hartzeko eta sustatzeko borondate politikoa.

Ondorioz, orokorrean egoera ona den arren, **hain onak ez diren esparruak ere baditu. Horietan ekin beharko dugu 2020ko Nafarroari begira.**

**Adierazle
makroekonomikoak
nahiko onak izan
dira**

**... baina joera hau
aldatzen ari da**

Adierazle nagusiek bilakaera ona islatu zuten hasieran, baina honek okerrerako bidea hartu du azken bi urteotan, mundu mailan eman den ekonomia eta finantza arloko krisialdia dela eta:

- ◆ **Per capita BPGa:** 30.614 euro 2008 urtean (EAE gainera dago 32.133 euroekin eta Madril 31.110 euroekin) eta EB-27ren batz bestekoaren gainera dago, 25.100 eurotan jarri zelarik. 2005-2008 urterako bitartean Per Capita BPG % 15 hazi da, baina urteko hazkunde tasa gero eta txikiagoa izan da.
- ◆ **Lana:** Langabezi tasa 2007ko % 4,8tik 2008ko % 6,7ra eta 2009ko % 10,9ra igaro da. 2010eko lehen hiruhilekoaren inguruko datuek langabezi tasa % 12,3an jartzen dute.
- ◆ **Gizarte zerbitzuetako gastua:** gizarte prestazioetako gastua etengabe hazi da 1996tik 2005era bitartean, biztanleko 2.719 eurotik 4.422 eurora igaro gara. Dena dela, termino erlatibotan, BPGaren gainean gizarte prestazioetan egiten den gastua beherantz joan da aldi honetan (BPGaren gaineko % 16,6 1996an eta % 16,3 2005ean).
- ◆ **Hezkuntza maila:** 2006 urtean Nafarroako biztanleriaren 25 eta 64 urte bitarteko % 57k derrigorrezko ikasketak mailatik gorako prestakuntza zuen, eta hazkunde nabarmena eman da 200 urteko % 45,1etik. Dena dela, portzentaje hau espainiar batz bestekoa baino altuagoa den arren, (% 50), Europakoa baino baxuagoa da (% 70) eta lanbide heziketako tasa europar batz bestekoaren azpitik dago oraindik..
- ◆ **Zor publikoa:** Nafarroan 2010 urtean bikoiztu egin da 2008ko kopurua (1.382 milioi euro, 633 milioi euroren aurrean).

2009 urtean Nafarroak krisialdiaren urterik urterako aldaketa tasaren % 1,9ko beherakada izan du. **Gelditze ekonomikoak, jakina, gizarte mailako ondorioak ere baditu.**

Alderatze txarra edo halamoduzkoa

- ◆ Biztanleria hazi egin da: % 1,6 1996-2008 aldian eta EBn % 3,7 hazi da. EBren biztanleria zaharrenetakoa da , 65 urtetik gorako % 17,3ko biztanleria daukagu, Alemania eta Italiaren azpian gaude.
- ◆ Emakumeen jarduera tasa (2009): % 52,1, EBren batz bestekoaren azpitik (% 59,1 2008 urtean)
- ◆ Langabezi tasa: gaur egun europar batz bestekoaren gainetik % 12,3 2010ean eta EBren % 9,6 2010 ean
- ◆ B+G gastua: BPGren % 1,92 , EB-27ren batz besteko % 1,85ekoaren gainetik (2008) baina helburua den %3tik urrun
- ◆ Ekintzalen tasa baxua EBrekin alderatuta.
- ◆ Negutegi eragina duten gasen igorpena: 1990 eta 2007 urte artean Nafarroan % 68,41 hazi da eta EBn % 8,1 jaitsi da. Dena dela, esan behar da 2005etik 2007ra bitartean Nafarroan igorpenak % 3,43 jaitsi dira eta Batasunean kopuruak mantendu dira.
- ◆ Internet-konexio maila etxeetan: Europar batz bestekotik 3 puntu beherago (% 57, % 60 aurrean) . Holandako % 86tik oso urrun.
- ◆ Per capita babes sozialerako gastua: EB-27ren batz bestekoaren % 17,35 baxuago (4.841 euro 2005 urtean , 5.858 euroko kopuruaren aurrean. Luxenburgo eta Ipar Europako herrialdeetatik oso urrun, 8000 euroko kopurua gainditzen dutelako.
- ◆ Nafarroako Hezkuntza arloa zientzia ezagupen maila ona du (57 herrialdeetatik 17. kokatuta dago) eta ikasleriaren batz besteko errenmimendua 511 puntukoa da (OCDEko 30 herrialdeetako batz bestekotik 11 puntu gorago eta Espainia baino 23 puntu gorago). Dena dela, oso portzentaje baxua mantentzen du Goi Lanbide Hezkiketaren titulaturako pertsonen kopuruan, aurreratuen dauden herrialdeekin alderatuta.
- ◆ Hizkuntzak :Euskara gure hizkuntza propioak ibilbide luzea du aurrez aurre. Gaurko egunean Nafarroan behin eta berriz urratzen dira Euskararen 18/1986 Foru Legeak eta Hizkuntza gutxitu edo Erregionalen Europar Itunak egiten dituen gomendioak: Halaber, europar herrialde batzuek oso urrun gaude, biztanleriaren % 85 baino gehiago elkarrizketa bat ingelesez mantentzeko gaitasuna baitu(Suedia edo Danimarka)

Alderatze ona

- ◆ Bizi-itzaropena: EBko bizi itzaropenen onenen artean dago; emakumeen kasuan lehenengo postuan gaude (83,3 urte 207 urtean)
- ◆ Per cápita barne produktu gordina: EBko batz bestekoa baino % 22 handiagoa 2008 urtean.
- ◆ Zor publikoa: 2009 urtean BPGren % 5,5 EB-27ren % 70ko batz bestekoa aurrean, 2010ean bikoiztu egiten du 2008ko zenbakia.
- ◆ Enpresek B+G kontzeptuan egiten duten gastua (BPGren %): % 1,32 2008 urtean eta % 1,24 2007 urtean, europar batz bestekoaren gainetik (% 1,17) eta EAEren azpitik BPGren % 1,52 2007 urtean.
- ◆ Goi mailako titulazioak zientzia eta teknologian: NFKko unibertsitateko ikasleriaren % 34,58 (2008) espainiar batz bestekoaren gainetik dago (milako 11,5) Zientzia, matematika eta teknologia arloetan graduatutako pertsonen kopuruan 1000 pertsonako multzo bakoitzeko.

**Bost ondorio nagusi
Nafarroak nazioarteko
testuinguruan duen
egoeraz**

- ➊ Adierazle ekonomikoak baikorrak dira, per cápita BPGa eta enpresa inbertsioak handiak baitira. Hala eta guztiz ere, hazkundeak bere horretan iraun dezan, I+G+baren aldeko apustu sendoa egin behar dugu, oraindik ere urrun samar baikaude Europan dagoen mailati eta are urrunago Estatu Batuetako eta Japoniako mailetatik. Halaber, Nafarroan atzerriko kapitala dago eta horrek garamatza edukin teknologiko baxuko prozesuak nagusitzera eta ondorioz, deslokalizatze arriskua ere handitu egiten da. Nafarroako gizartearen potentzial osoa aprobetxatu behar dugu eta bereziki Nafarroako emakumeena. Azpimarratu behar dugu Gobernuak sustapen eskasa eskaintzen duela herrialde arteko eta enpresen arteko lankidetzari laguntzeko eta honek kalte handia egiten diola Nafarroari.
- ➋ Oraingo krisi ekonomikoa eta finantzario globalak kalte egin diezaioke nafar ekonomiak azken urteotan izan duen joera onari. Prest egon behar dugu garai latzei aurre egiteko. Enpleguaren egoera modu larrian okertu daiteke datozen urteotan- gizartearen kohesionatzen duen elementua den aldetik, enplegua lehentasunezkoa izan behar da guretzat-: langabeziaren igoerak prestakuntza maila txikiagoa duten pertsonak ukituko ditu bereziki, edo ekonomia berriaren beharretara ekokitutako prestakuntzarik ez duten pertsonak.
- ➌ Gizarte babesaren, azken hiru hamarkadetan nabarmenki igo bada ere, oraindik ere ez da iritsi erreferentziazko herrien mailara: Gure gizarte babesaren sistema hobetzeko beharrak mehatxu larri bat izan dezake: gure hazkunde demografiko motel eta desorekatua, aurrekontu publikoen mugapenak eta gizarte babesaren eta Gizarte Segurtasunaren kudeatze lanaren eskumenak zabaltzeko dagoen borondatearik eza dira mehatxu horren arrazoiak.
- ➍ Hezkuntza, gure etorkizuneko garapeneraren zutabea izan behar litzateke. OCDEko herriekin alderatuta, gure egoera ertainekoa da. Gure historiako gazteriarik prestatuena dugu, baina hobera egin behar dugu alor horretako herri aurreratuenen parean ajrtzeko. Ingelesaren ezagutza maila eskasa kaltegarria izan daiteke gure garapenerako. Halaber, bide luzea dugu goi lanbide heziketan eta etengabeko ikaskuntzan..
- ➎ Nafarroak ez du lortu izan bere enpresa ehuna nazioarte mailan kokatzen lagunduko dion irudia kanpora begira islatzea eta ez du balioko atzerriko inbertsioak erakartzea lortu ezta Nafarroako talentua zaintzea eta atzerriko talentua bereganatzea ere.




4. Nazioarteko joerak 2020ko eszenatokira begira

Joera handiek aldaketak ekarriko dituzte; zalantzarik gabe, aldaketa horiek eragina izango dute Nafarroako gizartean

Gizarte joera handiez eta haien ondorioez konturatzea aurretiko baldintza da etorkizunak zer ekarri dezakeen ulertzeko. Joera nagusiak (makro-joera) munduko aldaketen motorra dira gaur egun, eta alor guztietan (administratiboa, ekonomikoa, soziala,...) ukituko gaituzte, gutxienez datozen bi hamarkadotan. Seguruenik gertatuko diren aldaketa handiak itxuratzen dituzte. Epe laburrera badira kontra-joerak, makro-joeren ondorioak moteldu edo alderantzikatu ditzaketenak: nolahi ere, epe luzera begira, ia ziurra da joera horiek etorkizuneko gertaerak baldintzatuko dituztela.

Zalantzarik gabe, makro-joera horiek guztiak eragina izango dute euskal gizartearen garapenean: Beraz, beharrezko zaigu ezagutzea gure gizartearen etorkizun erronkak eta erronka horiei aurre egiteko EAJ-PNVk egin behar dituen proposamenak, gure helburu nagusia lortzeko: garapena eta ongizatea Nafarroarentzat.



1. Globalizazioa

Pertsona, kapital, produktu, zerbitzu, informazio, teknologia eta kulturaren arteko interkonexioa ematen da hiri, nazio eta eskualdeen artean interdependentzia gehiago ematen delarik.

Pertsona, kapital, produktu, zerbitzu, informazio, teknologia eta kulturaren arteko interkonexioaz ari gara globalizazioa definitzen dugunean. Hazkunde oso azkarra izan duen fenomeno batez ari gara. Nazio, hiri eta enpresen arteko integrazio eta interdependentziaren gorakada ikusten ari gara ekonomia, politika eta kultura alorretan. Mugimendu askatasun handiagoa, produktu, kapital, eskulan, zerbitzu, ezagutza eta baloreen arteko trukaketaren gehikuntza eragiten du honek.

Ondorio orokorrak

- ◆ “Distantziak amaitu egin dira” ondasun eta zerbitzuen hornikuntzari dagokionez. Enpresak sare globaletan eratu ahal dira mundu osoan zehar sakabanatutako lehiakortasun zentroen bidez, kanporatze hobe eta merkeagoa dagoen tokiaren arabera.
- ◆ Kontsumitzaile eta langileen mugikortasuna handitu egin da.
- ◆ Ohiko ekonomi monopolioen boterea muga liteke.
- ◆ Nazio identitatea zabalagoa eta barnerakorragoa da, eta era berean jabetza-sentimenduen aldaketa ematen da.
- ◆ Koste baxuko merkatuetan, eragile berriak agertu dira eskulan, produktu eta turismorako.
- ◆ Arestian esandakoarekin batera, nazioarte mailako lehiakortasun handiago, indartsuago eta kualifikatuagoa aurreikus daiteke eta batez ere une honetan hazten ari diren herrialdeen aldetik.

Kontra-joerak

- ◆ Munduko ekonomiaren egungo atzeraldi ekonomikoak jarraituko balu, ekonomia eta politika babesteko mugimendua eragin liteke epe laburrera.
- ◆ Petrolio gordinaren salneurrien gorakadak edota CO₂zko emisio kuoten murriztasunek nazioarteko garraioaren mugimenduak mugatu ditzakete, handitu egingo lirakekeelarik tokiko produkzioaren eta turismoaren lehiakortasuna.
- ◆ Terrorismoa eta gaixotasun epidemikoak hedatzeak eragiten duen beldurrak murrizketak eta oztupoak jarri diezazkiokete mugimenduen askatasunari.
- ◆ Ekonomiari, eskulanari eta nazio kulturei globalizazioak egindakoa mehatxu modura hartzen denean, mugimendu isolatzaileak ugaritu daitezke..

Nafarroarentzako ondorioak


- ◆ Nazioarteko komunikabideen eraginak kontsumitzaile gisa ditugun ohituren homogeneousatze handia ondorioztatzen du. Hala ere, erabileren orokortze honek **gure tokiko kulturaren nortasuna indartzea** eragin dezake, ezberdintasunaren eta indibidualizazioaren jatorri gisa, larregizko berdintasunaren eta gure berezko kultur erreferenteen balizko galeraren aurrean.
- ◆ Alde batetik, enpresek **nazioarteko lehiakortasun** gehiago izango duten arren, beste alde batetik, **euskal enpresek negozio aukera ugariagoak** izango dituzte, merkatu global batean lan egingo baitute.
- ◆ Herritarren **mugikortasunaren hazkundera** espero behar dugu, heziketa eta lan aukeren bila etorriko
- ◆ **Talentua erakartzea, geureganatzea eta lotzea** izan beharko dira nafar gizartearen lehentasunen artean.

2. Geo ekonomia berria

Hazkunderako joerak gorako bidean jarraituko du etorkizunean, Asiako herrialdeetan batez ere.

XX. Mendean zehar, mendebaldeko herrialde gehienek %2 aren inguruko hazkunde mailak izan zituzten. Hurrengo mende laurdenaren hazkundearen aurreikuspenak %1,5-2 inguruan izango dira, nahiz eta atzeraldi ekonomikoak, meteorologiak eragindako hondamendiek eta gerra gatazkek hazkunde ekonomikoa zenbait epealditan gelditu dezaketen (eta agian irauli ere).

Indiak eta Txinak hazkunde maila oso altuak izan dituzte azken hamarkadan, beren hazkunde ekonomikoa moteldu egingo dela aurreikusi daitekeen arren, litekeena da zenbait hamarkadetan zehar, mendebaldeko herrialdeen hazkunde tasa baino altuagoa izatea, agian %6 inguruko baloreetan kokatu daitekeelarik. Halaber, antzeko hazkunde tasak aurreikusten dira Afrikan eta Ekialde Erainean, petrolio gordinaren eta lehengaien salneurrien gehikuntzaren eraginez. Hegoamerikako hazkunde ere nabarmena izan daiteke, bere bi motorren eskutik (Brasil eta Mexiko), nahiz eta neurri handi batean AEB eta Kanadaren eboluzio ekonomikoak baltdintzatuko duen.



Ondorio orokorrak

- ◆ AEBk pisu erlatiboa galduko dute ekonomia globalean: mundu ez hain hegemonikorako trantsizioa.
- ◆ Garapen bidean diren herrialdeen ekonomien hazkunde ekonomikoak lehengaien kontsumoaren gehikuntza eragingo du aipatu herrialdeotan, presio erantsia suposatuko duelarik lur planetako baliabide eta kliman.
- ◆ Hazkunde ekonomikoak, izatez, beste makro joera batzuk eragiten ditu, hala nola, indibidualismoa de desmaterializazioa. Oro har, heziketa eta merkatal mailen gorakadarekin lotzen da hazkunde ekonomikoa, nahiz eta zaila den jakitea zein den zeinen ondorio. I
- ◆ Nabarmen igoko dira zenbait gastu (esaterako osasungintzarekin eta auto-errealizazio pertsonalarekin lotura dutenak)
- ◆ Aberastasunaren hazkundeak eragin erlatiboa izango du bizi pozan.

Kontra-joerak

- ◆ Hazkunde ekonomikoak gehiegizko presioa eragin dezake ingurumen, azpiegitura eta osasun zerbitzuetan. Egoera honek zergen bidez lortutako diru sarrerak gaitutuko lituzkeen inbertsio publikoak behar ditzake.
- ◆ Beroketa globalak eta lehengaien salneurrien igoerak moteldu eta gelditu dezakete hazkunde ekonomikoa.
- ◆ Kontsumo joerak aberastasun materialetik aberastasun ez materialera aldatzen diren neurrian, bizitzaz gehiago gozatzeko, lan gutxiago egitea aukeratu dezaketzen pertsonen multzoa sor daiteke. Aukera honen alde egin duen lagun kopuru nahikoa izanez gero, negatiboki eragin lezake hazkunde ekonomikoan.

Nafarroarentzako joerak

- ◆ **Globalizazioak industria arloan eragiten duen ahuleziak** murriztu egin dezake Nafarroaren hazkunde
- ◆ **Nazioarteko inbertsioetan arrisku faktorearea**
- ◆ **Sektore egituraren aldaketak, goi teknologiko eta zerbitzu aurreratuak ematen dituzten industria sektoreek garrantzia irabazi dute eta ohiko industria tradizionalak pisua galdu du.** Edonola ere " Nafarroan egina" zigituaren aldeko lana egin behar dugu, eta horretarako balio erantsi handiago duten produktuak eskaini behar ditugu (balore materiala edo ez-materiala)
- ◆ **Balore handiko produktu gisa kokatuta dauden Nafarroako produktuak kanpoan saltzeko aukerak,** produktu hauek gero eta gehiago eskatzen direlarik.

3. Merkantilizazioa

Merkantilizazioa handituz doa, hazi den gure indibidualizazioak bultzatuta eta sektore pribatua tradizionaliki sektore publikoari zegozkion alorretan sartu delako.

Merkatal negozioen subjektu bihurtzen diren gizarte arloen kopurua handitzen denean ematen da merkantilizazioa: Ez dagokie bakarrik ondasun eta zerbitzu materialei, baizik eta gero eta gehiago, balore ez-materialei, hala nola, kultura, iritziak, komunitatea eta politika. Doakoak (edo ia doakoak) izan ohi diren gauzak edo norberak egin ditzakeenak, produktu eta zerbitzu gisa merkaturatzen dira egun. Hauetako adibide dira, hala nola, botilako ura, fitness-a edo harreman pertsonaletarako zerbitzuak. Merkantilizazioa hazkunde ekonomikoarekin lotzen da: gure aberastasun maila handitzen denean handitu egiten da, era berean, indibidualizatutako zerbitzu/produktuak ordaintzeko gogoia, denbora eta ahalegina aurrezten digutelako.

Merkantilizazioari bide ematen dion beste eragile bat da antzinako zerbitzu publiko askok behera egin izana. Ikastetxe, ospitale eta pentsio publikoak ez nahikotzat edo ez eraginkortzat jotzen direnean, pertsona batzuek ez dute zalantzarik izaten alternatiba komertzialak ordaintzeko. Lehen publikoak ziren zerbitzu asko, hala nola , trenbideak, posta zerbitzuak eta hirugarren adineko pertsonen zainketa pribatizatuz edo askatuz doas, lehiakortasun handiago bati bide eginez; eta azken finean, merkantilizazioaren gehikuntza eraginez.

Ondorio orokorrak

- ◆ Ordaindutako lana gizarte boluntarioen lana ordezkatzeko ari da.
- ◆ Enpresa pribatuen lehia handiagoa jasaten duten erakunde publikoen pribatizazioa handituz doa.
- ◆ Lehiakortasun handiago honen aurrean, erakundeek eta zerbitzu publikoek gero eta gehiago erabili behar dute publizitatea.
- ◆ Doakoak izan ohi ziren baliabideak merkaturatu egiten dira, esaterako, natura, bertako kultura eta osasuna.
- ◆ Aisialdia eta kultura bete-betean sartu dira kontsumoaren eremuan.
- ◆ Enpresek euren produktu eta zerbitzuei balio ez materialak eransteko saiatzeko dira, hala nola markaren pertsonalizazioa eta berezitasuna.
- ◆ Jabetza intelektualari dagozkion eskubideak gehiago babesten dira, lege murriztaileagoak egiten dira copyright eta patenteetarako.
- ◆ Gero eta gehiago erabiltzen dira kanpoko adituak.

Kontra-joerak

- ◆ Iturri eta edukiak zabaltzearen aldeko mugimenduak doako alternatibak eskaintzen ditu merkaturatzen diren produktu eta zerbitzuen ordez, informatizatu daitezkeenean bereziki. Fenomeno honen adierazleak dira , hala nola, software askea, Creative Commons eta Wikipedia.
- ◆ Enpresa Erantzukizun Sozialaren kontzeptua negozioetan etika merkantilizatzeke saiakeratzen har daitezkeen arren, era berean, negozioak dirua irabaztea baino zerbait gehiago direlako ustea zabaltzen ari da.

Nafarroarentzako ondorioak

- ◆ Nafarroako zerbitzu eta erakunde publikoek Estatuko eta nazioarteko hornitzaile komertzialen aldeko **lehia handiago** bati egin beharko diote aurre.
- ◆ Nafarroako erabiltzaileek geroz eta gehiago onartuko dute **zerbitzu publikoak koordinatzea**, bereziki, zerbitzu hauek gehiago pertsonalizatzea lortzen bada.
- ◆ **Aisialdi eta kultur produktuen eskaera handiagoa.**

4. Teknifikatzea

Garapen teknologikoak gizartean eragin handia duten eremu asko hartzen ditu barruan

Hurrengo hamarkadetako garapen teknologikoaren eremu nagusiak bioteknologia, nanoteknologia, teknologia energetikoak eta komunikazioaren teknologia izango dira. Produktibotasuna hobetzeko giltzarriak izaten jarraituko dute errobotikak eta fabrikazio teknologiek. Hurrengo urteutan garapen indartsua izango duten garapen teknologikoaren beste eremu bat, garraio inteligentea izango da.

Oro har, bizitza errazago edo beteago egitea du xede teknologiak. Teknologia ordezkatu edo erraztu egin dezake lan gogor edo aspergarria, aukera berriak eskaintzen dizkigu eta oztopoak ezabatzen dizkio informazio eta ideien trukatzeari. Hala ere, teknologia alderdi negatiboak izan ditzake, xede negatiboetrako erabiltzen denean (armagintzarako teknologia, birus informatikoak, gozatzeko xedeekin sortutako drogak...) Halaber, bigarren eraginak edo asmorik gabe ondorioztatzen diren eraginak sor ditzake, hala nola, kutsadura, beroketa globala eta egiturazko langabezia.

Garapen teknologikoak “ arraila digitalera” eraman gaitzake, garatutako gizarteetan zein hauen artean eta garapen bidean diren herrialdeen artean.

Ondorio orokorrak

- ◆ Lan merkatuan moldatzeko beharrezko diren gutxienezko gaitasunak goragoko mailan jarriko dira.
- ◆ Mundu birtualen gorakada, bere ekonomia birtualarekin, bere momentuan errealitate birtualak eta errealak bat egingo dutelarik.
- ◆ Amateurismoa: Zenbait zaletuk, teknologia merkeak erabilia, profesionalek egin ohi zituzten eginkizunez arduratzen joango dira.
- ◆ Garapen teknologikoa dugu garapen ekonomikoaren eragile nagusia, eskulana, denbora eta baliabideak askatzen baititu baliabide produktibo berriak garatu daitezzen.
- ◆ Informatizazioa: Gero eta handiagoa da bertsio digitala ezartzeko xedez, euskarri fisikoa ordezkatzen duten produktu eta komunikabideen kopurua.

Kontra-joerak

- ◆ Teknologia berriek arbuioa sor dezakete arrazoi ezberdinengatik, hala nola, alaketaren aurkako erresistentzia, langabezia handitu daitekeelako beldurra, edo sinesmen etiko edo moralen aurka egin dezakeelako.

Nafarroarentzako Ondorioak

- ◆ Goi mailako trebakuntza, espezializazioa eta goi mailako heziketa duten pertsona sortzaileen eskakizuna handitzeak **talentua mantentzeko eta erakartzeko programak indartzera behartuko gaitu.**
- ◆ **Osasunari ezarritako teknologia laguntza handia izan daitezke** biztanleriaren zahartzeak ondorio modura dakartzan erronkei aurre egiteko..
- ◆ Informazio cluster, parke teknologiko eta berrikuntza hazitegien sorkuntza bideratzeak ekonomia susper dezake eta lagungarria izan daiteke industria sortzaileetan eta jakintzan oinarritutako ekonomia baterako trantsizioan. Iraultza kulturalera eraman gaitzaketenak era berean.

5. Jakintzaren gizartea

Jakintza dugu gizarte eta enpresa baten balio nagusia

Lehengaiak, eskulana eta kapitala jo izan dira baliabide ekonomiko nagusitzat. Gaur egun, gero eta garrantzi gehiago ematen zaio jakintzari. Informazio eta komunikazio teknologiei eta internet amaraunari esker, gehiengoak erraz eta doan eskura dezake jakintza hau.

Enpresa baten balio nagusiak ez dira bere makinak eta eraikinak, bere langileen talde gaitasunak baino. Era berean, nazio baten baliabide nagusiak ez dira bere laborantza lurak edo beste baliagai naturalak, bere herritarren gaitasun harmonizatuak baino.

Ondorio orokorrak

- ◆ Handitzen ari den espezialitate eta espezialisten beharrezana.
- ◆ Beste alde batetik, ezagutza orokorrak dituzten pertsonen beharra dago jakintzaren esparru zabal bat gainbegira dezaten; eta halaber, jakintzak uztartu eta espezialitate gama zabal baten pertsonak zuzendu.
- ◆ Jakintzak azkarrago zahartzeko joera du, eta baliabide ugari erabili behar dira ezagutzak gaurkotzeko: Ezin da bizitzaren hastapeneko epe batera heziketa mugatu, bizitzan zehar garatu beharra dago (etengabeko heziketa)
- ◆ Jakintzaren “demokratizazioak” boteretik dagoen distantzia hierarkikoa gutxitzen du.

Kontra-joerak

- ◆ Aurkikuntza berrien gogo bizia eta hauen gainean ematen diren eztabaida irekiak, erlijio eta beste era batzuetako dogmatismoetarako hazitegia dira.
- ◆ Jakintza esparrua zabaltzen eta hazten den heinean, ezagutza berriak gehitzea, dagoen ezagutza bide berrietatik aztertzea eta erabiltzea baino garrantzi gutxiagokoa izan daiteke. Gertakari honek trantsizio bat eragin lezake Jakintza Gizartetik Sormenaren Gizartera.

Nafarroarentzako ondorioak

- ◆ **Nafarroako gizarteak erabaki publikoen gaineko gardentasun eta publizitate gehiago eskatuko du. Agintariek euren erabakien erantzukizuna hartu beharko dute bere gain eta hartu behar duten jakintzaren arabera oinarrituta.**
- ◆ Nafarroako zerbitzu eta produktuek gero eta lehiakide **gehiago** aurkituko dituzte Internet bidez topa daitezkeen alternatibetan; baina aldi berean, aukera berriak ere izango dituzte.
- ◆ Honek guztiak lan postuan etengabeko prestakuntza bultzatzera garamatza.

6. Parte hartze demokratikoa

Gero eta demokratizazio eta gardentasun handiagoa, aukera berdintasuna eskaintzen duten gizarteetan eta herritarren partaidetzak gora egiten duen tokietan.

Demokratizazioaz ari garenean, funtsean, pertsoneri botere politiko, ekonomiko eta kultur zabalagoa emateaz ari gara; eta horrekin batera ere, gutxiengoaren gaineko tolerantzia eta onarpena handitzeaz, era honetan, demokrazia ez da gehiengoaren diktadura bilakatuko. Demokratizazioak ez du esan nahi pertsona guztiak berdinak direnik, guztiak aukera berdinak dituztela baizik. Gero eta gehiago dira eskubide demokratikoak dituzten herrialdeak, pertsonak eskubideak erdiesten dituzten herrialdeak, hala nola, bere bizitza pertsonal eta lanaren gainean kontrol gehiago edukitzea. Internetek software askea eta artxiboen trukatzeko programak eskaintzen ditu, kostu handiko produktu eta merkatal zerbitzuen alternatiba bilakatuz, pertsonen boterea areagotzen dela. Liberalizazioak gobernuek ezarritako murrizketatik enpresak aske uzten dituen bitartean, gobernuek eta enpresek ezarritako murrizketatik libuesten dituen pertsonak demokratizazioak. Horrela bada, demokratizazioak merkaturako indarrak arautzea eragin dezake trust eta monopolioak ager ez daitezen, eta era berean gobernu eta korporazioetan hartzen diren erabakiak gardentasunez har daitezten. Demokratizazioak, halaber, pertsona guztientzako aukera berdintasuna esan nahi du, doaneko heziketa eta osasun zerbitzuak eta kalitatezkoak eskaintzen dituen gizarte sistema batean errazago lor daitekeen egoera..

Testuinguru honetan, herritarren partaidetza handiago baten eskaera emango da Ordezkapen Demokrazia soilaz harago. Herritarrek euren iritziak agertu nahi izango dituzte bere gizartearen erronken aurrean, eta administrazioek partaidetza hau sustatzeko mekanismoak jarri beharko dituzte, Demokrazia parte hartzailean eramango gaituena. Para propiciar esta participación que nos llevará a la Democracia Participativa.

Ondorio orokorrak

- ◆ Pertsonak eta gutxiengoak botere gehiago izango dute.
- ◆ Lege eta araudi murriztaileen aurkako protestak izango dira, pertsona bakoitzaren erabakitze gaitasun askearen eta bizitzeko moduaren mugaketak direla jotzen denean, guztien ongizatean eragingo lukeen inongo kontra-partida proportzionalik gabe.
- ◆ Konfiantza eta errespetu gutxiago agintariengan, bereziki heldu-ezinak diren botere ekonomiko, erlijio eta politikoengan.
- ◆ Erabaki publikoetan demokrazia zuzen eta gardentasun gehiago.

Kontra -joerak

- ◆ Polarizazio ekonomikorako joerak mehatxatu egiten ditu demokratizazio prozesuak, gizarte eta kultur berdintasunik eza erakusten duen eszenatoki batetara eramaten duenena bereziki.
- ◆ Merkantilizazioa eragiten duen makro-joerak demokratizazioaren aurka egin dezake, pribatizazioek maiz ezabatzen baitituzte erakundeen kontrol demokratikoa.
- ◆ Korporazio multinazionalen nazioen beste botere izan dezakete, baina ez dihardute kontrol demokratiko baten menpe.
- ◆ Ekintza positiboa, berdintasunik ezak borrokatzeko ezartzen dena, aukera berdintasun ezaren arrazoia izan daiteke.

Nafarroarentzako ondorioak

- ◆ Pertsona sortzaileek, etorkizuneko ekonomian hain garrantzitsuak izango direnak, gutxiengoaren eta bizitza era originalak dituztenenganako erakarpene sentitzen dute. Horrela bada, **Nafarroan tolerantzia eta aniztasuna sustatzea eragile kritikoa izan daiteke etorkizuneko garapena ziurta dadin.**
- ◆ **Nafarroan bortizkeriaren bideak sostenguak galtzen jarraituko dute eta gizarteak gero eta gehiago arbuiautuko ditu..**
- ◆ Pixkanaka eman den oinarri ideologikoen galera **Parte hartzea bideratuko duten mekanismoak** ezartzeko beharrezana dago Nafarroako gizartearen aipatu gizartearen eraikitze lanetan.

7. Indibidualizatzea

Pertsonak esparru propioa eskatzen dute euren aukeraketa egin ahal izateko, partaide izan nahi duten erkidegoa aukeratzeko orduan ere.

Gizabanakoa muga eta oztopo natural eta kulturaletatik une oro askea izatea da indibidualizazioa, gizartearen modernizazioari esker gauzatzen dena. Pertsonak ez daude behartuta -eta oso arraroa da haietatik espero izatea- euren nagusien lanbidea, erlijio edo ideologia politikoa aukeratzera. Egun, identitate pertsonala gehiago da pertsonen aukeraketan emaitza, kanpoko eraginena baino..

Indibidualizazioa areagotu izana, gizabanako modura adierazteko beharrian pertsonal baten ondorioa da, eta gainera, askatasun indibidualerako inguru egokiago bat ematen dela: Mendebaldeko gizartean bizi diren pertsonak gero eta gehiago balioztatzen dute auto errealizazioa, jabetza sentimenduaren kaltetan. Honek ez du esan nahi, pertsona indibidualistek ez dutela komunitate baten partaide izan nahi, baizik eta beren aukeraketa propioak egiten dituztela zein komunitate edo komunitateetako kide izan nahi duten erabakitzerakoan. Handituz doan interdependentzia ekonomikoak ere bide ematen dio pentsamendu, estilo eta kultura interdependentziari. Iraganean, indibidualismoak ostrazismoan geratzeko arriskua erakartzen zuen; gaur egun, gero eta garrantzitsuagoa da gizabanako independente modura "marka" bat sortzea.

Nahiz eta oro har indibidualizazioa askatasun gehiagoren jatorria izan den, "aukeraketaren tirania" eragin du baita ere: Gaur egun, norbanakoak aukeratu behar du zer izan, zer egin, zer adierazi, zer itxura eman; eta honez gain, kide izan nahi dituen pertsonak, kulturak eta ideiak edo euren bazkide egin: Ez baditu aukeraketa hauek egiten, zentzurik gabeko gizarte sarerik gabeko ez-entitate bihurtuko da.

Ondorio orokorrak

- ◆ Langileek arazo gutxiago izango dituzte enpresaren marka eta kultura bereganatzeko, eta gehiago ahaleginduko dira enpresa euren berezko " marka" pertsonal gisa erabiltzeko..
- ◆ Erakunde kolektiboek desgastea izango dute, hala nola sindikatuek, alderdi politikoek,erlijioek, familia nuklearrek eta tokiko komunitateek sare informal eta pertsonalizatuen onurarako.
- ◆ Errespetu eta mendekotasun gutxiago agintariengan; konfiantza gehiago nork bere buruan eta gizarte sare propioetan.

Contra-tendencias

- ◆ Erradikaltasun politikoak, erlijioaren berpizkundeak eta gutxiengoenganako ostrazismoaren mota berriek gorantz egin izanak geldiarazi egin dezakete indibidualizazioa.
- ◆ Krisialdi ekonomikoek, sarritan, indartu egiten dituzte tradizioak eta pertsonak modu berean pentsaraztea eragiten dute.
- ◆ Askatasun indibiduala mugatu egin daiteke ongizate kolektiboaren izenean (horrela geratzen da baita ere leku publikoetan erretzea debekatzen denean edo zergak igotzen direnean gizarte edo heziketa zerbitzuak finantzatzeko).

Nafarroarentzako ondorioak

- ◆ **Nortasuna eta kultura** kontzeptuek rol garrantzitsua betetzen jarraituko dute pertsonen gizabanako identitatearen parte gisa, eta sentimendu indartsuak erakutsiko dituzte kontzeptuoi dagokienez.
- ◆ **Zerbitzu publikoak indibidualizatzeko eskaera** handitu egingo da, osasun zerbitzuak eta hirugarren adineko pertsonen zainketak barne.
- ◆ Kausa ezberdinak defendatzeko interes taldeak ugalduko dira.
- ◆ Familiek menpekotasun txikiagoa izango dute norbanakoaren independentziaren beharra handiagoa izango delako .
- ◆ Nazio eta erregioa nortasunak bizirik dirau, pertsonak taldeko kide gisa pentsatzen jarraituko dute, baina bakoitzak bere burua asetzea bilatuko da, gure bizitzarako desiragarria, egokia eta ona delakoan.

8. Desmaterializazioa

Balore berriak bilatzea fisikoa edo ekonomikoa denaz harago

Mendebaldeko gizarteak aberastu egiten diren neurrian, beharizan materialak gauza ziurtzat jotzen dira. Era honetan, aldaketa bat eman da eta balore ez-materialetan zentratu da arreta; sarritan baliabide gehiago erabiltzen dira ondasun ez-materialentzako, ondasun fisikoetarako baino. Produktuen ezaugarri sentsual, etiiko eta estetikoaren gaineko interesean gauza daiteke desmaterializazioa, eta era berean, historia interesgarriak dituzten produktu bakarrak baloratzeko joera, ezaugarri fisiko hobeak dituzten eta seriean fabrikatutako produktuen kaltetan.

Balore ez-materialek ere eragina dute politikan eta lan merkatuan. Politikan, balore nazionalak eta etnikoek gai ekonomikoak eta azpiegiturakoak baino garrantzi handiagoa izaten dute maiz. Langileek ez dute soilik soldata hobeak jasotzeko interesa, gero eta arreta handiagoa jartzen dute enpleguak duen zentzuan, zirrargarria eta etikoa izan dadin. Inkestek behin eta berriro erakusten dute lanean ari diren pertsonen gehiengoak zentzua duen lan bat aukeratzeko lukeela, diru sarrera handiagoa emango liokena baino.

Ondorio orokorrak

- ◆ Markek kalitatea suposatzen zuten baina gaur egun balore ez-materialen ikurra suposatzen dute. Sarritan, produktua baino inportanteagoa bilakatu da marka, eta enpresako produktu nagusiekin loturarik ez duten produktuak saltzeko erabiltzen dira.
- ◆ “Esperientziaren industriak” -komunikazio enpresak, bizitza estilorako produktuak, turismoa, kirolak, jokoak eta kultura biltzen dituen ekonomia orokorra baino gehiago hazteko joera erakusten du. Jokoen industriak, bereziki, hazkunde maila oso altuak erakusten ditu.
- ◆ Garrantzi handiagoa ematen zaio balore kateari: produktu bat egiterakoan ingurumena errespetatu ote den, azpikontratutako enpresak edo pertsonak bidezko tratua eta soldata jasotzen duten, enpresak Enpresa Erantzukizun Soziala betetzen duen eta abar.

Kontra-joerak

- ◆ Kontsumitzaileek era negatiboan erantzun dute faltsutzat edo hain benetakotzat jotzen ez diren produktu, zerbitzu edo esperientziak. Gauza bera gerta daiteke produktu bat gehiegi erakusten denean edo honen gaineko publizitatea iruzurtzat jotzen denean. Esperientziak edo kontsumitzaileen emozioetara jotzeko gogorik gabeko saiakerak ezer ere ez egiteak baino emaitza txarragoak izan ditzake.
- ◆ “Oinarriko kontzeptuetara itzultzeko” joera bat ematen da, ezaugarri praktikoetan eta neurgarrietan kokatzen du interesa alderdi ez-materialen kaltetan.. Joera honek erakuts dezake marka sortzeari ekiten dioten enpresek arduragabekieraz jokatu dutela beren produktuen kalitate fisikoari dagokionez.

Nafarroarentzako ondorioak

- ◆ Produktuak egiten dituzten industriek **interes handiagoa jarri beharko lukete ezaugarri ez materialetan**, baina ez materialen kalitate estandarrak gutxitzearen kontura.
- ◆ **Turismo industria** esperientziaduna eta sortzailea **hazteko** beharrezko oinarriak ematen dira.
- ◆ Azpiegitura “bereziak” sortzeko jarraituko du laguntzen marka irudi baten sormenean. Eskualde edo hiri baten erakargarritasuna handitu dezakeen eraikin bakar eta kalitate altuko eredu dugu **Guggenheim-Bilbao**.
- ◆ **Ekonomia sortzaileak** pisu ekonomiko eta sozial handiko sektore bilakatzeko aukera izango du Euskadin.

9. Aldaketa demografikoa

Demografia piramidea alderantziz jarriko da populazioak zahartzeko duen joerarekin eta inmigrazioak garrantzi handiago hartuko du.

Maila globalean, demografia piramidea alderantziz jartzen ari dela ikusten ari gara. Bi eragilek eragiten dute joera hau: jaiotze-tasaren beherakada eta bizitza itxaropenaren gorakada. Zahartzeko joera nabarmen ematen da mendebaldean, baina hedatzen hasia da garapen bidean diren herrialdeetan ere. XX. Mendearen erdialdean, lehen mailako arazotzat jotzen zen populazioaren hazkundeak. Gaur egun, gehiago arduratzen gaituzte populazioa zahartzeak eta gertakari honek etorkizunean eragingo duen eskulan eskasiak. Munduko populazioaren batzbesteko adina 24 urtekoa zen 1950 urtean, baina 38ra iristea espero da (47 Europan) 2050 urtean.

Garatutako herrialdeen populazioaren ia %10 jaiotako sorterritik kanpo bizi da, aurreikuspenen arabera inmigrazioa hazi egingo da etorkizunean.

Halaber, munduaren gero eta gardentasun handiagoak populazioaren hazkundearekin lotuta, migrazio korrante indartsuak eragingo ditu.

Ondorio orokorrak

- ◆ Populazioa zahartzeak mendekotasun tasaren igoera eragiten du, eta beraz, jaitzi egingo da lanean den pertsona kopurua, jubilatutako pertsona bakoitzeko.
- ◆ Pertsona gazteen kopuruaren jaitzierak handitu egingo du eskulan gaztearen eskaera. Egoera honek zaildu egingo ditu kontratazioak, estatus baxuko eta soldata gutxiko kasuan bereziki, eskulanaren eskaera igoera handia aurreikusten duen sektorean, populazioaren zahartzea dela eta.
- ◆ Botoa ematen dutenen zahartzeak kontserbadorismoa areagotu dezake politikan, kontsumoan eta ikerkuntza publikoan.
- ◆ Inmigrazioaren gorakadak gutxiengoak handituko ditu eta identitate nazionalen errosioa gerta daiteke.
- ◆ Urbanizazioak handitu egingo ditu azpiegituraren beharrak metropolietan eta hauen artean, hauetatik kanpo dauden eskualdeen despopulazioa gertatuko da.

Kontra-joerak

- ◆ Bizitzeko itxaropena handitu egin da eta hori islatuta geratzen da biztanleria aktiboaren adinean. Izan daiteke etorkizuneko pertsona nagusiak (batez ere heziketa maila handiena dutenak) lan merkatuan egoteko aukera gehiago izatea.
- ◆ Epe luzera, jaiotze tasa igotzeko politikek (haurrak zaintzeko zerbitzuak hobetzea, amatasun lizentziak eta diru laguntasunak) zahartzearen eragin ezkorrak murriztu ahal dituzte, baina epe laburrera mendekotasun kotak haztea eragingo dute, lan egiten duten pertsonen gazteenak eta adinekoak mantentzen dituztelako.
- ◆ Asia, Afrika eta Ekialdeko Europako inmigrazio gazteak Mendebaldeko Europako jaiotze tasa baxua konpentsa dezake

Nafarroarako ondorioak

- ◆ Nafarroako oraingo jaiotze tasa baxua Europako baxuenen artean dago eta bizi itxaropena altuenetan dago. **Egoera honek Nafarroan biztanleriaren zahartzea ekarriko du.**
- ◆ Gaur egun Nafarroa ez dago migrazio fluxuak arautzeko tokian, eskumen hori Estatuarena baita. Dena dela, Europar Batasunak pertsona eta langileen zirkulazio askea ahalbidetzen duenez, **Nafarroak agian EBko langile espezializatuak erakarri beharko ditu**, Irlandak egin izan duen moduan.
- ◆ Inmigrazioak gure gizartearen eraldaketa sakona eragingo du eta gizarte etnia-anitza eta kultur-anitza izango da.

10. Osasunaren rol berria

Osasunak hartuko ditu baliabide inbertsio gero eta handiagoa, osasuntsu egotearen gaineko kontzeptu zabalago batekin.

Gero eta baliabide gehiago inbertitzen dira osasunean, pertsonalak zein publikoak. Badira zenbait arrazoi:

- ◆ Aberastasun maila handitzean, baliabide gehiago erabil ditzakegu egoera osasungarrian mantentzeko.
- ◆ Baldintza ekonomikoen hobekuntza, eta gorputzaren desgaste handia eragiten zuten lanpostuen automatizazioak handitu egin dituzte bizitzeko moduari lotutako gaizotasunak, hala nola, gizentasuna, janari-gehiegikeriak, drogak eta abar. OMEren kalkuluen arabera, 2010an osasun sektorearen gastuen %70, gure bizimoduarekin lotutako gaisotasunei aurre egiteko erabiliko dira.
- ◆ Medikuntzako teknologiak hobetzen diren neurrian, gero eta gehiegikeria kopuru handiagoa eta tratatzeko gai diren gaizotasunak agertzen dira, eta honen ondorioz, herritarrek aipatu tratamenduak eskatuko ditu hauen kostua kontuan izan gabe.

Gaur egun, gaizotasunak ez izatea baino zerbait gehiago da osasuna; bizitasuna, energia, oreka eta norberaren bizitzaren gaineko kontrola izatea, fisikoa zein mentala, barneratzen duen kontzeptu positiboa bilakatu da osasuna: Etorkizunean, gure osasuna artifizialki hobetzea normala den egoera batean izan gaitzake, eta botikek, kirurgia eta terapia genetikoei giza arrazaren muga naturalak gainditzeko gaituko gaituzte. Goitik ez da existitzen osasunaren kontzeptu zabal hau mugatu dezakeenik, beraz, gero eta handiagoa da kontzeptu honi zuzendutako baliabide sortarik handiena.

Ondorio orokorrak

- ◆ Osasuna, lantokiak berrmatuko lukeen onuratzat jotzen da gero eta maizago, hala nola, gimnasioa, janari osasungarriak ematen dituzten kafetegiak eta tabakoaren aurkako politiken bidez.
- ◆ Osasun-sektorearen gastuak gero eta zama handiagoa dira herrialdeen aurrekontuetarako, adineko pertsonen kopurua handitzen den neurrian bereziki.
- ◆ Estresa da behin behineko ezgaitasunak eragindako bajen ohiko arrazoia.
- ◆ Gero eta arreta handiagoa ematen zaio norbanakoentzako konponbide genetikoei, esaterako, profil genetikoko pertsonalak.

Kontra-joerak

- ◆ Sasoiaren dauden eta ez dauden pertsonen arteko polarizazioa gero eta handiagoa da: Gertakizun honek osasun gutxiago dutenak sozialki baztertzea ekar dezake, borondate faltaren eta zenbait okerreko erabakiren ondorioz jotzen baita osasun txarra.
- ◆ Lanean ari den populazioa gutxitzeak lan karga handiagoa suposatzen ahal du pertsonentzat, eta era berean osasuna kaltetzea eragin dezake.

Nafarroarentzako ondorioak

- ◆ **Osasun gastu publikoa handitzea**, populazioa zahartu egiten delako eta hain osasungarriak ez diren bizimoduek eragindako gaizotasunak direla eta.
- ◆ Epe luzera, **ohitura osasungarriak sustatzeko kanpainen eta heziketan** egindako inbertsioek gutxitu egin ditzakete aipatu gastuak.

11. Polarizazioa

Polarizazioa gizartearen alderdi askotan ematen da.

Polarizazioa, muturrak haztean gertatzen da. Gizarte modernoetan polarizazio mota ugari aurkitzen ditugu:

- ◆ **Politika:** muturreko talde politikoak hazten direnean eta iritziak edota botoak elementu komun gutxi dituzten bi hegalean artean banatzen direnean.
- ◆ **Arraza:** arraza gutxiengoak ez direnean integratzen edota handitu egiten denean bazterketa maila.
- ◆ **Erlijosoa/kulturala:** gizarte bateko erlijio edo kultur taldeek era bortitzean aurka egiten dutenean politikaren esparruan.
- ◆ **Jeneroa:** emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukeren arteko ezberdintasuna (formala edo informala) handitzen denean.
- ◆ **Ekonomikoa:** diru sarrera edota aberastasunaren arteko ezberdintasuna handitzen denean.
- ◆ **Osasuna:** osasun onaren edo txarraren hazkundera maila ezberdinean ematen denean.
- ◆ **Urbanizazioa:** hirietako populazioa hirikoak ez diren zonaldeen kontura hazten direnean.
- ◆ **Kontsumoa:** luxuzko produktuen eta eskaintzen diren produktuen kontsumoa handitzen denean salneurri eta kalitate arrunteko produktuen kaltetan.

Ondorio orokorrak

- ◆ Polarizazioaren gorakadak adieraz dezake pertsona bakar batzuk izango direla hazkunde ekonomikoaren onuradunak; honek gizartearengan eragiten dituen ondorio positiboak gutxituko ditu. Joera honek mehatxatu egiten du gizarte kohesioa eta ekonomia ezegonkorra eta azpi-ekonomia ugaritzea ekar dezake.
- ◆ Polarizazio ekonomikoak gizarte ondasunaren garapen negatiboa ondoriozta dezake; hau da, prestakuntza gutiko pertsonen seme-alabek aukera gutxiago izatea eta heziketa egokirik ez izatea.
- ◆ Urbanizazioaren gehikuntza hiri azpiegiturak gain zamatuta ahal ditu eta biolentzia, hondakin eta kutsadura arazoak sortu. Oro har, hirietara lekuz aldatzen diren pertsonak gazteak direnez, biztanleria landatarraren zahartze latza eragin dezake.
- ◆ Familia, asoziazionismoa eta gizarte laguntzaren baloreak ahuldu egingo dira.

Kontra-joerak

- ◆ Polarizazio ekonomikorako joera globala ematen dela egia izan arren, ez da ahaztu behar herrialdeen arteko berdintasun ekonomikoaren aldeko mugimendu bat dagoela, garapen bidean diren herrialdeek garatutako herrialdeek baino hazkunde tasa handiagoak izateko joera dutelako.
- ◆ Ordenagailu merkeek eta interneterako konexio merkeek (edo doakoek), eta halaber software askeak eta eduki irekiek jakintzaren gizartera sartzeko baliabideen eskakizuna gutxitzen dute, polarizazio ekonomikoaren ondorioak gutxituz.
- ◆ Komunikazioaren teknologiek albisteak, ezagutzak eta kultura hedatzen laguntzen dute, isolazionismo kulturalari eta politikoari aurre eginez.

Nafarroarako ondorioak

- ◆ **Polarizazio ekonomikoaren** hazkundera gertatuko da (lan esku inmigrante merkea sartu izanaren ondorioz) eta honek gizarte kohesioa mehatxatu ahal du.
- ◆ Orokorrean, soldata altuen arteko desorekak zergen bidez finantzatzen diren zerbitzu berdintzaileak ahalbidetzen dituen ongizate estatuari babes txikiagoa eragiten du.
- ◆ Laizitate eta erlijiotasun arteko polarizazioak kezka egoerara eramanez ahal gaitu, erlijioa moduko erreferente tradizionalik ez dagoelako.
- ◆ Inmigrazioaren hazkunderarekin batera ez dator etorkinak integratzeko ahalegin proportzionala. Honek arraza, erlijio eta kultur arloko polarizazioa eramanez gaitzake eta arrisku pertzepzioa ere handituko da.
- ◆ Nafarroako gizartearen **familia anitzaren balore propioa** mantendu behar dugu.

12. Hiri kontzentrazioa

Hiri handiak gure habitat nagusi ari dira bilakatzen, XXI. Mendeko erronka garrantzitsuenetako bat delarik.

Hiri mundua, hau da, hiriak, mundu mailako erronka da, hazkundera etengabea delako. 1900 urtean munduko populazioaren % 10 besterik ez zen hirietan bizi, 2030 urterako 5000 milioi izango dira hirietan biziko direnak, osotara 8000 hiri izango direlarik..

Neurri handian, hau gertatzen da bitzita kalitate hobea bilatzen delako. Horrela ba, heziketa, osasuna, hobeto ordaindutako lana, kultura eta aisialdirako gune gisa ikusten dira hiriak. Kultur aniztasun handiena biltzen dute, sormena, gizarte sare eta hiritarren partaidetzaren garapenerako giltzarri.

Hiri desafioa aurrekaririk gabeko erronka izango da XXI. Mendeko gizartean, ingurumenarekin eta epe luzerako gizarte eta ekonomia bideragarritasunarekin lotutako arazoei egin behar izango baitie aurre. Urbanizazioa eta jasangarritasuna bateratu beharko dira.

Ondorio orokorrak

- ◆ Hirietako populazioaren igoerak dagokion azpiegitura, zerbitzu eta etxebizitzaren hazkunderarekin joan beharko luke lotuta.
- ◆ Urbanizazioak ondorio ez desiratuak eragin ditzake, hala nola, kutsadura atmosferikoa, ghetto edo ez legezko bizitoki modura garatutako auzoak sortzea, laborantza lur emankorrenen suntsiketa, hondakin kopuru handiak sortzea, baliabide energetikoen gehiegizko kontsumoa, arnasketari dagozkion gaixotasunak agertzea, alergiak eta abar.
- ◆ Hirietan erabakiko da gizatasunaren patua eta bertan erabakiko da biosferaren etorkizuna ere. Ez da mundu jasangarrikerik izango hiri jasangarrikerik gabe.
- ◆ Urbanizatzeko estrategia eta politika publikoen koordinazioa eskatzen ditu lurraldearen planifikazioari honako kontzeptuok erantsi ahal izateko: garapen jasangarria, eguraldiaren aldaketa, mugikortasuna, irekialtasuna, paisaia, birziklatze sarea edo ekonomia sortzailerako espazioen garapena.

Kontra-joerak

- ◆ Hiriguneak izan dira hazkunde ekonomikoaren eragileak eta zibilizazioaren sorlekuak, baina masifikazioak, zaratak, hondakinak eta bestelakoak mehatxatutako toki bilakatu dira.
- ◆ Bazterketa egoeran dauden auzoak naturarengandik urrun egoteak, oztopo arkitektonikoen eta etxebizitzak arrisku tokietan eraikitzeak txirotasun guneak eragiten ditu eta horrekin batera ingurumenaren degradazioa eta desoreka egoerak.
- ◆ Landa garapena eta "Slow Cities" Sarea moduko "slow" mugimenduek gehiegizko hiri garapenarekin bateraezina den bizimodua sustatzen dute.
- ◆ Giza aztarna eta espazio fisikoaren okupazioa gutxitzeko eskaera handiagoa.

Nafarroarako ondorioak

- ◆ Energiaren xahutzea ekiditeko alternatibak eta hirietako kutsadura murriztea.
- ◆ **Parte hartzerako, sormenerako eta kultur aniztasuna gozatzeko** foroak eratzea.
- ◆ Pertsona guztientzako etxebizitza duina eta inguru osasuntsu eta segurua sustatzeko beharrezana. Horretarako garrantzia eman behar zaio eraikuntza ekologikoari, ohiko eraikuntzaren kalitatean, norabidetze egokian eta material teknologikoetan oinarrituta (isolagarri egokiak, eguzki panelak) eta horrekin abatera ura lortzeko teknika hobetuak erabilita, lekuak errespetatuta, sarbideak zainduta eta abar.
- ◆ **Eko-hiria edo hiri ekologikoa** kontzeptua aplikatzea auzo berriak eraikitzeko orduan.
- ◆ Hiri gune politiko eta sozial gisa, demokrazia hurbila emateko baldintzak ematen diren esparrua da
- ◆ Garapen eta hazkunde egitasmoak berraztertu behar dira, gizakiak utzitako aztarna murriztuta.

13. Denbora pertsonala baloratzea

Egungo ongizate gizarteak pertsonen auto errealizazioa bilatzen dute.

Ongizatearen gizarteak, bizitza kalitate hobe baten bila, pertsonak gizaki gisa nabarmentzen ditu. Pertsonak “ekoizteko” duten gaitasunaz gain, garapen ekonomikoan parte hartzen duten eragile gisa, azken urteotan, gero eta arreta handiago eskaintzen zaio pertsonen giza dimentsioari.

Sarritan,aldi batera uzten da esparru hau, abiadura oso bizkorrean ematen baitira aldaketa sozialak, eta ez dute espaziorik uzten bakoitzak bere denbora izan dezan. Gizakiaren alderdia baloratzeko beharizan honek pertsonen auto-errealizazioaren garapena du berarekin.

Ondorio orokorrak

- ◆ Gizakiaren lehenetsunezko xedea errealizazio pertsonala delarik izatea eta ez edukitzea defendatzen duten gizarte mugimenduen agerpena. Horrela bada “ korrontearen kontrako” diren mugimenduak agertzen dira, hala nola “slow food” janaria eta “slow cities” hiriak, alderdi humanistetan zentratuak eta alde batera uzten dutela garapen sozio ekonomikoaren alderdi ekonomikoa.
- ◆ Enfasi handiagoa ematen zaio lan eta familia bizitza bateratzeari, pertsona bakoitzak bere jardueraren parte bat esparru pribatuago bati eskaintzeko duen beharizan gisa.
- ◆ Aisialdiak gero eta garrantzi handiagoa du gure eguneroko bizimoduan, eta honi esker gure jarduera profesionalean toki handiegirik ez duten gaitasunak erabiltzen dira..
- ◆ Kultura kontzeptu tradizionalaren aldaketa.
- ◆ Pertsonak enpresari bihurtzetik urrunduko dira, horrekin lotzen baita dedikazio handia, bizitza pertsonala sakrifikatzea eta jasanezina den arrisku maila

Kontra-joerak

- ◆ Aldaketa sozialen abiadurak ahalik eta azkarren egokitze bultzatzen gaitu, oso azkar bizitzera eramaten gaitu, dugun aisialdiaren ordainetan.
- ◆ Teknologien aurrerapenak gai kopuru handi bati berehala erantzuteko gaitasun handiagotan du eragina, honek ere azkar bizitzera eramango gaitu eta lehenetsuna duena edo ez duenaren ikuspegia galtzea.
- ◆ Erosotasun maila handiagoa eskaintzen digu hirietako bizimoduak era guztietako zerbitzu eskaintza baten bidez; baina, pentsatzeko denbora ere kentzen digu gure auto satisfazioari eskaini ahal izateko.
- ◆ Egungo munduaren konplexutasunak espazioa kentzen die eguneroko usadiozko jarduerari, hauetako askok harreman pertsonal gehiago eragiten zituzten. Esaterako, denda txikietan erosketa egitea zen eguneroko jardunak pertsonak balioztatzen zituzten harreman sozialak bideratzen zituen, lotura sozialak sortzen zituelako saltzailearen eta eroslearen artean: Gaur egun, “desumanizazioaz” hitz egin dezakegu zentzu honetan honako hau ezin baita egin merkatal zentru handi batera goazenean.

Nafarroarentzako ondorioak

- ◆ Ohitura berriak agertuko dira bizikidetzaren sozial handiagorako bati lotutako joera tradizionalak baztertuko dituztenak (merkatari txikiak, ostalariak eta abar)
- ◆ **Hiritargoaren eskari ezberdinetara egokitutako aisialdi eskaintza** garatzeko aurka: kirola, kultura, turismoa eta abar. Kultura eta aisialdira lotutako sektore ekonomikoa bultzatzea..
- ◆ Aisialdirako gune fisikoak eta jarduera eskaera handiagoak
- ◆ Boluntario taldeen bidez, gizarte sareetan parte hartzearen bidez eta auzo lanaren bidez gizarte Kohesio handiagoa bilatzeko giza potentziala.
- ◆ Erakundeek hiritarren artean ekintzailatza sustatzeko beharra, berrikuntzarako eta garapen ekonomikorako balorea delakoan.

14. Bio-eguraldiaren babes

Pertsona eta gizarte kolektiboek gero eta gehiago eskatuko dute bioaniztasuna babestea eta eguraldiaren aldaketaren ondorioak saihestea.

Gizarteak gero eta argiago ikusten ditu lur planetaren beroketak ekar ditzakeen ondorioak, bereziki “negutegi eragina duten gasak” botatzeak duen eragina. Eguraldiaren aldaketa eta apurka apurka bioaniztasuna galtzea dira egoera honek dituen ondorio nagusiak eta hori egiaztatzen da XX. Mendean, baina batez ere azken 20 urteotan.

Ondorioz, pertsonak eta gizarte taldeek gero eta gehiago jabetuko dira gertakari honetaz, eta handitu egingo da kontzientzia soziala, nazioarteko mugimendu garrantzitsu bilakatu delarik “protektionismoa” edo planetaren defentsaren kariaz, eguraldiaren aldaketaren eta bioaniztasuna galtzearen aurrean.

Ondorio orokorrak

- ◆ Ugaldu egingo dira babes kolektibo eta mugimenduak, nazioarte mailan zein maila lokalean, eguraldiaren egoerak eta bio aniztasuna mantentzea izango dute xede nagusi.
- ◆ Handitu egingo dira ingurumenaren gaineko eskakizunak eremu guztietan, eta proiektu berriei aurre egiteko moduan aldaketa suposatuko dute eta baliabide naturalen ustiaketa eta industri produkzioak suposatzen dutenari aurre egiteko moduan.
- ◆ Tentsio latzak sortuko dira mugimendu protektionisten eta ekonomia eta enpresa interesen artean, gatazka sozial bihurtuko direlarik.
- ◆ Ikerkuntza eta baliabideetarako inbertsioak handituko dira espezie naturalak mantentzeko, eta aukera berriak sortuko dira esparru honetan.

Kontra-joerak

- ◆ Garapen ekonomikoa eta are zehatzago industrializazioa, negutegi efektua eragiten duten gasen jatorria da: Garapen bidean diren herrialdeek Txina eta India bereziki, ekonomikoki gero eta indartsuago direnek ez diete benetako arretarik eskaintzen aniztasuna gordetzeari eta eguraldiaren aldaketari, beren ekonomien hazkundera eta ondorioztatzen den baliabideen kontsumoaren gehikuntza lehenesten dituztelako.
- ◆ Ugaldu egingo dira presio ekonomikoa eragiteko taldeak; ekoizpen eta baliabide naturalen kudeatze eskema berbera mantentzeko xedez.
- ◆ Nazioarteko komunitateak erakutsitako kontsentsuak lortzeko gaitasun faltak kalte egingo dio politika protektionista global eta errealean sormenari.
- ◆ Ekologia mugimendu erradikalak hazi egongo dira; ekologia soziala, ekologismoaren eta anarkismoaren eskola gisa, ingurumenaren kudeaketa humanista bilatzen dute eta uste dute naturaren ordenak ez duela behar agintaririk ezta aginte zentralizaturik ere, dezentralizatua eta sareetan antolatua delakoan. Ekologismo erradikalak politika kontserbazionestekin uztartzen ditu ekologismo inkonformistaren teoriak eta praktikak, eta “eko-zentrismoa” edo ekologismo “ez humanista”rako joera agertzen du. Muturreko inplikazioak eta autoritarioak eragin ditzake.


Nafarroarako ondorioak

- ◆ Lehenetsi beharko da **energia alternatiboak** erabiltzea, besteak beste haize bidezko energia eta eguzki indar bidezko energia, eta horrekin batera **bio-erregaiak** bultzatu beharko dira. Aldi berean negozio aukerak eta jarduera sektore berriak sortuko dira
- ◆ **Administrazio Publikoak egiteko gero eta garrantzitsuagoa izango du** Eguraldiaren Aldaketaren eragina **murrizteko estrategiak ezartzeko orduan.**
- ◆ **Erakunde, eragile ekonomiko eta sozialen arteko konpromiso partekatuak** Eguraldiaren aldaketaren kontrako politika bateratua erraztuko du.
- ◆ Ezinbestekoa izango da zeharkako taldeen arteko **aliantzak** ezartzea eta **lankidetzak lanerako** markoa ezartzea..
- ◆ Beharrezkoak izango dira Nafarroako bioaniztasuna zaintzeko politikak.
- ◆ Nafarroan babes maila handia duten natur guneak sortzeko gure inguruko bioaniztasun propioa mantentzea bermatuko du.
- ◆ Pertsonak arrazoizko prezioan emandako energia hornikuntza nahiko dute.



**5. Nafarroarako gure ikuskera.
2020ko Nafarroarako erronkak**

Nafarroarako dugun ikuskera



Nafar gizartearen baloreak 2020ko Nafarroan

Ekintzailtza	Hobetzeko aukerak identifikatzeko interesa, eta aukera horiek aprobetxatzeko beharrezkoak diren baliabideak antolatze gaitasuna.
Talentua eta esfortzua baloratzea	Talentu gehien dutenek eta ikasteko eta hobetzeko "Nafarroa egiteko" ahalegina egiten dituztenek gure gizartearen ongizate komunari egiten dioten ekarpena baloratzea. Gauzak ondo egiteko interesa.
Aldaketetara egokitzea	Eboluzio prozesuaren metafora: "Ahalik eta arinen egin behar dugu toki berean mantendu ahal izateko".
Kanpo aldera irekitzea	"Nafarroa munduan kokatzea" ahalbidetzen duen ikuspegia. Espezializazioaren eta trukearen lehiakortasun abantailak eta onurak hobeto aprobetxatzea ahalbidetzen duen ikuspegia.
Networking	Beste pertsona eta erakunde batzuekin akordioak lortzeko eta haiekin modu bateratuan lan egiteko gaitasuna, sinergiak aprobetxatzeko eta erronka berriei heltzeko.
Elkartasuna	Urkoen ongizatearen aldeko lan aktiboa egitea, bereziki beharizan handiena dutenena, bai Nafarroa barruan bai munduko gainerako herrietan.
Taldearekiko atxikimendu sentimendua	Nortasun aniztasuna, berezitutako taldeek elkarrenganako errespetua mantenduko dutelarik eta beren ezberdintasunean elkar ezagutuko dutelarik; horrek Nafarroa anitzera garamatza, baina era berean partekatutako Nafarroarekin ere, elkarrekin bizitzearekin ados egoteko terminoak bilatuz.
Baloretan heztea	Familiaren balioa zaintze, bere aniztasunean. Errespetua, aniztasuna eta ezberdinen arteko elkarbizitza izan behar dira gizarte harreman eta jokabideetarako gida.
Askatasuna	Pertsona bakoitzak askatasuna behar du bizitza-eredua, familia-unitatea, erlijioa, kultura eta horrelakoak aukeratzeko; eta horrek ez dio murriztu behar gainerakoen aldean berdintasun baldintzetan bizitzeko aukera. Askatasun pertsonala askatasun kolektiboaren oinarritzko zutabea da.
Norberaren erantzukizuna	Pertsonak, zerbitzu publikoak jasotzeaz gain, gizarte osoarekiko duten ardura esparruetan egitea dagokiena egin behar dute.

Nafar gizartearentzako erronkak

Emaitza gisa dugun eszenatokiak erronka handiak planteatzen dizkio nafar gizarteari. Bost **erronka handi planteatu dira.**

1. erronka

BERRIKUNTZA: Mundu globalizatuan gizarte eta ekonomia lehiakorra eragitea

2. erronka

GIZARTE POLITIKAK: Gizarte kohesio eta ongizatea hobetzea ekonomikoki bideragarria den gizarte babeserako ereduaren bidez

3. erronka

JASANGARRITASUNA: Garapen orekatua sustatzea eta bermatzea ekonomia, gizartean eta ingurumenean

4. erronka

KULTURA ETA EUSKARA: Garapen pertsonala eta taldekoa mundu globalizatuan, gure nortasun propioari dagokion balioa ematea.

5. erronka

NAFARROA-EUROPA: Gure autogobernua osotasunean garatzea, Nafarroa anitz eta partekatua sustatzea, kanpora zabaltza eta bakea erdiestea.

1. Erronka: BERRIKUNTZA. Gizarte eta ekonomia lehiakorak eraikitzea nazioarte mailan

Oraingo testuinguru globalizatuan, Nafarroak aurrez aurre duen erronka nagusia da jakitea nola lehiatu behar den etorkizunean. Beharrezko zaigu euskal enpresak lehiakorak izatea jokaleku ireki eta globalizatuan. Bestela, ez gara gai izango gure aberastasun mailari eusteko, eta horrek eragina izango du gizarte politketan. Enpresa lehiakorak izateko, euskal gizarte osoak ere izan behar du lehiakorra (sare sozial eta instituzionala barnean sartuta). Beharrezko zaigu gizartea eta enpresak irekiak eta malguak izatea, helburu handiekin; aldi berean, arduraz jokatu behar dute beren gizartearekin.

NAFARROAK ERRONKA HONEN AURREAN DUEN EGOERAREN GAINEKO AMIA-DAFO AZTERKETA

Ahuleziak

- ◆ Gehiegizko mendekotasuna atzerriko kapitalarekiko industria sektorean eta batez ere eduki teknologiko baxuko prozesuak nagusitzen dira.
- ◆ Enpresa ehunaren gehiegizko atomizazioa eta honek ekartzen ditu eskasiak kudeatze informazio eta negozio sistemetan, nazioartetzea mugatzen da eta finantzaketarako zailtasunak ematen dira.
- ◆ B+G+i esfortzua geldirik geratu da azken urteotan eta aberastasuna eta lana sortzen duten enpresa ekimenetan egindako ahalegina ez da nahiko transformatu. Parte hartze eskasa europar fondoekin finantzatzeko egitasmoetan eta nazioarteko B+G+i sareetan integrazio baxua.
- ◆ Ekimenerako jarduera eskasa
- ◆ Profesional kualifikatu falta: energia berriztagarrien inguruko goi titulazioak, goi mailako lanbide heziketa eta etengabeko prestakuntzaren balorazio eskasa.
- ◆ Eznahikoa da ingelesaren eta garrantziko beste atzerriar hizkuntzen ezagutza maila.
- ◆ Biztanleriaren zahartzea eta mugikortasun eskasa, polarizazioa lurraldeko populazioan.
- ◆ Lurraldearen ipar mendebaldean industria garapen eskasa
- ◆ Administrazio publikoek Europarekiko bokazio eskasa dute eta temati agertzen dira EAE eta Akitaniarekiko harreman onak mantentzeko orduan
- ◆ Iruña eta euskal Y trenbidearen arteko prestazio handiko trena zehaztu gabe

Mehatxuak

- ◆ Nafarroan kokatuta dauden industriak deslokalizatzea.
- ◆ Garapen bidean dauden herrialdeak.
- ◆ Nafarroan talentua gordetzeko zailtasuna.
- ◆ Inbertsio berriak erakartzeko zailtasuna.
- ◆ Unibertsitateak urrundu dira etengabeko eraldaketan eta beharizan aldaketan dagoen merkatuaren joera eta beharizanetik.
- ◆ Gizarte kohesioa galdu da biztanleria langabearen zati handi batentzat zaila delako lan berria aurkitzea eta mila euroko soldatak pertsonen fenomenoaren egonkortu egin delako.
- ◆ Jaiotze tasa baxuak mantentzen dira.

Indarrak

- ◆ Oso lehiakorak diren industria sektoreak: Automozioa, Energia Berriztagarriak, Nekazal eta Elikagaien Sektorea eta Osasun Sektorea
- ◆ Per capita errenta altua eta europar batz bestean dagoen langabezi tasa
- ◆ Nafarroako kontu publikoak egoera egokian daude .
- ◆ Erreferentziazko sektoreei lotutako nazioarte mailako zentro teknologikoak (Cima, Cener, Cemitec, CNTA, L'Urederra).
- ◆ Giza kapitalaren prestakuntza maila altua: ospe handiko unibertsitateak
- ◆ Eraikitako azpiegituren sare handia eta martxan dauden egitasmo handiak: masa kritikoa eta garraio eta logistika sektorea sustatzearen aldeko ekimenak.
- ◆ Aberastasun handia bioaniztasun eta ondare naturalaren arloan .
- ◆ Kokapen geografiko pribilegiatua Ardatz Atlantikoa eta Ebro ibaiaren korridorearen artean
- ◆ Foru erregimena eta Hitzarmen Ekonomikoa.

Aukerak

- ◆ Enpresa-teknologi zentro-unibertsitate-administrazio arteko lankidetzak loturak hobetzea, oinarri teknologiko enpresen kopurua handituz.
- ◆ Kanpora zabaltzea ondoko erkidegoekin eta maila internazionalen.
- ◆ Nekazaritza-elikadura sektorearen kudeatzea hobetzea eta lehen sektorearen aukerak hobetzea (nekazaritza eta basoak) energia berriztagarriak produzitzearekin erlazionatuta (biomasa)
- ◆ Nekazal turismoa bultzatzea.
- ◆ Dagoen goi mailako lanbide heziketa eskaintza hobetzea eta handitzea.
- ◆ Unibertsitate ikasketak Nafarroako etorkizuneko beharizanetara egokitzea, bereziki energia berriztagarrien esparrura.
- ◆ Nazioarte mailan bultzatzaileak diren egitasmoen aldeko apustua egitea
- ◆ Biztanleria aktiboaren enpleagarritasuna hobetzeko gizarte kohesio mekanismoak garatzea, tarteko soldatak handitzeko eta enpresen beharizanetarako malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna izateko.
- ◆ Etorkizuneko integrazio beharren gestio aktiboa egitea.

2. Erronka: GIZARTE POLITIKAK. Gizarte kohesio eta ongi izatea hobetzea ekonomikoki bideragarria den babes sozialerako eredu baten bidez

Azken hamarkadetako eraldakuntza ekonomiko eta sozialak beste inguruabar garrantzitsu batzuk ditu alboan: familiaren batz besteko tamainak eta kide kopuruek behera egin dute, familia zahartuz joan da populazioarekin batera, familiak kiderik behartsuenak (adingabeak, menpekoak diren nagusiak, gaigabetuak...) zaintzeko ahalmen txikiagoa du. Oindainpeko lana gizarteratzeko tresna unibertsaltzat hartzea ere aldatu egin da; enplegu faltarik ez dago eta badago, kausak kausa, bazterketa-egoeratik edo txirotasun arriskutik atara ezin den jendea.

Honen guztiaren ondorioz gizarte babesaren ardura gero eta gehiago igarotzen da familiarengandik eta enplegutik arlo publikora. Erantzukizun publikoari buruzko diskurtsoa aldatu da subsidiariorotasun printzipioaren (familiak ezin duen tokian eta unean jardutea) inguruan izatetik familiaren osagarri jardutearen inguruan izatera (familiari lagundu, bere zeregina osatu, bere funtzio soziala egiten jarraitzeko moduan izan dadin); familia modurik zabalenean ulertuta: familia zabalak, guraso bakarrekoak, pertsona bakarrekoak...

Garapen handiagoa lortzeko, gizarte ongizatearen bermea eskaini behar diogu aldi berean euskal gizarteari. Babes sozialaren ereduak eraginkorra izan behar du, beharrianak hazi egingo direlako eta baliabideak mugatu egingo direlako (demografia-piramidearen garapenak tentsioak eragingo ditu sisteman eta mundu globalizatuan presio fiskala handiagotzeko tarte erlatiboa da).

NAFARROAK ERRONKA HONEN AURREAN DUEN EGOERAREN GAINEKO AMIA-DAFO AZTERKETA

Ahuleziak

- ◆ Egoera txarrean dauden gizarte taldeen iraupena, lan merkatutik kanpo azken hamarkadan hazkunde iraunkorra izan den arren; horrekin batera beste arazo batzuk daude (generoa, drogomendekotasuna, gaixotasuna, gaigabetasuna, inmigrazioa,...)
- ◆ Langabeziak gora egitea (lana gizarteratzeko ezinbesteko gakoa da)
- ◆ Ahultasunak etorkinak integratzeko prozesuetan.
- ◆ Gizonen aldeko ardura partekatu eskasa familiaren arduetan.
- ◆ Ahultasunak eskumen maila ezberdinen arteko koordinazioan.

Mehatxuak

- ◆ Gizarte zerbitzuen eskaintzarekiko egokitze falta (eskaria, eskaintza baino arinago hazten da)
- ◆ Gizarte Zerbitzuen finantzaketa eskasa.
- ◆ Epe luzean sistemaren jasangarritasuna arriskuan dago.
- ◆ Jaiotza tasa baxua.
- ◆ Biztanleriaren zahartzea.

Indarrak

- ◆ Nafarroak krisialdiaren eragina atzeratzea lortu izan du eta beste erregio eta herrialde batzuk baino hobeto prestatuta dago, eta beraz ez ditu ondorioak horrenbeste nozitu.
- ◆ Familiaren eta gizarte babesaren balorea, Nafarroako gizartean balore gisa mantentzen delarik, gizartean indibidualismo eta hedonismoa nagusi den arren.
- ◆ Erakundeek inplikazio handia dute gizarte egitasmoetan.

Aukerak

- ◆ Inmigrazioaren ekarpena BPG hobetzeko.
- ◆ Emakumeen ekarpena (biztanleria aktibo handiagoa, ardura maila handiagoak) BPG hobetzeko.
- ◆ Enplegurako politika aktiboen betepen hobeak gure beharrianetara egokitutako babes soziala diseinatzerako eramango gintuzke.
- ◆ Gizarte kohesio eta babesean lagunduko duten enpresa eta erakunde pribatuen ardura.
- ◆ Genero eta etnia berdintasunari ekitea.

3. Erronka: **JASANGARRITASUNA. Ekonomia, gizarte eta ingurumen garapen orekatua bermatzea**

Nafarroak bere herritarren oinarrizko beharrezkoak asetu behar ditu, eta haien bizitza kalitatea hobetu behar du hurrengo belaunaldien bizitza-kalitatea arriskuan jarri gabe. Era berean, bere natur gune eta baliabideak zaindu behar ditu. Ezinbestekoa da horretarako, proiektu bideragarriak zehaztea eta egindako edozein proiektutan komunitateek, enpresek eta banakoek kontuan hartu behar diren giza-jardueraren alde ekonomikoak (ekonomia-ekitatea) eta ekologikoak uztartzea.

Baliabide naturalak mugatuak dira, agorgarriak eta gero eta handiagoa den jarduera ekonomikoak irizpide ekonomiko hutsak gidatzen badu, arazo larriak (konponezinak ere izan daitezke) sortzen ditu bai tokian bertan, bai mundu mailan. Orain arte gobernuek hartutako neurriak ez dira nahikoak izan, eta politikak eta neurriak aldatu behar dira laster. Jasangarritasunaren aldeko ekimeneak honako arlo hauetan zentratu behar dira: lurralde eremuan, garraioan, energia ekoizpena eta kontsumoan, ur baliabideen kudeatzean eta hiri hondakinen tratamenduan.

NAFARROAK ERRONKA HONEN AURREAN DUEN EGOERAREN GAINEKO AMIA-DAFO AZTERKETA

Ahultasunak

- ◆ Sakabanaketa-hiriak eraikitze joera, bizitokia, lana eta aisialdia integratzen duten hirien ordez.
- ◆ Eraikuntza jasangarri eskasa: hirigintza gogorregia.
- ◆ Tren eta aire bidezko garraiorako azpiegituren garapen eskasa.
- ◆ Aurrezteko kontzientzia eta kontsumoaren eta baliabideen erabileraren efizientzia eskasa
- ◆ Iruña eta Nafarroako gainerako herrien arteko desoreka demografikoa.
- ◆ Gizarte kohesiorik eza (euskal / nafar kasuak)
- ◆ Lehen eta bigarren hezkuntzan hezkuntza iraunkorren garapen eskasa.
- ◆ Ura erabiltzearen eta eskuragarritasunaren arteko desoreka
- ◆ Negutegi eragina duten gasen gehiegizko igorpena.
- ◆ Garraio sektorearen aldetik energia kutsakorren gehiegizko kontsumoa .
- ◆ Nekazal-elikadura sistema intentsiboak gune batzuetan.
- ◆ Garraio energetikoaren koste handiegia.

Mehatxuak

- ◆ Garapen ekonomikoaren kontzentrazioa Tuteran-Iruñean-Altsasu eta Ebro ardatzen inguruan.
- ◆ Nekazal gunearen despopulazioa.
- ◆ Gehiegizko espezializazioa industria multinazionalen inguruan, eta deslokalizazio arriskua .
- ◆ Biztanleriaren zahartzea: mendeko hiritargoak eragindako gastuaren igoera.
- ◆ Gutxi integratutako etorkinak
- ◆ Gune naturalak babesteko eredu protekzionistegia.
- ◆ Erosio arriskua.
- ◆ Negutegi Eragina duten igorpenak hazi egin dira.

Indarrak

- ◆ Finantza eta administrazio alorreko autonomia eta biztanleko BPG altua, EBrekin alderatuta.
- ◆ Ekonomia berdearen (energia) garapenerako oinarri den industria ehun garrantzitsua
- ◆ Giza garapen maila altua eta langabezi tasa moderatua.
- ◆ Osasun Sistema liderra.
- ◆ Titulazio eta garapen altuko Unibertsitateak.
- ◆ Aberastasun handia bioaniztasun eta ondare natural terminotan.
- ◆ Ur baliabideen kalitate ona.
- ◆ Lurzoruaren kudeatze jasangarria nekazal eta basozaintza sektorearen aldetik.
- ◆ Energia berriztagarrien garapen garrantzitsua (haize bidezko energia)
- ◆ Hiritarren sentiberatasuna hondakinen tratamenduan.

Aukerak

- ◆ Ekonomia berderako eta landa turismorako garapen maila altua
- ◆ Unibertsitateei lotutako jakintza maila altua.
- ◆ Frantziarekin mugakidea den erregioa: azpiegitura energetikoen arteko elkar lotura.
- ◆ Solidariotasun eta aberastasun maila altuak.
- ◆ Nafarroak irudi ona du erkidegotik kanpo, ondo bizitzeko kalitatezko tokia, paisaia anitzak eta joateko errazak.
- ◆ Nekazal arloa gero eta sentiberagoa da produzitzeko teknika jasangarriekiko.

4. Erronka: KULTURA eta EUSKARA. Garapen pertsonala eta kolektiboa mundu globalizatuan eta gure nortasunari balorea emanda

Kultura oinarrizko kontua da gizabanakoaren aberaste eta jardunean; baina, aldi berean, hazkunde ekonomiko eta sozialerako bidea ere bada. Zalantzarik gabe, herritarren artean nabarmenki ezartzeko, abiapuntua behar da, hezkuntza ona. Kultura gizaki ororentzako beharrezko gaitzat jo behar da.

Alde batetik, nekazal guneetan Kultura egokitzeko tresna da, lurralde kohesiorako batez ere. Kulturak bizitza kalitatea sortzen du, aisialdirako aukerak ematen ditu, gizarte harremanetarako, gizarteko elementuen arteko komunikaziorako. Beste alde batetik, kultura hiritargoaren eskubidea ere bada, Giza Eskubideen Adierazpenean ezarrita dagoen legez; horren barruan gobernuen ardurakoa da hiritargoa kulturen aberastea, prestatzea eta garapena bultzatzea.

Sorkuntzak bere dimentsio guztietan, hau da, eszenan, musikan, plastikan eta hitzetan, sorkuntza sustatuko duten eta esparru horietan beren gaitasunak garatuko dituzten pertsonak izatea bultzatuko duten esparru eta erakundeak behar ditu. Gero eta gehiago, garrantzia hartzen dute kultur partekatzea eta trukitzea eta "gizarteko kultur aniztasunean" oinarritutako kultura mistoek.

NAFARROAK ERRONKA HONEN AURREAN DUEN EGOERAREN GAINEKO AMIA-DAFO AZTERKETA

Ahultasunak

- ◆ Nafarroako politikariek kultura ez dute jotzen ekimen politikorako lehentasun gisa, ondorioz ez dago planifikaziorik eta kulturaren kudeatzea 90. hamarkada hasierako planteamenduetan oinarritzen da eta ez da oso profesionala.
- ◆ Ez dago masa kritiko nahikorik eskalako ekonomia batzuk aztertzeko: probintzia bakarreko erregioa eta 600.000 biztanle.
- ◆ Unibertsitateek inplikazio eskasa dute ekimen kulturean.
- ◆ Kulturaren politizatze gehiegizkoa.
- ◆ Kultura ez da nahiko ireki Nafarroako aniztasunera.

Mehatuak

- ◆ Inguruko kultura indartsuenek eragindako globalizazioa eta kolonizazioa.
- ◆ Nafarroako kultura eragileak kontserbadoreegiak dira.
- ◆ Hiritarrek ez dute parte hartzen kultur egitasmoak egiteko orduan, ardura administrazioaren eskuetan uzten dute.
- ◆ Babesik eza euskal kulturari eta euskarari
- ◆ Nafarroan bizi eta lan egiten duten pertsonak ez dira integratzeko gai.

Indarrak

- ◆ Ingurukoa baino egoera hobean dagoen ekonomia eta portzentajeen kulturaren kontsumo handiagoa egiten da.
- ◆ Hezkuntza sare sendoa, hiru unibertsitate eta historian prestakuntzarik onena duen biztanleria.
- ◆ Gizarte zibila oso bizia da eta ez da Administrazioen zain egon kulturaren aldeko lana egiteko, hortik dator talde kultural, antzerki, abesbatza, folklore, kirol eta lanbide taldeen aniztasuna eta ugaritasuna.
- ◆ Paisai anitz eta aberatsa, aberastasun geografikoa eta klimatikoa, aberastasuna eragiten du nortasun esparruan, ohituretan eta tradizioetan.
- ◆ Euskara.

Aukerak

- ◆ Nafarroa esparru zabaleko potentzia kulturala da.
- ◆ Nafartasun kulturala gaintzea: kultur adierazpenak esparru itxiztat jotzen dutenen "derrigortasunaren" foru bertsioa. Kultura unibertsaltasuna da eta besarkada ez baztertzaila.
- ◆ Biztanle eta pertsona sortzaileen arteko lankidetzak handiagoa kultur dinamismoa eragite aldera, Kultura herrikoia eta aurrerakoia ez bada, ez delako
- ◆ Kulturaren kudeatzea politikaren aldaketatik banatzea.
- ◆ Gure elementu kulturei balorea ematea eta aberastasuna sortzeko tresna gisa erabiltzea.

5. Erronka: EUSKADI-EUROPA. Gure autogobernua guztiz garatu eta bakea eskuratu

Nafarroa, Foru Komunitatea delarik, mendeetan zehar sendotu egin den nortasun berezitua dauka eta hau bere foruen bidez garatu izan da subjektu politiko den aldetik. Erabakitzekeo gaitasuna duen sortzetiko subiranotasunarekin bat eginik, akordioak eta hitzarmenak adosteko gaitasuna du.

Ezaugarriak esanguratsuenak da euskal nortasuna ez dela uniformea, baizik eta anitza, komunikazio teknologia berrien eta globalizazio kulturalerako prozesuaren eraginez. Tradizioetan gustuko duguna defendatzeko era errealistena eta onena da era berritzailean egitea eta gizartean eta kulturean gertatzen den aldaketa prozesura sartuta. Nafarroan euskal nortasuna duten pertsonen kopurua gutxiengoa da (%30) gehiengoa denaren aurrean, baina horrez gain minorizatuta dago botere sozial eraginkorrerako hedatzeari dagokionez.

Nafarroa gizarte anitza da eta bertan bizi da aniztasun kultural eta nortasuneko, bakar batek ere ez du eskusiboa izateko indar nahikorik; egitasmo politiko instituzionalek eszenatoki malguen diseinua bilatu behar dute elkar bizitza errealitate bilakatzeko, marko itxi eta baztertzailak ekidin behar direlarik. Elkarrekotasuneko prozedurak arbitratu behar dira eta nortasunen arteko oreka egoeraren alde lan egin behar da.

NAFARROAK ERRONKA HONEN AURREAN DUEN EGOERAREN GAINEKO AMIA-DAFO AZTERKETA

Ahultasunak

- ◆ Gatazka Nafarroako gizartean: ez dago akordio politikorik eta akordioetara iristeko gaitasunik.
- ◆ Elitea eta prozedura ilunak eragin orokorreko erabakiak hartzeko orduan.
- ◆ Nafartasunaren hegemonia, azken 30 urteotan autogobernua kudeatu duena eta abertzaletasuna eta izate euskaldunaren bazterketa politiko instituzionala.
- ◆ Kultura demokratiko ahula (parte hartzea) LORAFNA eta bere aldaketak berresteko orduan ere
- ◆ Irekiera eskasa inguruko marko juridiko-politikoekiko (EAE, Iparraldea, Estatu eta EB)
- ◆ Pisu politiko eskasa estatu mailan.
- ◆ ETaren terrorismoa.

Mehatxuak

- ◆ Nortasun bazterketaren praktikan oinarritutako eskema tradizionalak errepikatzea.
- ◆ Talde batentzat entitate politiko berezitua desagertzeko beldurra dena (navarristak) nafar-euskal taldearentzat desagertzeko arriskua da.

Indarrak

- ◆ Oraingo ongizate maila: egoera ekonomiko, sozial eta politiko onargarria aldaketari ekiteko.
- ◆ Esperientzia baikorra Nafarroako eskumen propioen egikaritzean.
- ◆ Nafarroako gizartearen ongizaterako erabakiak hartzeko autonomia altua.

Aukerak

- ◆ Nafarroako demokrazia parte hartzailean sakontzea.
- ◆ Erabakitzekeo eskubidea onartzea.
- ◆ Berrikuntza politikoa.
- ◆ Konfiantza sortaraztea abertzaletasunari erakundeetan garrantzia ematea ahalbidetzeko.
- ◆ Elkarrekiko konfiantza markoa ezartzea: elkarrekikotasunean oinarritutako eta mugak eta bermeak dituen ITUNA.
- ◆ Topagune berria bilatzea: bigarren trantsizio demokratikoa Nafarroa anitz eta partekatua ahalbidetuko duena.



**6. Nafarroako EAJ-PNVk 2020ko
Nafarroarako dituen proposamenak**

Erronkak**BERRIKUNTZA****GIZARTE POLITIKAK****JASANGARRITASUNA****KULTURA****NAFARROA-EUROPA****Zeharkako ardatzak****Nazioartekotzea****Hezkuntza eta Berrikuntza****Konpromiso iraunkorra****Berdintasuna****Lankidetzeta eta gizarte adostasuna****Ildo estrategikoak**

Pertsona garatzeko lana eta enpresa lehiakorrak

Osasuna, familia, mendetasun egoeran dauden pertsonak

Energia berriztagarrien aldeko apustua/garapena

Kultura aniztasun eta aberastasuna garapen ekonomiko, sozial eta pertsonalerako

Partekatutako erakundetzea

Etengabe ikasteko sistema

Gizarte kohesioa

Nekazal/elikadura sektore jasangarria

Talde eta norbanakoaren ondarea

Bakerako normalizazio politiko eta soziala

Industria sektorearen Egiteko esanguratsua

Etxebizitza

Herrialde garapen orekatu eta jasangarria

Nafarroa Euskara lurraldea

Gobernatze berria eta hiritarren parte hartzea

Zerbitzu berriak, sormena eta ekimena

Berrikuntzarako zerbitzu Eta azpiegiturak

Bakerako hezkuntza, justiziaren alde lan egitea

Eguraldiaren aldatetari aurre egitea

Aisialdirako gune berriak

Nazioarteko solaskideak

Baloreak

Ekintzaitzailtza

Talentua eta esfortzua baloratzea

Aldaketara egokitzea

Kanpo aldera irekitzea

Solidariorotasuna

Talde-sentimendua

Baloreetan heztea

Askatasuna

Norberaren erantzukizuna

1. Zeharkako ardatza: Nazioartekotzea

- Globalizazioak aukera estrategikoak eskaintzen dizkie herri eta enpresei. Gaur eguneko ekonomian, lehiakortasuna ez dago bakarrik lan-eskuaren esparruan edo lehengai esparruan. Idei eta gaitasunen esparruan dago nagusiki.
- Nazioartekotzeak zera esan nahi du: globalizazioak berarekin dituen abantaila guztiak (teknologia berriak, komunikatzeko erraztasuna) baliatzea eta strategiaren (kasu honetan “herri estrategia”) barne sartzea.
- Nafarroak bere produktibotasuna hobetzeari ekin beharko dio, balio erantzi handiagoz egiteko gaitasuna eta ekoiztealdi bakoitzerako tokirik aproposenak bilatzeko gaitasuna hobetuz .
- Nazioartera begira irekitzeak ikastea dakar, aniztasuna eta aukera ezberdinak ulertuta berrikuntzarako aukerak eraginez. Barne garapena bultzatzen ere laguntzen du bikaintasuna bilatuz.
- Nafarroa nazioartekotzekoa, ikuspuntu zabaletik abiatu beharra dago, hori delakoan Nafarroa erregio lehiakor egiteko tresna, bai ekonomia, gizarte eta kultura aldetik.
- Lehiakortasuna hobetzerako bidea hartzeaz gain, nazioartekotzea “herri-marka” eraikitza ere bideratu beharko litzateke eta horrek Euskadi nabarmenki bereiztea ekarriko luke bere enpresa-merkataritza eta turismo estrategien arrakasta lortzeko.

Nazioarteko praktika onak

Alemania, Japonia eta AEB

Munduko hiru ekonomia handienak esportatzaile handienetakoak dira eta zientzia eta teknologiari egindako ekarpenean ere puntakoak dira, bai eta balio erantsia eta ideiak sortzeari (sormena) egindakoan ere.

Kanada

Erreferentia eta eredugarria gobernuaren gaitasun eta zintzotasunari, nazio arteko segurtasunari eta bakeari, ingurumenaren babesari eta munduko txirotasuna murrizteari begiratuz gero. Bizitza kalitate eredugarria ere lortu du.

Frantzia, Italia eta Erresuma Batua

“Kultura onaren” adierazle, hau da, kultura-tradizioa, kirola eta kultura garaikidea bateratzen dituztelako herrialde diren aldetik eskaintzen duten herentzia gisa .

Hego Europa

Oporretan joateko toki ospetsu asko dituzte natura-edertasuna, monumentuak, eraikin historikoak eta gauza erakargarriak biltzen dituztelako.

Txile

Latinoamerikan gozatzen duen egoera pribilegiatua bere ekonomiaren irekitasunean oinarritu du; honek lehiakortasuna eman dio eta merkatal akordio aurreratuak izenpetu ditu mundu mailako bloke ekonomikoekin.

2. Zeharkako ardatza: Hezkuntza eta berrikuntza

- Berrikuntza, enpresek eta lurraldeek eredu sozioekonomiko berriak egokitzeko eta lehiakorrak izateko duten ahalmena zehazten duen faktore bat dela jotzen da.
- Berrikuntza zentzu zabalean ulertu behar da, eta enpresen berrikuntza teknikoak, merkatukoak edo antolamenduzkoak ez ezik, berrikuntza soziala, kulturala eta instituzionala ere hartu behar ditu..
- Herrialde berritzailea da, mundu globalizatu eta erlazionatuan, bere ingurunearekin alderatuta, abantaila lehiakorrak eraikitze eta mantentzeko. Horretarako, ezagutzak kualifikazioak eta talentuak transformatzeko gai izan behar da, tokiko eta nazioarteko eragileak bateratuta, lehiakortasunezko abantaila jasangarria gauzatzeko eta baliabide estrategikoak gordez..
- Sorkuntza teknologiko-zientifikoa, artistiko kulturala eta ekonomikoa izango da berrikuntzaren oinarria; ondorioz, gizarte modernoak sorkuntza sustatu eta baloratu behar du.
- Gizarte aurreratuetan, informazioaren gizaritoki igaro gara ezagutzaren gizaritoki, eta honetatik sorkuntzazko berrikuntza gizaritoki eta gero eta gehiago sortzen da gizaritokian eta sarean. Horregatik sortu da gizaritoki baten Sorkuntzazko Kapital kontzeptua.
- Sorkuntzatik berrikuntzarako urratsak azpiegitura behar du sorkuntza emaitzetan bilakatzeko euskarria emango duena.
- Nafarroaren bigarren eraldaketa ekonomikoa berrikuntzatik igaro behar da. Zeharkako ardatz honek gizarte osoa eragiten du, berritzen dutenak pertsonak direlako eta lehiakorra, gizarte babes egokia, nortasuna, autogobernatua eta bakean bizi den Nafarroa lortzeko, bakoitzak bere onena eman behar diolako gure erregioari. Nafarroa berriz pentsatu behar dugu.
- Berrikuntza da Nafarroan lehiakortasuna mantentzeko alternatiba bakarra eta beraz gaur egun daukagun bizi-kalitateari eusteko.
- Mundu lehiakor batean, gakoa berrikuntza zabala da: bereizten jakitea, balioa ezagutzaren bidez sortzea, beste inork eskainiko ez duen balio erantsia ematea. Balio erantsi hori honakoetan oinarrituko da: ezagutzaren kudeaketa bikaina; pertsonen gaitasunak ahal den guztian garatzea; produktu eta zerbitzuetan gauzak egiteko modu ezberdinak eta sistematikoak; prozesuak; antolaketa; merkatuak. “ Made in Nafarroa ” leloa zabaldu eta “ thought in Nafarroa ” leloa iritsi behar dugu.
- Berrikuntzak gizarte osoa, erakundeak, sektore pribatua eta hezkuntza-eta kultura sistema osoa hartu behar du. Ikuspegi zabala, integrala eta eraldatzailea da, esparru eta sektore guztietara iristen dena, bai eta enpresa osatzen duten sail eta pertsona guztietara ere, zuznedairtzeko karguetatik hasi eta langileetaraino. Lehiakorrak izateko, partekatu beharra dago, lankidetzan jardun eta elkarren arteko harremana eman behar da.

Praktika onak nazioartean

Suediako berrikuntza eredua

Suediak berrikuntzarako duen tradizioa dela eta, herri hori lur planetako garatuenetakoa da: hango berrikuntza-adierazlea 0,73koa da, Japoniako 0,60 eta AEBtako 0,55 adierazleen gainetik. Suediak BPGaren % 3,7 inbertitu du I+G arloan, eta inbertsio horren lautik hiru, ekarpen pribatuekin egin da.

Suedia bereziki eraginkorra da ezagutza eta ekimen berriak sortzeko. Suediako enpresarien gune indartsuenetakoa bat da, gai dira etengabeko berrikuntza giroan taldean lan egiteko, ideiak partekatzeko eta berrikuntza sistematika bat aplikatzeko. Suediako enpresek beren ingurunean beharizanen etengabeko jarraipena egiten dute.

Singapur

Nazioarteko txostenen arabera, Singapurreko hezkuntza eredua eraginkorrenetakoa bat da. Gainera, berezitasun bat dauka: erlatiboki ez da kostu handikoa, hari esker lortzen diren emaitzak ikusita. Hezkuntzarekin ez ezik, ikerketarekin eta berrikuntzarekin ere lotura zuzena dauka..

India

Indiak azken hamarkada honetan bizi izan duen garapena, erakutsi izan duen berrikuntzarako gaitasun handitik etorri da, bereziki bioteknologia sektorean eta koste baxuko botika eta txerto produkzioaren erronkari aurre eginez, hau arrakasta handia da nazioarteko merkatu horretan sendo kokatzeko.

3. Zeharkako ardatza: Jasangarritasun konpromisoa

- Garapen jasangarriak garapen ekonomikoa, ekitate sozialaren garapena eta garapen ekologikoa uztartzen ditu. Herrialde guztiek Kyoton eguraldiaren aldaketaren aurka egiteko adostu ziren konpromisoak bete behar dituzte. Ingurumenaren eta gizartearen iraunkortasun irizpideak sartu behar dira plan ekonomikoetan eta azpiegitura planetan. Bizi garen lurraldea zaindu beharra daukagu.
- Hirigintza berria sustatu behar dugu. Hiri berrietan, izan ere, etxebizitza, lana eta aisia integratu behar dira. Hiri “ topatzen errazak” egin behar ditugu, pertsonen arteko topaketak erraztuko dituztenak eta zoruan, energian eta materialetan kontsumo txikiagoa izango dutenak.
- Garraio publikoak mugigarritasun eredia izan behar du, bide ezberdinak (trena, metroa, tranbia, autobusa eta abar) elkarrekin konektaturik dituen sare zabal batekin.
- Gizarte modernoek eraginkortasun energetikoa sustatu behar dute.
- Uraren azpiegiturak eta haien erabilera arrazionala bultzatzea da gure erronka.
- Nafarroak birziklatze tasak handitzen jarraitu behar du, hondakin guztiekin. Herrialde aurreratuenean buruan jarri behar dugu.

Praktika zuzenak nazioartean

Singapur, hirigintza antolamendua eta garraio publikoa

Singapur adibide bikaina da erakusteko zoruen erabilerrari buruzko epe luzeko plangintza egiteak hiriaren antolamendua eta mugigarritasuna ordenatzen laguntzen duela, eta hori guztia XXI. Mendeko hiri jasangarria sortzeko lagungarria dela. 700 kilometro koadro baizik ez duen uharte batean lau milioi pertsona pilotuta izanda ere, estatu-hiriaren plangintza egin duten adituek hiriaren zabaltzea kontrolatzea lortu dute, eta parkeak eta naturgune babestuetak zabaldu dituzte. Horretarako, errepideen eraikuntza mugatu da, garraio publikoko sareak eraiki dira eta zonifikazio legeak egin dira, jendeak esparru berean bizi eta lan egiteko modua izan dezan.

Garraio publikoaren erabilera da kutsadura atmosferiko txikiaren arrazoi nagusienetako bat. Singapurreko 10 biztanletik batek baino ez du ibilgailu pribatua, hura erosteko eta erabiltzeko ordaindu beharreko zergak handiak direlako: halaber, estatu hirian dagoen landaredia joriak-uraren eta lorategien hiria deitzen dute- nabarmen hobetzen ditu ingurunea eta hiriko paisaia.

Birziklatzea Alemanian

Alemania ere ingurumen politiken bultzatzaile handia da. 1991eko Ontzien Legea aitzindaria izan zen hondakinak gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea batera batzen zituen helburua lortzeko egin beharreko urratsetan. Lege horren eta ondoren etorri diren beste batzuen aplikazioaren emaitzak oso positiboak izan dira, eta Alemania munduko sailkapenen buruan agertzen da hondakinen zati handi bat birziklatzeko tasengatik.

4. Zeharkako ardatza: Berdintasuna

- Berdintasuna XXI. Mendeko erronkarik eta helbururik erakargarriena da. Zalantzarik gabe, askatasun balioaren adierazpen zuzenena da, banakako adierazpen gisa nahiz adierazpen kolektibo gisa. Printzipio unibertuala da, gizateriaren ehuneko berrogeita hamarrengan eragina duena. Inongo kolektibo, elkarte edo talde-handia nahiz txikia izan-ezin da zuzena izan berdintasunaren balioaren inguruan antolatutik ez
- Berdintasunaren ardatzak, gainera, jarduketa eta politika publikoak eskatzen ditu, eta banakako konpromisoa eta konpromiso pertsonala ere bai. Horietan bereziki, gizonen berdintasunaren eragile aktibo gisa duten balioaren kontzientzia hartu behar dute.
- Berdintasunaren balioaren barruan, ezin gainditu daitekeen oztopo bat badago, funtsezko eskubide oinarritzkoetan gainditzen duelako zalantzan ezin jar daitekeen gutxienekoa: generoko indarkeriaren orbana. Erantzukizun politiko instituzionalak biktimak babesteko eta beren erantzuna eta norbanakoaren garapena sustatzeko gizarte sarea integrala eta osokoa izan behar litzateke.
- Berdintasuna nahitaez bete beharreko nazioarteko printzipio juridikoa da. Nafarroan agindu hau azaroaren emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko 28ko 33/2002 Foru Legeak arautzen du. Lege hau ez du Nafarroako Gobernuak benetan aplikatu edo garatu, edukietan eskasa da eta sakoneko erreforma behar du.
- Sexu aniztasunarekiko errespetua oinarritzko zutabea da gizarte askeagoa eta zuzenagoa lortzeko, eta hartan pertsona guztiek eskubide berak edukitzeko.
- Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen eskubideen legezko aitortzea eta aitortze soziala, eta eskubide horien normalizazioa, gizarte zuzen eta berdintzailea izateko ezinbesteko baldintza baitira.

Nazioarteko praktika zuzenak

Ipar Europako Herrialdeak

Ipar Europako Herrialdeak aitzindariak izan dira berdintasun politiketan. Berdintasunari buruzko legeak 70.eko hamarkadatik hasi ziren ezartzen, eta eragin handia izan dute emakumeen eta gizonen egoera hobetzeko, lan arloan nahiz arlo sozialean.

Genero-ikuspegia politika publiko guztietan txertatzeak berdintasunaren aldeko politiken sistematizazioa eta ainguratzea ekarri ditu.

5. Zeharkako ardatza: Lankidetzaren eta adostasun soziala

- Herritarren baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalen hobetzeak ondorengoaren marka gero eta nabarmenagoa dauka: gizarte bakoitzean esperientziak trukatzeko eta lankidetzaren eta adostasun soziala bilatzeko sareetan sartzeko dagoen gaitasuna. Helburuak gainditzeko ideiak elkarri ematea, esperientziak trukatzeko eta batera lan egitea dira lankidetzaren oinarriak.
- Alderantziz, norbanakoaren eta taldearen isolamenduak geldiaraztea eta etorkizuneko aukerak galtzea ekarriko du, mugikortasuna gero eta eskuragarriago dagoen aro honetan.
- Halaber, lankidetzaren aritzeaz eta ikuspegiak elkarrekin trukatzeko gainera, adostasun sozialak honakoa ekarriko dio hura lantzen duen gizarteari: adostutako hobekuntzak eta aldaketa-prozesuak bilatzeko oinarri sendoak edukitzea.
- Gizarte osoaren eginkizuna den gaia bada ere, botere publikoek beren gain hartu behar dute adostasuna sustatzeko eta dinamizatzeko erantzukizuna.
- Gizarte sozialak ez dira Internetek eta teknologia berriek sorturiko fenomenoak, baina egia da gaur egun horiek bideratzen dutela sareetan elkarrekin errazago jardutea. Gainera, sare batek efizientzia erabil ditzakeen konexioen kopurua handiagoa izatea bideratzeaz gain, sareko kideen arteko elkartrukea kalitate handiagokoa da. Hori guztia, jakina, denboran eta espazioan inongo oztoporik topatu gabe. Honakoak dira gizarte sareak sortzeko espazio berri horien ezaugarri nagusiak: behetik gora eraikitak daude eta pertsona da erdigunea; gainera, termino espazialean deszentralizatuta daude eta beren burua antolatzen dute.

Nazioarteko praktika zuzenak

Adostasunaren tradizioa Ipar Europako eremuan

Ipar Europako eremuak garapen teknologikoaren eta enpresen ekimenaren aldeko apustua egiten du, baina ongizatearen estatua hobetzera bideraturiko estatu politikekin.

Eredu honen oinarria gobernuen, sindikatuen, enpresa buruen eta gizarte zibilaren arteko adostasun sozial handia du oinarri. Horixe da adostasun sozial handiaren ideia. Horren ikurra honako ideia da: pobrezia duintasunaren aurkako erasoak da, eta gizarte batean errotoik kendu beharreko lehenbiziko gauza da.

Ipar Europako herrialdeek ulertu dute adostasun soziala funtsezkoa dela mundu moderno batean, halako moduan non eragile sozialek askotan hitzarmenak lortzen dituzten gizarte osoari onurarik ekartzen dioten funtsezko gaietan. Testuinguru horretan, helburu hori lortzeko eskura dauden tresna ugari erabili dituzte; esate baterako, itun sozialak (oro har gobernuaren, sindikatuen eta enpresa elkarten arteko hiru aldetako hitunak, interes handiko gairen batean lortutakoak), parte hartze irekia (halako kultura bat, non itunetan gai ugari hartzen baitira, gizarte osoaren parte hartzearekin; etengabe berriztatzen joaten dira, uste baita haien eraginak positiboak direla gizarte osorako) eta kontseilu ekonomiko eta sozialak (oro har, lan harremanen erregulazioan zentratuak, nahiz eta askotan beste arlo batzuk ere landu)

1- Lana, norberaren errealizaziorako eta enpresa lehiakorrei begira

Gakoak

- ◆ Lana da gizarteratzeko faktore nagusia.
- ◆ Nazioarteko joerak direla eta, biztanleria aktibo kualifikatuagoa, malguagoa eta mugikorragoa behar dugu. Langileek beren gain hartu behar dituzte malgutasunaren, mugigarritasunaren eta aldaketei egokitzearen premia.
- ◆ Nafarroako enpresek ekonomia globalean arrakastaz eragiteko behar den lehiakortasuna bilatu behar dute, baina beren estrategien barrenean jarduten duten gizartearekiko konpromisoa hartu behar dute beren gain.
- ◆ Enpresek honako behar honen inguruan antolatu behar dute beren burua: pertsonak beren lanean errealizatzea eta lanean norberaren bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. Enpresek etenik gabeko prestakuntza sustatu behar dute, epe ertain eta luzean eduki beharreko lehiakortasuna bermatzeko.
- ◆ Lan harremanetarako eredu honako hauetan oinarrituko da: gizarte eragileen arteko elkarrikeria eta hitzarmen soziala
- ◆ Aukera berdintasuna izan behar da ereduaren oinarria, eta oso bereziki, emakumeen eta gizonen lan aukerak eta baldintzak berdintzea. Ezagutzak eta talentuak ezberdintasunak markatzen dituzten mundu batean, erakundeek ezin dituzte gizon eta emakumeen gaitasunak alferrik galdu.
- ◆ Egiatzatzen dugu lan merkatu bikoitza dagoela, lanpostu egonkorra duten pertsona profesional eta kualifikatuen ondoan, kualifikazio maila baxuagoa eta lanpostu prekarioak dituzten pertsonak daude.

Nazioarteko erreferentziak

Danimarkako “malgutasun-segurtasuna”

Orain arte sekula erabili ez den konbinaketa da: lan merkatuaren malgutasun handia, langilearen babesa eta enplegu politika aktibo eraginkorra. Lan merkatuaren malgutasuna honakoan datza: kontratazioak eta kaleratzeak erraztasun eta arintasun handiz gertatzen dira eta ez dute enpresarentzako kosturik. Horrek bidea ematen die enpresei unean uneko egoera ekonomikoaren arabera lan esku beharrianetara egokitzeko.

Danimarkako “malgutasun-segurtasuna” eredu honekin lortzen da lan merkatuak berehala eskuratzea desregulazioaren abantaila handien onura; aldi berean, langileari segurtasuna ematen dio, zeren eta babes ekonomiko handia baitu langabezi kasuetan, eta bestealde, berriz kualifikatzeko aukera bikainak ere badauzka (etengabeko prestakuntza EB-27 eremuko baina hiru aldiz handiagoa da) eraginkortasun handiko zerbitzuen bidez .

Gizarte kontzertazio eredu oinarritzen den eredu, enpresa eta sindikatuen arteko lankidetzaren maila handia ematen delarik, Danimarkako lan merkatuaren indikadoreak onenen lekuan kokatzen ditu.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

1. Lan egonkorra bultzatzea eta biziraupenerako soldatetik gorakoa. Enpresa eta langileen artean ekitaldirako markatutako arrazoizko helburuetatik gorako mozkinak banatzeko politikak ezartzea.
2. Langabezian dauden pertsonentzako egitasmo indibidualizatua egitea prestakuntza arloan (etorkizuneko sektorerako egokitzea), lan arloan (aldi zehatz baterako egitasmo edo jarduera zehatz batean) prestakuntza+lana batuketan (aldi zehatz baterako) . Honek gure lan zerbitzuen aldaketa ekarriko du. Langabezi egoeran diru prestazioa jasotzeko eskubidea onartzea eta oinarrizko beharrianak era duinean bete daitezzen. Horren truke, pertsona bakoitzak prestakuntza egitasmoa edo emandako lana bete beharko du. Ezin izango du bertan behera utzi gutxieneko 6 hilabeteko iraupeneko lana topatzen ez badu. Gaitasunak, konpetentziak eta gabeziak islatzeko norberaren enpleabilitate diagnosiak bultzatzea eta zabaltzea eta balore pertsonal eta lan arloko baloretan oinarritutako prestakuntza garatzea.
3. Lanpostuaren segurtasun kontzeptua defendatzea, ez lanpostu zehatz baten segurtasuna. Honek esan nahi du etorkizuneko sektoreetan langile kualifikatuen aldeko apustua egitea.
4. Enpresek malgutasunerako duten beharrianak (sartzeko eta irteteko ordutegiak, lan egunak, atsedeen egunak, lanaldiaren iraupena) norbanakoaren beharrianekin uztartzea.
5. Behin betiko kontratua eta aldi baterako kontratuaren arteko dualitatea gainditzeko formulak aztertzea, besteak beste lan kontratu bakarra sortzea.
6. Lanaldi partzialaren erregimen juridikoa malguagotzea, jarduera tasa hobetzeko xedez.
7. Enpresa bakoitzeko zuzendaritza eta langileen arteko akordioak erdiesteko autonomia eta gaitasunaren alde egitea.
8. Nagusiki, praktikoa den prestakuntza garatzea, talde txikitan, enpresetan praktikak eginez (oraingo aukerak zabalduta) edo tarteko enpresa egituretan edo egitasmotan sartuta, hau da, Enplegurako Zentro bereziak, Gizarteratze Enpresak, Babestutako Lanpostu Soziala, Lagundutako Lana eta abar.
9. Aukera berdintasuna bermatzea prestakuntza praktikorako sarbidean.
10. Lan munduan sartzeko prozesuan laguntzako talde sozio-laboralak bultzatzea, pertsonari osotasunean laguntasuna emateko eta bizitza pertsonala eta profesionala uztartzea posible egiteko.
11. Administrazio Publikoarekiko kontratuetan gizarte baldintzak sartzeko eta horrekin batera enpresa pribatuan, kontratu mota guztietan eta ugazaba eta sindikatuen arteko lankidetzan
12. Bakoitzak bere konturako lanpostua egiteko laguntasun ekonomiko,teknikoak eta aholkularitza laguntasunak garatzea.

2- Etengabeko prestakuntza sistema

Gakoak

- ◆ Hezkuntza leihakortasunerako elementu estrategikoa da. Prestakuntza duten pertsonak baditugu, baina kosta egiten zaigu ezagupenak emaitza bilakatzea.
- ◆ Nazioarteko joerak direla eta, biztanleria aktibo kualifikatuagoa behar dugu, eleaniztuna, analisirako prestatua eta ezagupen zehatz era berarizkoa duena.
- ◆ Haurtzarotik honako balioak sustatu behar dira, besteak beste: parte hartzea, sormena, arriskuak onartzea, jakinmina, lankidetzak, elkartasuna eta ekimenak abiarazteko zaletasuna.
- ◆ Prestakuntza ematen duten pertsonen gizaratearen eta administrazioaren aitortzea eta laguntza behar dute, duda-mudarik gabe eta ongi ordaindutako enplegua eduki behar dute. Lanpostu horietara iristeko, gaitasun maila handiagoa eskatu behar zaie, bai eta erakutsitako kualifikazioa ere. Ezagupenetan gaurkotuta daudela erakusteko azterketak egingo zaizkie aldizka. Halaber, irakasleei eta gizarateari ere adierazi behar zaio hezkuntza sistemaren aldaketa, pizgarri sistemaren aldaketarekin batera eman beharko dela (ordainketa sistema, lanpostuaren segurtasuna). Eztabaida hau ezin dugu ekidin. Adostasun maila handia behar da, gauzatzeko legezko aldaketak behar izango direlako.
- ◆ Etengabeko ikasketa enpresetan sustatu beharra dago eta bere lehiakortasun bermea izan beharko d epe ertain eta luzera.
- ◆ Unibertsitateak gizaratearengandik eta enpresarengandik isolatuta dagoen toki bat izateari utzi beharko dio, eta ikasi behar du ezagutza aplikatzen. Sektorik pribatuarekin eta administrazioarekin elkartasunak sortu behar ditu. Horien guztien arteko koordinazioak bidea emango du premiak identifikatzeko eta erantzun gaurkotua, eraginkorra eta ad hoc emateko.
- ◆ Karrera tekniko eta zientifikoen ikaskuntza sustatu behar da eta lortu behar da, nafarroa izan dadin talentuari eusten dion lurraldea bitartekaritza azpiegiturak ezartzearen bidez; halaber, enpresetan doktoratutako ikertzaileak sartu beharko dira eta nazioarteko sareetan integratu beharko dira.
- ◆ Laueletasuna eta bikaintasuna IKT eta internet erabiltzeko eta aprobeitxamendua ateratzeko orduan

Nazioarteko erreferentziak

Finlandiako Hezkuntza eredua

Hezkuntzaren arloan Finlandia nazioarteko kalitate-sailkapenaren buruan dago. Eskola uzten dutenak % 0,5 baino ez dira eta ikasleen %2 baino gutxiagok errepikatzen dute. PISA txostenaren arabera, ikasle finlandiarrak dira heldu aroari aurre egiteko prestakuntzarik onena dutenak. Bi hizkuntza ofizialak (finlandiera eta suediera) ezagutzeaz gain, beste hezkuntza batzuen (batez ere ingeles hizkuntza) ezagupen maila altua dute.

Hainbat dira eredu finlandiarraren arrakastaren gakoak. Funtsezkoa den bat da irakasleek gizaratean duten izen ona eta balorazioa. Irakasle lanbidea da bigarren hezkuntzatik ateratzen direnean ikasleek hautatzen duten lehenbiziko jardura. Hainbeste dira irakasle lanetan jardun nahi duten pertsonak, non agintari finlandiarrek onenak aukeratzeko luxua izaten baitute. Finlandian irakasle lanpostua da gizaratean ondoen baloratuta dagoena eta oso ondo ordainduta dago. Irakasleek aldizka beren gaitasunak erakutsi behar dituzten ebaluazioaren bitartez

Irakurmena, idazmena eta matematikako trebetasunen erabilera da ikasgelako lehentasuna. Gaitasunetan oinarriturik ikastea da bilatzen dena, edukietan oinarrituta ikastea baino gehiago, eta irakasle bakoitzak autonomia-tarte zabala du bere lanean jarduteko.

Talde txikiek aukera ematen dute ikasleen premiak ezagutzeko eta gaitasun pertsonalak ahal den modurik onenean garatzeko.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA: Derrigorrezkoa baino maila handiagoa duen 15 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren portzentajea handitzea, herrialde aurreratuenen parean jartzeko.

1. Goi lanbide heziketan dagoen hezkuntza eskaintza handitzea eta unibertsitateko hezkuntza eskaintza egokitzea etorkizunerako sektore estrategikoak egitearen bidez. Goi lanbide heziketari dagokionez, oraingo zentroak aztertzea eta ematen duten eskaintza identifikatzea, zer ken daitekeen eta zer nolako prestakuntza programak egin daitezkeen (eta zeintzuk diren kentzeko modukoak); horrez gain, zentro berriak egitea proposatzea (beren kokapenaren inguruko hausnarketa) egin gabe dagoen eskaintzarekin batera. Unibertsitatei dagokienez, oraingo titulazioak aztertzea eta ikustea zeintzuk diren etorkizunerako beharrezkoak erantzuneko erantzunak ez dietenak eta zeintzuk diren sustatu behar direnak Nafarroaren etorkizuneko garapenari laguntzeko.
2. Gizartea sentsibilizatzea (gazteak, gurasoak, legezko tutoreak, irakasleak) gizartearentzat beharrezkoa eta interesatutako pertsonentzako ezinbestekoa denaren inguruan (bizitza kalitatea- ordainketa mailak ikuspuntutik ikusita). Gazteria ez dadila geratu derrigorrezko hezkuntzan eta sektore egokietara begira ezarritako lanbide heziketa da behar den bidea, unibertsitatekoak besteko prestigioa duena.

HELBURUA: Lanean ari den biztanleria ratioak europar mailetara hobetzea.

3. Gure enpresariak sentsibilizatzea eta bereziki txikiak, kualifikatutako zein kualifikatu gabeko etengabeko prestakuntza garrantzizkoa delakoan.
4. Bereziki, etengabeko prestakuntzaren markoan eragitea, eskarizkoak diren ekimenetan eragitea, berauen bidez enpresek beren langileentzako prestakuntza ekimen bereziak eskatzen dituztela.
5. Administrazioak antolatutako prestakuntza ekimenak hiruko fundazioak zehazten dituen politika aldatzea. Enpresak dira beren langileek dituzten prestakuntza beharrezkoak ezagutzen dituztenak. Sindikatu batzuen oniritzia bilatzen duten eta etengabeko prestakuntzarako fondoak kudeatzea sindikatu hauen eskuetan ezartzen duten sistemetatik aldentu beharra dugu.

HELBURUA: Oraingo derrigorrezko hezkuntza sistemaren lehentasunak aldatzea.

6. Laueletasuna (Gaztelera, euskara, ingelesa eta frantsesa) helburu gisa ezartzea, ikasgaiak lau hizkuntzetan eman baina batez ere lau hizkuntza hauek menperatzea lortzeko xedez. Apustua argia izan behar da eta hizkuntzak ezin dira garrantzi gabeko gaitzat jo.
7. Baloreetan hezteak, ikasleria, gurasoak, tutoreak eta gizarteak irekitasuna, tolerantzia, izpiritu kritikoa, sormena, berrikuntza, ekimena, esfortzua, diziplina eta ingurumen printzipio eta errespetuaren garrantzia uler dezaten
8. Derrigorrezko heziketa amaitzean, ikasleriak besteak beste izan ditzala honako gaitasunak: publiko aurrean hitz egitea, txostenak idaztea, taldean lan egitea, bilera bat koordinatzea, denbora antolatzea.
9. Etorrin taldeetako seme alabekiko sentiberatasun berezia adieraztea, hezkuntza sisteman arrakastaz sartu daitezen.

HELBURUA: Hezkuntza sistema ez derrigorrezkoaren lehentasunak aldatzea.

10. Ingeles eta frantses hizkuntzen ezagutza bultzatzea (maila orokorrean eta berezian, aukeratutako prestakuntza esparruari egokitua) lehentasun goren eta bazter ezina izan behar da.
11. Derrigorrezko heziketa aldiarriskua onartzeko eta ekimenerako bokazioa sustatzea.
12. Ikasleriari baliabideak ematea eta inposatzea prestakuntza prozesuaren zati bat atzerrian egin dezaten sei hileko gutxieneko epean.

HELBURUA: Irakasleria hobetzea.

13. Ikasleriari oraingoa baino soldata handiagoa ematea, baina ez bermatua. Ordainsarian zati aldakorra egon beharko da helburu zehatz neurgarri eta errealisten arabera eta ikasleriaren gaitasun, balore eta trebeziaren arabera, eta zati batean ere etengabeko prestakuntzari lotua.
14. Irakasleria etengabe prestatzeko sistemak ezartzea, edukietan, baloreetan eta diagnosian azaldutako gaitasunen arabera. Prestakuntza hau derrigorrezkoa izan beharko da.
15. Oraingo irakasleei prestakuntza ematea (adin zehatz batetik beherakoei) etorkizunean eskolak ingeles hizkuntzan emateko gai izan daitezten.
16. Irakasle promozio berriei prestakuntza ematea, hasierako prestakuntza karrera amaitzean eskolak ingeles hizkuntzan emateko gai izan daitezten.
17. Irakasleriaren eskuetan jartzea, bere ikasleriaren aurrerapenaren ardura; ikasle batzuei aparteko denbora eman behar badi, onartu beharra du.
18. Irakasleria prestatzea adin goiztiarretik talentua identifikatzeko gai izan dadin, kontuan izanik talentu mota asko dagoela eta denak direla baliagarriak; gaitasun eta gogoen arabera ikasleria prestatzeko gaitasuna izan dezala.
19. Irakasleriaren jarraipena helburu jakin zenbaiten lorpenari lotua egonen da. Urteko ebaluazioetan helburuen gutxieneko betepen maila lortzeko gai izan behar da.
20. Irakasleriari gizarte mailako prestigioa ematea.

3- Industria Sektorearen egiteko garrantzitsua

Gakoak

- ◆ Nafarroako ekonomiaren berezitasuna da industria sektore lehiakorra izatea, garrantzi handiagoa du bestelako ekonomia aurreratuekin alderatuta eta horrekin batera, pisu txikiagoa du zerbitzuen alorrean, bereziki azpimarragarriak dira automozio sektorea eta energia berriztagarrien azken urteotako garapena.
- ◆ Oinarritzeko sektoreen artean ere eraikitza dago eta honek dauka lanpostu bolumen handia. Enpresa historikoek era gogorrean sufritu dituzte etxegintza krisialdiaren ondorioak eta seguruenik ez dute bizirik iraungo. Horren eraginez sektorearen tamaina ere ekonomia aurreratuenen mailara egokituko da.
- ◆ Sektore estrategiko batzuk badaude, besteak beste energia berriztagarriak eta elikagai prozesatuak; hauetan Nafarroak abantailak baditu eta hauek sustatu behar dira inbertsio etengabe eta indartsuaren bidez.
- ◆ Etorbizuna duten sektore diren aldetik, bioteknologia medikuak, medikuntza aparailuek, mekatronikak eta nanozientziak hazteko joera orokorrek jarraitzen dituzte eta Nafarroan duten presentziak gora egin du, eta hau sendotu beharra dago erakundeek egin behar duten apustu sendoaren bidez.
- ◆ Nafarroako garapen ekonomikorako bidean industria sektoreak oraingo lehiakortasuna mantentzeko dituen erronkei egin behar zaie aurre :
 - Deskokatzeko arrisku etengabea, eta horrekin batera kontuan hartu behar da Nafarroako enpresen gehiengoak dira atzerriko enpresen azpikoak eta ez dute globalizatutako sektorearen markoan atzerriko akziodunen erabakiei lotutako prozesuan ezta teknologian parte hartzen . Lantegiaren produktibotasunean eta efizientzian etengabe hobetzeko xedeaz harago, epe luzearako jarraipena faktore globalen mende dago (produktutako ereduaren arrakasta komertziala, lantegi nagusiaren negozioaren martxa) eta hauek ez dira Nafarroako zentroetan kontrolatzen.
 - Nafarroako enpresa sektorea oso sakabanatuta dago, honek mugatu egiten dio lehiakor izateko eta nazioartekotzeko gaitasuna .
 - Sektore industrial ezberdinetan hasitako klusterizazio prozesuak indarra hartu behar du, bereziki etorkizuna duten sektoreetan, hau da, bioteknologia sektorean, nanozientzietan eta natura-landa turismo sektorean.
 - Tartean dauden eragileen arteko lankidetzak loturak sendotzen jarraitu beharra dago (enpresak beren artean, enpresa eta teknologi zentroen, unibertsitate eta administrazioaren artean) masa kritika zabalagoa lortzeko eta ondoko erkidegoekin garapen eta lankidetzak aukera berriak aztertuz.
 - Sektore ezberdinetan oro har gabeziak daude kudeatze mailan eta enpresaren kontrolari dagokionez .
- ◆ Dimentsio handiko industria sektore batzuk (produktu metalikoak, tresneria, ekipo mekanikoak, arte grafikoak) nahiko ondo defendatu dira azken urteotako egoera ekonomiko onagatik, baina automozio sektorearen profil teknologiko baxua aurkezten dute zati batean behintzat.

Nazioarteko erreferentziak

Alemania

Sektore ekonomiko garrantzitsuena industria da. Alemaniako industria enpresa guztien %98. 500 langile edo gutxiagoko Enpresa Txiki eta Ertainak dira eta industria negozioaren % 33a produzitzen dute.

Alemania munduko ibilgailu produzitzaileen hirugarren produktorea da eta automobil guztien %70 dira esportatzaileak. Era berean gertatzen da makina eta ekipamenduen fabrikazioarekin, hori da Alemaniako industria sektoreko lantegi gehienek jardueratuta eta hortaz mundu mailan garrantzi handiko jardueratuta da.

Alemania lehengoko postuetan dago kimika sektorean. Sektore berritzaileen artean da eta bataz bestekoa baino hazkunde tasa handiagoa du eta teknologia ere badauka energia berriztagarriak aprobetxatzeko eta informazio teknologia eta bioteknologiak baliatzen.

Enpresa berritzaileak ditu eta jardueratuta handia du nazioarte mailan, lan esku espezializatu eta motibatua, nazioarte mailan ezaguna den hezkuntza sistema, azpiegitura aparta eta ikerkuntza eta garapen arloan toki esanguratsua duelako.

Alemaniako eredu ekonomikoa "merkatuko ekonomia sozialarena" da eta eredu horretan handitu eta ezberdindu egiten da ondasunen eskaintza, berrikuntza sustatzen da, soldatak eta mozkinak banatu egiten dira norbanakoaren errendimenduen arabera.

Alemaniako lehiakortasun altua ikusi egiten da esportazio sektorean duen nagusitasunean (AEBren ostean) eta nazioarteko enpresek egiten dituzten zuzeneko inbertsio lantuetan.

Nafarroako EAJ-PNVren Proposamenak

HELBURUA: Atzerriko kapitala duten industria enpresetarako plan indibidualizatua egitea.

1. Mundu mailako merkatuan bere kokapen lehiakorra identifikatzea.
2. Nafarroako azpi-enpresaren kokapena ebaluatzea eta enpresa nagusiak Nafarroarekiko duen konpromisoa aztertzea.
3. Nafarroan egindako inbertsioen bizitza eta berreskuratze epea aztertzea.
4. Ondo kokatuta dauden enpresentzat inbertsioaren bolumena eta kalitatea handitzeko neurriak ezartzea.
5. Epe luzeran enpresa esanguratsuak Nafarroan egonkortzea bermatzea eta ekimen berezia egitea bertako kapitalaren alde. Atzerritarra ez den kapitala sartze honek balio erantsi handiagoko prozesuak erraztu ahal ditu Nafarroan.
6. Antzeko jarduera planak egitea atzerriko kapitala duten eta ondo kokatuta dauden Nafarroako enpresetan martxan jartzeko modukoak.

HELBURUA : Lehiakortasun plana ezartzea Nafarroako enpresentzat.

7. Tresnak ezartzea etorkizuneko industria sektoreen klusterizazioan aurrera egiteko, masa kritikoa eta sareen integrazioa sustatuz.
8. Enpresa zehatzen aldeko apustua egitea, etorkizuneko sektore estrategikoetan ez badaude ere, erakutsi egin duten egitasmo sendoa dutela dimentsio egoki batean ezarrita eta berrikuntza eta internazionalizatzean, bizirauteko bokazioarekin eta motore izateko gaitasunarekin.
9. Enpresa kudeatze eta kontrolaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza eta profesionalizazioa hobetzea, bereziki nekazal-elikadura sektorean.
10. Pizgarri sistema abian jartzea enpresek aldiro (izaera orokorrekoak eta 3 urterik behin) negozioen inguruko hausnarketa estrategiko prozesuak egin ditzaten eta oraingo egoeraren gaineko diagnostik abiaturak eta negozio lerro , produktu edo merkatu bakoitzaren inguruko analisisa eginda (merkatu, salmenta eta kosteen berezitasunarkin) etorkizuneko prespektibak baloratuko dira helburuak markatuko dira eta ondorengo finantza planifikazioak egingo dira.

HELBURUA : Nafarroako enpresen finantzaketa hobetzeko neurriak babestea.

11. Indibidualizatutako egitasmoa egitea internazionalizatu diren eta internazionalizatzeko bidean dauden enpresekin, finantzaketa lortzeko dituzten zailtasunak ezagutzeko eta egitasmoaren garrantziaren arabera, konponbideak bultzatzeko.
12. Aberastasuna, lana, motore izateko gaitasuna errentagarritasun ekonomiko zorrotzeko irizpideen aurrean (exijitutako ratioak behertzea) arrisku publikoko sozietateen barruko erabakietan, adibidez Sodena.
13. Pizgarri sistema garatzea (gardentasunez) Nafarroako ekonomiarako egitasmo estrategikoekin konpromisoa hartuko duen kapital pribatura begira. Estrategiko ala ez estrategiko izendatzeko irizpidea arestian aipatutako irizpide politikoetan oinarritu behar da.

4- Zerbitzu berriak, sorkuntza eta ekimena

Gakoak

- ◆ Ikusentzunezkoen industria, zahartze aktiboa, hondakinen kudeatzea, segurtasuna, turismoa eta bereziki natura eta landa turismoa, enpresa eta hezkuntza zerbitzuen garapena eta ezagutza berriak sortzea, tradizionalagoak diren industria sektoreen osagarri gisa . Honek garapenerako aukera berriak ematen ditu.
- ◆ Lanbide berrien igoerak hiri eta erregioen arteko lehia suposatzen du aberastasuna eta joerak markatzen dituen gizarte klasea erakartzeko. Goi klase kultural eta ekonomiko honek ezarriko du lanaren etorkizuna, barnean hartuko dituelarik langile independenteak, enpesei era egonkorrean lotutako freelanceak eta ohiko langileak. Mugikortasun fisiko eta psikikoa ekarriko du.
- ◆ Esparru irekiak dira eta pertsona kualifikatuak eta industria berritzailea erakartzen dutenak, zeren eta unibertsitate-zentro eta ikerketa zentro garrantzitsuak baitituzte.
- ◆ Ezagutzaren ekonomia globalean erantzukizuna, ikaskuntza eta izpiritu kritikoa saritzen dira. Garrantzia duena berritzailea izateko eta sortzeko gai izatea da. Klase sortzaile berria lan-munduko nomada berriak dira, “mobile professionals” edo “just in time” langileak izenarekin ezagutzen direnak. Izan ere, proiektu zehatzetan esku hartzeko kontratatzen dira.
- ◆ Denbora librearen balorizazioa eta osasunagatiko kezka moduko makro-joerek merkatu berriak sortaraziko dituzte eta jarduera ekonomiko berrietarako aukeratarako eskariak ezarriko dituzte. Hiritargoa eguraldi atsegina, aberastasun naturaleko, paisai edo giro atsegineko tokietara abiatuko da.
- ◆ Hiri berrien urbanizazioa eta ugaltze progresiboak aukerak sortuko ditu hirietako eredu jasangarriak bilatzeko eta behar diren zerbitzuak emateko.
- ◆ Administrazio Publikoak osotasunez eta era eraginkorrean erantzun behar die zerbitzu publikoetako erabiltzaileen beharrezko aldakorrei, Nafarroako Osasun Sistemaren sendotzearekin konpromisoa hartuta, nagusiki publikoa, doakoa, unibertsala, solidarioa eta eraginkorra delarik -baliabideak optimizatuta- eta kalitatezkoak izanik, Nafarroako hirietako osasun zerbitzua jasotzeko eskubidea dutelarik osasun sistemaren jasangarritasun ekonomikoa gordeta.
- ◆ Etorkizuneko osasun publikoaren lehentasun estrategikoa osasun sistemen gaitasuna berbidatzea da, gizarteko sektore ezberdinen sormena eta energia aprobetxatuta eta garraioaz, turismoaz eta merkataritzaz baliatuta.

Nazioarteko erreferentziak

London Londongo ekonomia sortzailea urteko % 5 hazten joan da. Hiriburua britainiarrak 200 herrialdeetatik etorritako hiritarrak biltzen ditu. Sektore sortzaileak (arkitektura, publizitatea, eszena-arteak, argitaletxeak) enplegu-sailkapenetan hirugarren tokia hartzen du eta 525.000 langile bateratzen ditu. London hiriak aktibo handiak ditu, esate baterako, lan indar eleanitza, mundu mailako komunikazio kultural eta sortzailea ahalbidetzen diona.

Londongo alkateak 2004 urtean “Creative London” abiarazi zuen, Londongo Garapen Agentziak lideraturiko ekimena hain zuzen. Haren helburua zen hiriaren izen handiaz baliatzea mundu mailan sormenaren lidergoaren erdigunea izateko.

Hamburgo Hamburgok bere burua metropoli intelektual gisa definitzen du. Argitaratzaileak, diseinatzaileak, kazetariak, musikaren munduko enpresaburuak eta abokatuak bizi dira bertan. Alemaniako hiriburua mediatikoa da, eta komunikazioaren arloko 12.000 enpresa biltzen ditu; horien gain, telekomunikazioaren arloko 5000 enpresa daude bertan. Horietan guztietan, 13.000 pertsonak egiten dute lan (freelance profesionalak alde batera utzita). Hamburgon 9.259 publizitate agentzia daude eta haietan 17.000 sortzailek egiten dute lan. Klase sozial berri hori hiriaren luxua da, eta hiriko politikariek ahalegin handiak egiten dituzte kulturaren eta aisiaren arloko azpiegituretan inbertsioak egiteko.

Malasya : “Multimedia-korridore handiaren” garapena eta “Ciberjaya” hiriaren diseinua Multimedia-korridore handiaren garapena mundu osoan herrialde bat Informazioaren Aroan azkarrago sartzeko garatu den ekimen garrantzitsuenetako bat da. Eremu teknologiko bat da, korridore berde batean kokatua. Korridoreak 15 kilometro ditu zabalera eta 50 kilometro luzera. Bertan, besteak beste, etxe adimendunen, hiri adimendunen, erdikedo adimendunen eta partainer-esparru adimendunen inguru bat gratu nahi da. Proiektu horren atal bat Ciberjaya hiria da, Kuala Lumpurretik 40 kilometrora dagoena.

Dublingo Hub Digitala Gune edo nodo digitalaren helburuetako bat da hirian erabiltzen ez den zati bat -lantegi zaharren eremu bat- berreskuratzea, Etorkizuneko egitasmo bat da, informazioaren teknologia berriak garatzen dituzten nazioarteko enpresa-eremu bat ezarri nahi duena. Ekimen publikoa da, berrikuntza, sormena, ikerketa eta ikaskuntza sustatzeko bikaintasun gune bat sortzeko dena. Gune horren helburua da komunikazio digitalarekin lotutako enpresak garatzea. Inkubagailuaren eta barneko sarearen kontzeptua, berriz, hiriaren auzo oso batera eraman nahi dira.

Nafarroako EAj-PNVren proposamenak

HELBURUA: Talentua bertan geratzeko inguru egokia sortzea.

1. Eskaintza kultural zabal eta anitzagoa garatzea eta denboran mantentzea.
2. Mugakideak diren erkidegoekin kirol, kultura eta aisialdirako bestelako eskaintza sortzea ahalbidetuko duen aliantza estrategikoa garatzea eta hau erakargarria, anitza eta eskuragarria izan dadin Nafarroan bizi diren profesionalentzat. Euskal hondartzak, Landak, Donostiako zinemaldia, Guggenheim, mendiak edo errioxako ardotegiak ere egon daitezten Nafarroako biztanleentzako aisialdi eskaintzaren barruan..
3. Nafarroa eta Iruñearen irudia europar erregio/hiri tolerante irekiarena izan dadin eta bakoitzaren izaera sexuala edo erlijioa ondo baloratua izan dadin, munduarekin konpromisoa duen gizartea den aldetik.
4. Iruñean erreferentziatzeko elementu baten aldeko apustua egitea, adibidez , milurteko berrirako helburuak, garatutako, garapen bidean eta azpi garatutako herrialdeen arteko desorekak eta azpi garapenaren kudeaketa aztertzeko ikasketa zentroa egitea.
5. Aireportuan eginiko inbertsio berriak errentagarri egitea eta Nafarroan bizi diren pertsonak erabil dezatela beren sorterrietara edo Europako hiri nagusienetara bidaiatzeko modu bezala
6. Hezkuntza sistema ireki eta prestigioduna sendotzea, kualifikatutako giza baliabideek hezkuntza sistema ona nahi dutelako

HELBURUA: Balore erantsia duten zerbitzuen garapenaren aldeko apustua egitea .

7. Enpresei zuzendutako balio erantsiko zerbitzuak bultzatzea, erakunde publiko edo ia publikoak diren erakundeek lehiakortasun desleiala eragin gabe.
8. Hezkuntza eta ezagutzarekin erlazionatutako enpresa jarduerak bultzatzea .
9. Komunikaziorako teknologia berrien erabilpena gizartearen maila guztietan sutatzea eta erlazionatutako enpresa jarduera guztiei bultzada ematea.
10. Turismo sektorea bultzatzea, bereziki natura eta landa turismoa.

HELBURUA: enpresa bokazioak sustatzea.

11. Nafarroako garapen ekonomikoarekiko eta enpleguarekiko konpromisoa duten enpresariei gizarte onarpen ikusgarriagoa bultzatzea.
12. Jardueraren klusterizazio prozesua bultzatzea, tartean dauden eragile guztien arteko harreman egonkorrak garatze eta sendotzearen bidez .
13. Familia arteko enpresei arreta berezia eskaintzea, ondorengoei begirako planifikazio egitasmoak bultzatuta, Nafarroan aberastasuna eta enplegua sortzen duten enpresa egitasmoen jarraipena bermatze aldera.
14. Behar besteko azpiegiturak sortzea eta Nafarroako gizartean informazioa zabaltzea Nafarroako ekintzaile guztiek beren negozio ideien azterketa eta garapena bideratzen jakin dezaten.

5- Berrikuntzarako azpiegitura eta zerbitzuak

Gakoak

- ◆ Punta-puntako azpiegiturak izatea Nafarroaren garapen ekonomikorako gakoetako bat da.
- ◆ Azpiegitura fisiko handiak eginda daude edo eraikitzeko prozesuan daude.
- ◆ Ez ditugu ahaztu behar gure garapenerako funtsezkoak izan diren beste azpiegitura fisiko batzuk: Parke Teknologikoak, unibertsitateak, kultur azpiegitura handiak,...)
- ◆ Azpiegitura fisiko horiekin batera, azpiegitura birtualak behar ditugu; hau da, gure garapen ekonomikoa laguntzeko estrategiak; bereziki, hazteko ahalmen handiak dituzten sektore ekonomiko berrien garapena laguntzekoak.
- ◆ Horretarako, zenbait alderdi osagarri landu behar dira. Esate baterako, ikerlariak erakartzea eta talentua geureganatzea, berrikuntza kulturalaren baloreak gizarte osoan zabaltzea eta haiei buruzko sentsibilizazioa lantzea eta ikerketa sustatzea.
- ◆ Guztiz ezinbestekoa da mundu mailan hazkunde ahalmen handikoak izango diren sektoreak bultzatzea; esate baterako, biozientzien eta osasunaren esparruak, energia (biomasa, itsas mugimenduetan oinarritutako energia...), informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (Internet, banda zabala, wi-fi, lurreko telebista digitala, administrazio birtuala, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako gizarte sareak). Horretarako ikerketa-azpiegiturak behar ditugu (unibertsitateetako bikaintasun-guneak), sareak (klusterrak sektore estrategikoetan), mugigarritasun inteligentea eta jasangarria (poligono, unibertsitate, zentro teknologiko eta lotura intermodaletako lineak)... Horiek guztiak Nafarroako ekonomiaren lehiakortasuna erraztuko duten elementuak dira.
- ◆ Halaber, bultzatu egin behar da ezagutza zentroetan biltzea, talentua erakartzea eta gordetzea, sarean lan egitea eta lankidetzan jardutea.
- ◆ Unibertsitateek enpresak-zentro teknologikoak-unibertsitateak sisteman izan behar duten egitekoa zehaztu behar dugu, bestelako joera eta lehentasunen gain, eta esparru bakoitzean egiten den munduaren ikuskeraren gain.
- ◆ Funtsezko gertatzen da unibertsitateetako zentro teknologiko, zuzendaritza eta ikerkuntza taldeetako ordainketa politikaren inguruko hausnarketa egitea (soldata finkoa eta pizgarri sistema)

Nazioarteko erreferentziak

Singapur

Singapurren garapenaren arrakasta, 60ko hamarkadan independentzia lortu zuenetik, ikuspegi estrategiko batean du oinarria; izan ere, ikuspegi orrek batera biltzen ditu eraginkortasuna eta lehiakortasun baldintza aldakorretarako egokitzapena. Estatu-hiria garapen ekonomikorako azpiegitura onaren parean finkatu da, hain zuzen ere honako ardatz hauek erabilita: Singapur "Irla adimentsu" gisa ikustea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak lehiakortasun ekonomikorako eragile gisa erabiltzea (esate baterako, sare telematikoak ezar daitezten bultzatzea, e-Government deitutakoa edo TradeNet sistema, inportazio eta esportazio prozesuak arintzen dituen)

Singapurrek azken belaunaldiko parke teknologikoen aldeko apustua egin du. Estatu-hiri horren beste ekimen garrantzitsuenetako bat One North egitasmoa da. One North bioteknologian eta multimedian espezializatutako azken belaunaldiko parke teknologikoa da, Zaha Hadid izen handiko emakume arkitektoak proiektatua da. Proiektu horren berezitasunetako bat da enpresen, bizitokien eta aisi-guneen espazioak fusioko arkitektura batean batzen dituela, eta egoera horrek ideien trukea indartzen duela.

Singapurreko portua, gaur egun Asiako onenen artean dagoena, tokiko enpresentzako beste laguntza-elementu bat da, kostu lehiakorak eta zerbitzu puntualagoak eta kalitate handiagokoak eskaintzen baititu.

Nafarroako EAJ-PNVk berrikuntza teknologiko arloan egiten dituen proposamenak

1. Bikaintasunezko ikerketaren, goi mailako prestakuntzaren transferentziaren eta garapen teknologikoaren aldeko apustua egitea; era berean publiko-pribatua lankidetzaren aldeko apustua egitea (Enpresak- Teknologi Zentroak Unibertsitateak- Administrazioak) nazioarte mailan ezarritako markoan .
2. Gardentasun handiagoa sustatzea berrikuntzaren inguruko informazioak: ezinbestez ezagutu behar da Nafarroan zein sektoreen inguruan dagoen berrikuntza eta zer nolako berrikuntza egiten ari den. Enpresa ehun propioa duten sektore estrategikoetan, enpresen egitekoa funtsezkoa da beharrezkoak zehazteko oruan. Enpresa ehuna oraindik sendotu gabe dagoen sektoretan, teknologi zentroen eta unibertsitateen egitekoa motorea izan behar litzateke, baina kasu bietan baldintza batekin: B+G+I ahaleginak lana eta aberastasuna eragin behar du.

HELBURUA: Dauden azpiegitura teknologikoak sendotzea eta eguneratzea eta berriak garatzea.

3. Etorkizuneko sektore estrategikoetan egitasmo esanguratsuen aldeko apustu argia egitea.
4. Nafarroako Gobernuak CDTIrekin duen hitzarmenarekiko apustua mantentzea, baina europar erakundeengandik hartzen diren fondoak hobetu behar dira.
5. Nafarroan dauden eta aurreikusi diren teknologi zentroen inbentarioa egitea , eta bakoitzean Nafarroarako edo kokatuta dagoen eskualdeko etorkizun sektoreekin esleitutako helburu eta baliabideen koherentzia baloratzea.
6. Nafarroan eta bereziki iparraldean eta ekialdean, baina bereziki Tuteran inguruan oraindik behar litezkeen teknologi zentroak aztertzea (etorkizuneko sektoreekiko koherenteak diren zein hebururekin, dimentsioa eta baliabideak).
7. Dauden punta-puntako enpresen garapena babestea, baina teknologi oinarriaren enpresen sorrera bultzatzea, bereziki etorkizuneko sektoreei lotuta badaude. Teknologi zentroei oinarri teknologikodun enpresen sorrera terminoetako helburuak ezartzea, lehen akziodunak orain dauden enpresak izan daitezzen eta bigarrenaz finantzaketa tresneria egokiak izan daitezzen (aurrezki pribatuak egitasmo hauetara bideratzeko mekanismoen aldeko apustua egitea eta arrisku teknologikoari eta permanentziari lotutako zerga pizgarriak sustatzea).
8. Nafarroako teknologi zentro guztiak nazioarte mailako puntako sareetan sartzea, zuzenean edo garrantzi handiagoko zentroaren azpian. Jakina, zentro guztiak ez dira tamaina berekoak izango eta ez dituzte baliabide berdinak izango, helburuak oso ezberdinak izan daitezkeelako; baina ez da onargarria beren jardura esparruan eguneratuta ez egotea.
9. Teknologi zentroetako eta unibertsitateetako zuzendari taldeari gero eta ospe hobea ematea, baina beren jarraipena gutxieneko errendimenduei lotzea eta soldataren zati bat lana eta aberastasuna sortzearekin lotutako helburuak lortzearekin uztartzea.

HELBURUA: Nafarroa kanpora zabaltzea eta nazioartean kokatzea.

10. "Lokalismoa" bertan behera uztea eta bereziki Euskal Autonomi Erkidegoarekin harremanak mantentzeko erresistentzia. Lankidetzarako dauden bideak aztertzea, identifikatzea eta ahal den neurrian bultzatzea harreman instituzional hurbil eta egonkorretatik abiatuta, adibidez, europar erakundeekiko harremanetan.
11. Erosketa publikoetarako politikak gauzatzea, Nafarroa etorkizuneko sektoreetarako bidean kokatzeko: eraikuntza jasangarria, energia berriztagarriak, nekazal-elikadura sektorea, osasuna, balio erantsia duten zerbitzuak (IKT, Hezkuntza, Prestakuntza).
12. B+G+I kontzeptua nazioartekotzeko neurriak hartzea la Europar erakundeetan eta nazioartean B+G+I egitasmoak aurkeztu nahi dituzten enpresei laguntasuna ematea, (Nafarroako enpresa eta zentroek Nafarroakoak ez diren enpresa eta zentroekin akordioak izenpetzea babestea), lankidetzak (zentroek enpresa eta unibertsitateekin harremanak eta lankidetzak sendotzea; enpresa edo/eta unibertsitateek parte hartzen duten B+G+I egitasmoak babestea), gaitzea (tituludun pertsonak enpresetan sartzea B+G+I lanak egin ditzaten; zaintza teknologikorako sistemak erabiltzea)

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak enpresarien “ kudeaketa aurreratuaren inguruko gaitasunak eta baloreak eskuratzearen” inguruan

HELBURUA: Etengabe, baloreetan heztea bultzatzea, enpresariekin eta enpresetako zuzendariekin.

1. Enpresek egiteko duten jakinduria agirien bidez ezartzea, negozioaren inguruko ezagutza ez dadin pertsona zehatzen eskuetan sakabanatua egon , baizik eta lotua; eta horrela ez dadin galdu pertsonak joaten direnean.
2. Enpresa ezagutzaren arlo kritikoak identifikatzea duen garrantziaz kontzientziatu, bertan baitaude lehiakortasunerako abantailak; ahal bada, legalki babestea.
3. Enpresari eta zuzendariak bereganatzea bizi garen mundu honetan, sektore ekonomikoak globalak direla eta “ denari” buruzko informazio eskuragarria dagoela.
4. Enpresek onar dezatela, gertatzen denaren inguruko informazioa izateko eta batez ere etengabe hobetzeko, munduarekin konektatu behar dela eta ideia eta ekarpen berrietara zabaltzea behar dela. Honek oinarritzko baldintza behar du: onartu behar da enpresan gauzak egiteko erabiltzen den modua ez dela bakarra, ezta hobe ere.
5. Enpresek uler dezatela ezagutza kudeatzeko , munduarekin konektatzeko eta ekarpen berriak jasotzeko baliabideak erabiltzea ez dela alferrik eginiko gastua, beharrezko inbertsioa baizik. Ezinbestekoa da ulertzea aldatu eta berri beharra dagoela eta ez soilik besteek egiten dutelako baizik eta funtsezkoa delako aldatzeko eta hobetzeko, gero eta leihakorra izateko eta aurrean egoteko.
6. Enpresariei eta zuzendariari eskumenak ematea inguru berri horretan eroso senti daitezten: hizkuntzen ezagutza, hirugarren baten lankidetzarekiko jarrera ona eta I+G+B gaien inguruko lankidetzak akordioak ezartzeko gaitasuna, helburuak ezartzeko, baliabideak emateko, ezagutza partekatzeko eta lortutako emaitzek nola kudeatu ezartzeko.

6- Osasuna, familia eta mendetasun egoeran dauden pertsonak

Gakoak

- ◆ Familietan izan diren aldaketak, biztanleriaren zahartzea eta migrazio prozesuak dira herritaren eta gizarte politiken eskariak modu erabakiorrean baldintzatuko dituzten hiru joerak. Familia da gizarte politiken subjektu nagusia, bere beharrian guztiak ezagututa prestazio eta zerbitzu egokiak emango dira erantzun hurbileko, berritzaile eta eraginkorra emateko.
- ◆ Familia gizarte-kohesioaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren bermatzaile gisa laguntzea. Familiaren kontzeptua, beti ere, zentzu zabalean ulertuko da; alegia, modu desberdinetako familiak -premiak ere ezberdinak dituztenak- daudela ulertuta. Berme hori gauzatuko da jaiotzak sustatuz eta laneko eta familiako bizitzak uztartzea bideratuko duten neurriak abian jarriz gauzatuko da.
- ◆ Babes sozialaren egikaritzea familiarik esparru publikora igaro da, horrekin batera beharrian eta eskari berriak eragin dira gizartearen. Esandakoaren ondorioz gizarte zerbitzuak gero eta gehiago bihurtu dira eskubide subjektibo.
- ◆ Erantzukizun publikoaren inguruko diskurtsoaren eboluzioa lehenengo subsidiarotasun kontzeptuan oinarritzen zen eta gero familiarekiko osagarritasunean oinarritu da. Mendetasunari arreta emateko Nafarroako zerbitzua eratzean eta langile eta enpresek finantzaturako berariazko fondoak sortuta, zerbitzu hobeak emateko aukera izan liteke.
- ◆ Teknologia berrien aplikazioa bitarteko bat izango da gizarte babeseko sistemak hobetzeko. Etxebizitza egokituak eta adimendunak egingo dira eta mendekotasuna duten pertsonen segurtasuna areagotuko da.

Nazioarteko erreferentziak

Ipar Europako eredia

Luzaroan eta bereziki hirurogeiko hamarkadan, Suediako Welfare State aurkeztu zian da “hirugarren bidea” deitutakoaren eredu egokienaren gisara. Hirugarren bidea kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko bide bat da, eta ongizatean eta berdintasunean maila gorenak lortu izan ditu, neoliberalismoari uko egin gabe. Ongizatearen estatuaren zabalpena harrotasun eta poztasun iturri bat izan da Suediako gizartearentzat. Oparotasun ekonomikorantz eta gizarte ongizaterantz doan “bide suediarra” prototipo bat izan da beste herrialde batzuentzat zenbait hamarkadatan zehar. Gaur egun eredian nolabaiteko krisia dagoela esaten ari bada re, Suedia da Europar Batasunean gizartearen babeserako baliabide gehien bideratzen dituen bigarren herrialdea (8.529 2005 urtean)

Hona hemen eredu suediarren ezaugarria: berdintasun sozioekonomikoaren eta eraginkortasun ekonomikoaren bateragarritasuna eta are elkarren osagarritasuna ere. Hori guztia aurreneurrien gizarte politika batean gauzatzen da; hain zuzen ere, berdintasuna sustatzeaz gainera, jarduera ekonomikoaren efizientzia ezartzen duen politika bat. Hezkuntzaren eta osasunaren arloko gastuak ezin dire produkzioaren gaineko zaramatzat hartu, baizik eta giza kapitalaren arloko inbertsiotzat. Sindikatu suediarren tesia izan da epe luzerako hazkunde ekonomikoak eta efizientzia ekonomikoak berdintasun soziala ekartzen dutela.

Nafarroako EAJ-PNVk Osasun arloan egiten dituen proposamenak

1. Desberdintasun sozialak (geografikoak, genero arlokoak, sozioekonomikoak) murriztea osasunean eta osasun arreta arloan.
2. Gizarte talde ezberdinei (mendeko nagusiak, gaigabetuak, buru osasuna, toxikomaniak, gaigabetasuna eragiten duten gaizotasunak, gizarte bazterketa egoeran dauden taldean eta bereziki bizitzaren azken aldiak daudenak- arintzeko zaintza).
3. Lehen uneko arretarako baliabideak egokitzea (ivesgarritasuna, arreta emateko ordutegiak, azpiegitura berriak, teknologia egokia)
4. Lehen uneko arreta egokitzea (interes berezia jartzea nekazal arloan), arreta espezializatuarekin era koordinatuan lan egitea , arreta jasotzen duen pertsona lehentasun estrategikoa izan dadin eta arreta zuzena, osokoa eta etengabea izan dadin.
5. Erantzuteko denborak hobetzea, atzeratze konpromisoak hartuta (edo arreta emateko bermeak) bai kontsultetan, diagnostia egiteko probetan, kirurgia ez larrian eta erresoluzio altuko prozesuak garatuta..
6. Pertsona erabiltzaileen autonomia bultzatzea beren patologiai kudeatzeko orduan, erabakiak hartzeko arduretan eta beren osasunerako zaintzen inguruan, nork bere burua zaintzea sustatuta eta bizimodu osasungarriak bultzatuta (tabakoa, alkohola, ariketa fisikoa, elikadura), prebentzioa, osasuntsu egoteko heziketa eta gizarte parte hartzea.
7. Prebentzian esku hartzea
8. Babes baliabideak egoki erabiltzeko kultura sustatzea.
9. Osasun publikoaren aztertarauak balore eta abantailetan oinarritzea,gaizotasunean baino gehiago.
10. Etorkizuneko osasun publikoa gabezietan (gaizotasuna edo patogegina) eta baloreetan (osasun ona) oinarritzea. Erkidegoak ez dira gabezietan oinarritzen, bitarteko, abantaila eta balore positiboetan oinarritzen dira. Gabeziak aztertu beharrean (gaigabetasunak eta adineko biztaneria), arauak ezartzen dituzten agintariek bitarteko baikorren bidez hartu ahal diren neurriak aztertu ahal dituzte. Garatu beharreko faktore garrantzitsua da pertsonentzako inguru baikorra garatzea (kirolerako tokiak, gune berdeak eta nork bere garapena lantzeko aukerak).
11. Ikerkuntza sustatzea, praktika klinikoaren eta osasun publikoaren zuzentzarauen garapenerako oinarri sendo gisa.
12. Ikerkuntza epidemiologikoa sustatzea, gaizo arrisku faktoreak identifikatzeko, osasuna sustatzeko hartzen diren neurriekin batera. Osagarri gisa, ikerkuntza kualitatiboko azterketek informazio erabilgarria eman ahal dute.
13. Pertsona ikertzaileen eta zuzentzarauak ezartzen dituzten pertsonen eta medikuen arteko lankidetzak sustatzea.
14. Osasuna sustatzeko era berritzaileak sustatzea.
15. Osasun publikoaren praktika klinikoa malgutasun eta praktikotasunean oinarritzea.
16. Bikoiztasunak ekiditea Nafarroan osasun sistema publiko koordinatua sustatuta.
17. Sare publiko eta pribatuaren arteko osagarritasuna sendotzea, kontuan izanik oinarria osasun publikoa dela eta horretarako eskubidea du hiritargoak maila eta zerbitzu guztietan. Zerbitzuak deribatzea aukera da eta ez derrigorra.
18. Nafarroako osasun zerbitzua bertoko langilez osatzea (NUP fakultatea NUz gain) eta arlo garrantzitsu batzuetan ikerkuntza bereziturako egitura indartsuaren bidez sendotzea.

Nafarroako EAJ-PNVk Familia eta Mendetasun inguruan egiten dituen proposamenak

1. Familien bizitza kalitatea handitzea, familiako kideen ongizatea hobetzea , bereziki arrisku egoeran daudenena.
2. Belaunaldi berriei famili egitasmoa diseinatzeko eta hasteko erraztasunak eskaintzea.
3. Emakumearen lan munduratzea errazten laguntzea esparru guztietan eta karrera profesionalaren garapena ahalbidetzea; aldi berean, familiako kide guztien ardura partekatua sustatzea seme alabak eta mendeko pertsonak zaintzeko orduan.
4. Administrazio publiko guztien aldetik bermatzea emakume eta gizon guztientzako berdintasun egoera administrazioa sartzeko orduan.
5. Lana eta familia bizitza uztartzeko ekintzak sustatzea, marko gizatiarra sortuta eta familiek beren bizitza nahi duten eran antolatzerik izan dezaten.
6. Gero eta gehiago haur eskolen sarea zabaltzea (4 hilabetetik 3 urtera bitarteko eskolaratzea)
7. Zerga, hezkuntza, lege eta prestakuntza arloko neurriak hartzea familia gizartea bideratzeko tresna den aldetik, denon kultura eta bizikidetzaren eusten duten baloreak transmititzen ditu eta kide guztien garapen pertsonala laguntzen du.
8. Babes ekonomikorako neurriak hartzea, laguntzekoak, laguntasun teknikoak, atsedena hartzeko egitasmoak, tele-laguntasuna, etxeko laguntasun zerbitzua, eguneko eta gaueko zentroak, lanbide zentroak eta abar, pertsona nagusiekin, gaigabetuekin, adingabeekin eta gizarte bazterketa egoeran daudenekin erlazionatuta.
9. Behar besteko arau modifikazioak egitea emakume eta gizonen parte hartze parekatua bermatzeko erabaki esparru publiko zein pribatuetan.
10. Lan denbora malguago egiteko eta berrantolatze formulak arautzea, etxeko lanak egiteko eta menpeko pertsonak zaintzeko helburuarekin lan baimenak, lanaldi murriztuak hartu nahi dituzten langileentzako laguntasunak hobetzea. Neurri hauek ez dute desberdintasun egoerak eragingo, hau da, emakumeei lan aukerak murrizten dizkietenak edo beren kontratazioa oztopatzen dituztenak (enpresa konpentsazioa).
11. Aldiro familien beharrezan eta beharrezan sozialak aztertzea eta arreta emateko egitasmoak adostea une bakoitzean inplikaturako pertsonak kontuan hartuta eta haiekin negoziatuta.
12. Zerbitzu sozio-komunitarioak pertsonen eskubideen ikuspuntutik aztertzea (zaindutako pertsonak eta zaintzaileak). Puntu honek administrazioen arteko lankidetzaren handia eskatuko du, zerbitzuen ordutegi eta egutegiak aztertu eta handituko dira.
13. Errenta maila baxuenak dituzten adineko pertsonen egoera ekonomikoa hobetzea.
14. Adineko pertsonen isolamendua ekiditea gizarte jarduerak eta pertsona arteko harremanak sustatuta; talde honetako pertsonen aprobetxamendu sozial handiagoa egitea beren autoestimua eta parte hartze maila hobetzeko xedez.
15. Autonomia pertsonalaren promozioa sustatzea bi funtsezko esparrutan: mendetasun egoerak ekiditea eta zahartze aktiboaren promozioa eta mendetasun egoeran dauden pertsonen egoeraren inguruko tratamendua.
16. Mendetasun egoerak prebenitzeko lana egitea eta arreta berezia jartzea egoera honekin erlazionaturako faktoreak antzemateko eta tratatzeko orduan, arreta goiztiarreko egitasmoak indartzea.
17. Ardura partekatua sustatzea etxe barruko lanean eta pertsonak zaintzeko arduraren.
18. Osasun esparruan etxebizitza, garraio, herri ekipamendu eta lanpostuetarako iredagarritasunaren inguruko neurriak hartzea.
19. Egoitza unitate sozio-sanitario batzuk sortzea eta mantentzea, zaintza sozial eta sanitarioak behar dituzten eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko.

7- Gizarte Kohesioa

Gakoak

- ◆ Nafarroako gizarteak garapen ekonomiko eta sozial handiak lortu ditu, eta Europar Batasunean garatuen dauden herrialdeetara hurbildu da. Gaur ere, finantza eta ekonomia krisiari aurre egiteko abantaila egoeran dago; hala eta guztiz ere, pertsona batzuek zailtasunak dauzkate bazterkeriarik edo pobrezia arriskutik ateratzeko; hori dela eta, beharrezkoa da kalitatezko babes sozialaren aldeko apustua egiten jarraitzea.
- ◆ Alargunak dira egoera txarrean dagoen taldetako bat; izan ere, haien pentsioak askotan lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik daude. Hala eta guztiz ere, kolektibo horren duintasuna dela eta, erakundeek ahaleginak egin behar dituzte haientzat partaide diren gizartean bizitzeko gutxieneko onargarri bat erdieste aldera.
- ◆ Beste gizarte aurreratu batzuetan bezala, Nafarroan migrazio prozesu handia gertatzen ari da azken urte hauetan. Horrek esan nahi du pertsona ugari Euskadira iristen ari direla bizimodu hobe baten bila. Horrek, askotan trantsizioaldi konplexuak ekartzen ditu pertsona horientzat; aipatu aldietan, izan ere, pertsona horiek bizi-egoera zailetan aurkitu ohi dira, beren egoera hobetzeko bideak aurkitzen dituzten bitartean.
- ◆ Ezinbesteko dugu etorkinen kolektiboentzako berariazko harrera politika bat, integrazioa baino gehiago bizikidetasuna bilatuko duena, enpleguan oinarri harturik.
- ◆ Kohesionatutako gizarte pertsona eta talde heterogeneo eta berezituak osatzen dute eta beren ezaugarria da arauzko egitura eta gizarte antolaketa, gizarte harreman etengabe eta trinkoak eta kide bakoitzean islatzen da gizarte identitate baten bidez.
- ◆ Litekeena da 2020 urteko gizarte sistema ez dela guztiz kohesionatutako gizarte batena izango, eta oraindik ere izango dira gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak. Beraz, gutxieneko baliabideak bermatu beharko dira (ez soilik ekonomikoak) pertsona horiek gizarteratzeko bidean aurrera egin dezaten.

Nazioarteko erreferentziak

Kanada

Inmigrazio gehien hartzen duen herrialdetako bat da, eta jakin du egoera hori integrazioaren bitartez aurre egiten. Sistemari gutxieneko sozialen oinarri bat eman dio, eta horren bitartez normaltasuna eta kultura ezberdinen arteko errespetua bermatu dira.

Danimarka

Danimarkak etorkin-kolektiboen integrazioa lortzeko, enplegu politikak garatu ditu arrakasta handiz, eta jakin du enpleguari buruzko bermeak aplikatzen.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

1. Biztanleriaren ongizatea eta gizarte kohesioa erdiesteko politika publikoak garatzea, bereziki zerga politikak eta garapen jasagarria ahalbidetuko dituztenak.
2. Gizarte osoaren beharrezko inplikazioa sustatzea, bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea ez baita soilik herri administrazioen inplikazioarekin gertatzen, eta ez da beren ardura eskusiboa, ezta gizarte erakundeena ere.
3. Gizarteratzeko lan metodologia garatzea, gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatu bidez. Ibilbide hauek profesionalen laguntasunarekin ibili beharko dira eta talde hauetan egongo dira Ume eta nerabeei arreta emateko lantalde espezializatuak, Gizarteratzeko eta lan munduratzeko taldeak, Etxebizitzaren bidez gizarteratzeko taldeak eta Genero Bortxakeriagatiko biktimei osoko arreta emateko taldeak. Arreta hau Gizarte Zerbitzuetako Zentroetan eman behar da.
4. Egoera berezietan dauden pertsonentzako baliabideak sustatzea, dauden gizarte sektorea bat zein beste delarik.
5. Arreta emateko, informatzeko, aholkularitza emateko eta bitartekaritza egiteko baliabideak diseinatzea eta abian jartzea, beste kulturetatik datozen pertsonen parte hartzea errazteko.
6. Beste gizarte eta kulturekin partekatutako gizarte eredia bultzatzea, parte hartze partekatu, elkarreraginkortasun eta ekitate printzipioetan oinarri harturik, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan oinarrituta.
7. Solidariotasuna gizartearen balore etiko gisa sustatzea eta hedatzea, finantza eta teknologi baliabideen gardentasunean islatuta.
8. NFKren baliabide guztiak era orekuan banatzea, Nafarroa ez da Iruña eta Tuterako inguruko eskualdera mugatzen.
9. Gizarte zerbitzuen prestazioaren hobetzea sustatzea: ezinbestekoa da gizarte zerbitzuen prestazio ranking-etan tokiak hobetzea. Gai horren inguruko indikadorerik onenak izatea bilatu behar dugu, Europar herrialde onenen parean egoteko, eta ondorioz, zerga antzekoak jasateko prest egon behar dugu.
10. Osoko hausnarketa egitea enpresen errentak eta errenta profesionalak arautzen dituen legediaren inguru, bai eta fraudearen inguru. Oinarritzkoa da benetan jasotako errentak aitortzea, betiere egungo irizpideak jarraituz eta horien arabera zergak ordainduz.
11. Enpresek gizarte segurantzari eman beharreko kotizazioaren portzentajekako beherakada aztertzea, baina kotizazio mugak ere kentzea (agian horrekin beheratu egingo dira zuzendari, langile kualifikatu eta langile ez kualifikatuaren arteko soldata ezberdintasunak)
12. Kapital errenten eta lan errenten artean dagoen tributazio ezberdina auzitan jartzea. Errentak dituen pertsona aberatsarentzat ezin da lan arruntetik bizi den klase erdiko pertsonarentzat baino merkeago izan.
13. Lortutako mozkinak inbertitzen dituzten enpresa konprometuei zerga-tratu bikaina ematea. Baina, enpresariari langileari ematen zaion tratua ematea, mozkinak kontu pribatuetara sartzen dituenean.

8- Etxebizitza

Gakoak

- ◆ Gaur egun , etxebizitza eskuratzeak ahalegin handia suposatzen du pertsonentzat eta ekonomia propioan eragin kaltegarriak ditu honek hiritargoak gastatzeko eta inbertitzeko gaitasun txikiagoa duelako, eta etxebizitza askea eskura ezina da biztanleriaren gehiengoarentzat
- ◆ Beharrezkoa litzateke lurzoruaren inguruko legeria indarrean sartzea, gure herri edo hirien garapenerako oinarritzko arauak ezartzeko, eta horiekin batera, etxebizitzaren gaineko politika ezartzeko.
- ◆ Legeri honen bidez udalei tresna bat emango litzaike , etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten biztanle gehienek beharrezkoak asetzeko soluzio berezituak eskaintze aldera.
- ◆ Ezinbestekoa da alokairua sustatuko duen etxebizitza-politika publiko bat, alokairuko etxebizitzan merkatua bideragarria izan dadin. Politika horretan etxebizitza-eredu anitz eskaini beharko lirateke.
- ◆ Alokairuko etxebizitzaren inguruko politikekiko eta udalek ekonomia eta kudeatze arloan duten gaitasunarekiko mendekotasunak zailago egiten du alokatzeko etxebizitza publikoa izatea.
- ◆ Gazteriak oztopo handiak ditu emantzipatzea bilatzen duenean, batez ere etxebizitza eta kalitatezko lana lortzea zaila delako. Etxebizitzaren prezio altua eta alokairu eskuragarri eta malgua ezartzeko politikarik ez dagoenez, gazteen emantzipazioa atzeratzen da.
- ◆ Oinarritzko gertatzen da azken urteotan etxebizitza ondasun ekonomiko edo inbertsiorako ondasun gisa mantentzeko joera geldiarazteko politikak garatzea, hori baita eskura ezintasunaren jatorria.
- ◆ Etxebizitza ez da derrigorrez jabegoa izan behar, beharrezko jotzen dugu etxebizitza publikoaren eskaintza alokairura bideratzea. Alokatzeko etxebizitza sozial honek une bakoitzeko egiazko beharrezko erantzuten die: biztanleriaren mugikortasuna ahalbidetzen du lan beharrezkoen arabera, eta ekimen sozial honek bere jatorritzko helburua betetzen duela bermatzen da, hau da, onuradun pertsonen beren egoera ekonomikoa hobetzen dutenean edo bestelako etxebizitza eskuratzetik dutenean, alokairu sozialeko etxebizitza beste pertsonentzat utz daiteke.

Nazioarteko erreferentziak

Austria

Viena, Austriako hiriburua adibiderik esanguratsuenetakoa da alokairuko etxebizitza parkeari dagokionez. Vienako hiritargoaren erdia baino gehiago bizi da udalak alokatutako babes ofizialeko etxebizitzan.

Tradizio handia dauka arlo honetan eta garaietara egokitzen jakin izan du etxebizitza publikoaren parkea egokitzearen bidez zaintze eta mantentze politikak egin ditu etxebizitzaren kalitate handia lortzeko.

Alemania, Frantzia, Danimarka eta Erresuma Batua

Herrialde hauetako gazteen emantzipazioa hiru aldiz handiagoa da Nafarroako gazteena baino. Horretarako arrazoiak ugariak dira. Hartara, behin behinekotasun txikiagoko lan merkatua izateaz gainera, alokairuko etxebizitzaren eskaintza handia dago. Horrek guztiak berarekin ekarriko du gazteen buruaskitasun ekonomikoa.

Herrialde horietan, bestealde, gazte-gaztetatik emantzipazioaren kultura hezkuntzaren bitartez sustatzen da. Horren ondorioz, gurasoen etxean urte askotan geratzen diren gazteak sozialki ez daude oso ongi ikusiak. Horretan lagungarria da herrialde horietan gazteentzako azpiegiturak izatea (esate baterako, ikasleentzako egoitzak eta jantokiak), adinez nagusiak diren unetik edo unibertsitate-ikasketak egiten hasten diren unetik gazteek emantzipazioa lortzea ahalbidetzen dutenak.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA: Etxebizitza eskuratzea erraztea , pertsona guztientzako etxebizitza eskuragarriak izateko politika garatzearen bidez.

1. Babes ofizialeko etxebizitza eta etxebizitza tasatua sustatzea. 2020 edo 2015ean etxebizitza guztiaren % 80 babestua izango da, honen barne egongo delarik babes ofizialeko etxebizitza eta etxebizitza tasatua. Helburu gisa, 2020-2025ean pertsona batek etxebizitzarako erabili beharko soldata zatia ez da izango sarrera garbien % 30etik gorako kopurua.
2. Etxebizitza tasaturako portzentaje altuak ezartzea, eta hau mugatuta egongo da etxebizitzarik ez duten pertsonentzat eta salmenta prezioan.
3. Oraingo etxebizitzaren eta alokairuen arteko "tarteko" bat aurreikustea: irisgarritasun zaileko etxebizitza duten adinekoentzako apartamentu tutoretuak eta alokairu soziala gazteentzat.
4. Lurralde mailan alokatzeko etxebizitza parke homogeneoa sortzea mugikortasun handiko sektore ekonomiko ahulentzat edo egonkortasuna galdu duten sektoreentzat (dibortzioak, banaketak eta abar)
5. Alokatzeko etxebizitza parkea sortzea gazteen emantzipazioa eta biztanleriaren mugikortasuna ahalbide ditzan. .
6. Lurzoruaren inguruko araudia oraingo beharrezan arabera ezartzea .
7. Etxebizitza babestuen eta etxebizitza askearen arteko hutsunea betetzea, praktikan sektore guztientzako lehen etxebizitza bermatuta.
8. Maileguak emateko oraingo politikak aldatzea, adibidez gehienezko interesa bermatuta eragiketa guztietan.
9. Bigarren etxebizitzetarako lurzoru berrien kontsumoa mugatzea: etxebizitza hutsen parkea murriztuko litzateke eta hurrengo belaunaldientzako lurzoruaren erabilpena bermatuko litzateke.
10. Legezko neurri bermatzaileak egokitzea pertsona jabetunentzat zein alokairuan bizi denarentzat, etxebizitza pribatuen alokatzeak sustatzeko.
11. Eraikitze prozesuetan eta kudeatze urbanistikoan sinpletasuna eta berrikuntza sustatzea, etxebizitza merkeagoak eraikitzea errazteko.
12. Administrazioek lurzoru eraikigarria ematea sustatzea babespeko etxebizitzak egin ahal izateko.

9- Bakerako heztea, justiziaren alde lan egitea

Gakoak

- ◆ Bizikidetasunari buruzko ikaskuntza gazte-gaztetatik bultzatuko da, eta hezkuntza prozesu osoaren ardatz nagusia izango da. Izan ere, haur hezkuntzatik hasi eta bigarren hezkuntzara bitarteko prestakuntza ziklo guztia hartuko du.
- ◆ Bizikidetasun harmoniatsuaren aldeko hezkuntza gizarteko bizitza gidatzen dituzten balioetan oinarritu behar da: errespetua, demokrazia, elkartasuna, bazterkeriarik eza eta indarkeriarik eza.
- ◆ Honakoak dira era horretako hezkuntza batekin lortu nahi diren helburuak: gizarte modernoetan presente dauden kolektibo ezberdinen guztizko integrazioa eta gatazketarako konponbide baketsuak bideratzea.
- ◆ Gaur egungo gizartea konplexua da eta eskatzen du gizartea osatzen duten pertsonen gainerako pertsonekin modu egokian jarduteko gaitasunak eta trebetasunak izatea. Horrek guztiak honakoak ekarriko ditu berarekin: auto-estimua handiago izatea, indarkeria-ekintza gutxiago gertatzea, enpatia, justiziaren zentzua, heldutasun maila eta herritartasunaren, demokraziaren eta bakearen aldeko balioak eta jarrerak garatzea.
- ◆ Banaka nahiz kolektiboetan gatazkei modu positiboan konpontzen jakitea bilatzen da.
- ◆ Bakerako heziketa ez da eskolara mugatzen: Adin eta egoera guztiak hartzen ditu. Azken urte hauetan, zentroak ahalegin handiak egiten ari dira ikasleriaren garapen integrala lortzeko, hezkuntza erkidego arduratsu eta aktibo baten barruan.

Nazioarteko erreferentziak

Hezkuntza eredu finlandiarra

Finlandiako hezkuntza maila handia da. Nazioartean egiten diren alderaketetan, esate baterako, OECDk 2004an egindako PISA txostenean-, Finlandia mundu mailako lehen tokiak hartzen ditu. Nabarmentzekoa da, batez ere, oinarrizko hezkuntzan lortzen duen maila. Irakasleen prestakuntza da gakoetako bat. Finlandian lehen hezkuntzako irakaslea izatera iristeko, Hezkuntzako Master titulua eduki behar da, eta gainera, 2005etik irakasleen prestakuntza-orduen kopurua handitu da. Bestalde, eskoletan praktikak egiten dira: 800 ordu baino gehiago hain zuzen: Bigarren hezkuntzako irakasleek beren espezializazioko fakultateetan lortzen dute behar duten prestakuntza, eta gero 1.400 ordu baino gehiagoko ikasketa pedagogikoak egin behar dituzte.

Medellín (Kolonbia)

Musika-eskolen eta musika-banden sarea Medellingo alkatetzaren programa bat da, 1996 urtean sortua; sare horretan hiru mila ikasle baino gehiago daude 26 eskoletan. Eskoletan ikasleek hari eta haize musika tresnak jotzen ikasten dute, eta errepertorio klasiko eta herrikoiko talde eta orkestretan hartzen dute parte: Sareak, bakean oinarrituriko haziak erein dituzenez, giza prestakuntzan oinarrituriko hezkuntza proiektu bat eraiki du, indarkeriak jotako erkidegoetan musikaren ikaskuntza sustatzeko: halaber, bete esparru batzuetara ere iritsi da, eta errespetuzko eta tolerantziako giroak bultzatzen dituztenek jarraitu beharreko eredu bilakatu da.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA: unean uneko gizarte errealitatearen aurrean jarrera kritikoa bilatuko duen eskola lortzea.

1. Nork bere bizitza eta hurkoarena baloratzen lagunduko duen eskola sustatzea.
2. Nork bere hazkunde pertsonalean era holistikoan lagunduko duen eskola sustatzea.
3. Doako eskola sustatzea, arrazoi ekonomiko,erlijioso edo bestelako gaiengatik bazterketarik gabe.
4. Kalitatezko heziketarako giza baliabideak eta materialak izango dituen eskola sustatzea.
5. Eskola neurriduna sustatzea, krisi egoeran dagoen eta txirotasuna eta desoreka bizi duen munduaren aurrean
6. Bizitza kalitatea sustatzen duen eskola, umearotik erakutsita osasunerako hezi behar dela; hau da, ohitura osasungarriak elikadura arloan, tabakismoa eta drogak ekiditea..
7. Eskola anitza sustatzea, prestakuntza aldi luzeagoan mantentzea sustatuta (derrigorra 18 urtera arte). Honek suposatzen du aukera anitza ematea erakargarria , egingarria eta eraginkorra izan dadin pertsonen prestakuntzarako eta pertsona hauek berehala edo beranduago lan mundura sartuko dira.
8. Norbanakoaren eta taldearen exigentzia maila duen eskola sustatzea, pertsona bakoitzak bere gaitasunaren arabera egin dezan , alderatzeak eta lehiakortasuna baztertuta.
9. Sorkuntza lagunduko duen eskola sustatzea.
10. Eskola bizitzan parte hartze aktiboa bultzatuko duen eskola sustatzea.
11. Jarrera eta ekimen solidarioa bultzatuko duen eskola sustatzea.
12. Bizi garen tokiko kultura eta ezaugarriak onartu eta baloratuko dituen eskola sustatzea.
13. Eskola irekia sustatzea, bertaratutako pertsona guztiak onartzea bilatuko duena eta pertsona ezberdinak barnean hartuko dituen, ikasleriarentzat zailtasunak eragiten dituen taldeen kontzentrazioa baztertuta, honek ghetto sentitzera eramaten dituelako.
14. Aniztasunaren aberastasuna partekatuko duen eskola sustatzea.
15. Justiziaren alde lan egingo den eskola sustatzea.
16. Gurasoek, irakasleek eta irakasleak ez diren langileek parte hartuko duten eskola sustatzea. Eskola kontseilua izango da Hezkuntza Erkidegoaren erakunde gorena eta ardurak hartuko ditu Zentroaren kudeatze globalean.
17. Gatazkak elkarrizketaren bidez konponduko diren eskola sustatzea.
18. Bakean bizitzea baloratuko den eskola sustatzea; errealistak izanda, bortxazko jarrerak prebenitzeko eta aldarazteko teknikak eta estrategiak erabiliko direlarik.

10- Energia berriztagarrien aldeko apustua/garapena

Gakoak

- ◆ Energia berriztagarriaren kontzeptu berria energia-iturri hibridoetan oinarritzen da (gehienak berriztagarriak, baina iturri anitzekoak: biomasa, energia eolikoa, eguzki-energia, uraren bidez lorturiko energia eta abar). Energiaren biltegiatzea eta sorkuntza eskaria duen toki-eremura aldatuko da, eta banaketarako beste sare eta tresna batzuk egituratuko dira.
- ◆ Energia sektore garrantzitsua da Nafarroan, daukan bolumenagatik eta garrantzi estrategikoagatik. Jarduera ekonomikorako oinarritzko sarrera izateaz gain, haren erabilerak zuzeneko eragina du gizartearen jasagarritasunean; halaber, garrantzi handiko sektorea da, termino ekonomikoetan aberastasuna sortzen duena.
- ◆ Ezinbesteko gertatzen da gizarte gisa honako balioak barneratzea: energia aurreztea, erabileraren efizientzia, hornikuntzaren bermea, energia berriztagarriak babestea eta nazioarteko erreferentia izango diren ikerketan, garapenean eta berrikuntzan oinarrituta egotea.
- ◆ Zentzu honetan, efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarrien inguruko sentsibilizazio lana bultzatu behar da, negutegi eragina duten gasen igorpena murrizteko eta Kyotoko helburuetara iristeko.
- ◆ Nafarroak teknologikoki garrantzitsua den industria du energia berriztagarrien esparruan, bereziki haize bidezko energia. Halaber, eguzkiaren energia fotoboltaikoa eta eguzki energia termoelektrikoa garatzeko aukerak daude. Ez da ahaztu behar hidrogenoa etorkizuneko energia sistemaren barruan.
- ◆ Efizientzia energetikoarekin loturiko teknologietan funtsezko hiru alderdi biltzen dira: etxebizitza eta hirugarren sektorea, industria eta eta garraioa.
- ◆ Arreta berezia merezi du automozio elektrikoaren arloan behar den garapena, garraio sektorearen garapenaren barruan; garapen ekonomikorako ezinbesteko den arren, atmosferara gas gehien igortzen dituen sektorea da.

Nazioarteko erreferentziak

Amerikako Estatu Batuak

Pennsylvania estatuak legez gutxienezko batzuk ezarri ditu energia berriztagarrien produkzioan eta erabileran, eta Oregon estatua ere aitzindaria da energia berriztagarrietan, bereziki ozeanoko olatuetan oinarrituriko energian, energia eolikoan eta eguzki-energian. Oregongo fabrikazio fotoboltaikoaren (PV) industriak bere buruari erronka bat ezarri dio: 2009rako 600 MWko produkzio gaitasuna handitzea.

Alemania

Alemanian, 2005ean energia berriztagarriek herrialdeko hornikuntza elektrikoaren %8 gainditzen zuten. Gobernu Federalaren planen arabera, 2010erako %13 egingo dute eta 2020rako %20ra iritsiko dira. Industria horren garrantzi ekonomikoa nabarmen handitu da, eta 2004an 130.000 pertsonen ematen zien lana. Lege batek ezarria du enpresek energia erostekoan lehenasuna eman behar diotela iturri berriztagarriekin sorturiko elektrizitatea erosteari. Beren etxeetan energia sortzen dutenei, beriz, bermatu egiten zaie beren "produktua" 20 urtez prezio finkoekin saldu ahal izango dutela.

Erresuma Batua

Gaur egun Erresuma Batuan sortzen den energiaren %23 zentral nuklearretatik heldu da. %2,3, beriz, iturri berriztagarrietatik. Gainerakoa, zentral termikoetatik. Gobernuaren helburua da 2010ean energiaren %10 iturri berriztagarrietatik lortzea; 2020rako %20 aurreikusi da. 2050erako CO2ren igorpenak %50 gutxitu nahi dira. Horretarako 500 milioi libra hitzartu dira energia berriztagarriak garatzeko. Uharteek Europako baliabide eolikoaren %40 biltzen dute.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

1. Gure mendi eta laboretako biomasaren aprobetxamendurako garapenerako ekintzak sartzea.
2. Inplikaturako eragileen artean lankidetzak loturak sendotzea, garape berrietarako eta ondoko erkidegoekiko lankidetzak aukerak ikusita.
3. Frantziarekiko interkonexio energetikoak hobetzea eta garraio energetikorako azpiegiturak garatzea.
4. Nafarroan edo inguruetan auto elektrikoak egitearen aldeko apustua egitea: lankidetzak egitasmo zabalago batean sartzen dugu, masa kritiko nahikoa duena. Beste behin ere, logika ekonomikoa, harreman historikoak, hurbiltasun geografikoa, Euskal Autonomi Erkidegoak martxan jarritako ekimenak, frantziar egileen dinamismoa, Iberdrolan kontrolatzen dugun % kontuan hartzen dugu Pirinio Atlantikoen Euroerregioaren markoaren aldeko apustua egiteko eta Nafarroako Gobernuak garrantzia kendu izan dio azken adian.
5. Energia berriztagarrien aldeko apustuarekin jarraitzea, etengabeko hornidura bermatzeko ereduak baztertu gabe.

11- Nekazal-elikadura sektore jasangarria

Gakoak

- ◆ Nekazal-elikadura sektoreak balio estrategiko handia du Nafarroako garapen estrategikoaren eta Ekonomia Berdearen oinarritzko sektore gisa egituratu behar da; honen barnean ere dago sektore energetikoa, garraio jasangarria, GRIN teknologiak eta turismo berdea, oraingo garapenean eta duen potentziaari dagokionez egiturazko krisialdiari aurre egiteko orduan. Horretarako funtsezkoa da nekazaritza integrala garatzea, produkzio faktoreen erabilpen eraginkorrak erabiltzeko, koste produktiboak murrizteko eta Nafarroako nekazaritzan eguraldiaren aldaketaren eraginaren kontra egiteko.
- ◆ Nekazal lurzorua, oinarri produktiboa garapen jasangarrian duen eraginagatik, eta are gehiago Nafarroan, dituen erosio arriskuak direla eta, oinarritzko baliabidea da eta zaindu egin behar da eta era jasangarrian tratatu. Defentsa ez da soilik babeserako arauekin egin behar, baizik eta babesteko ekimenetatik zuzenean ekidin behar da erosioa, horrek desagertzea eraman dezakeelako. El suelo agrario, la base productiva, por sus implicaciones en un desarrollo sostenible, y más en Navarra por. Landa guneak eta bereziki tarteko mendi lerroetan eta mediterraneoaren eragina dutenetan arriskua dago ohiko nekazal jarduerak bertan behera uzteko eta sarri askotan katastrofeak gertatzen dira eta erosio prozesuak arinagotu egiten dira.
- ◆ Nekazal jarduera, gaizki kudeatua denean, lurzorua kaltetzeko prozesuen eragilea izan daiteke, baina era berean haren beharrian handiena duen jarduera eta beronen defentsarako arrazoirik nagusia ere. Ez da ahaztu behar, jarduera ekonomikoa izateaz gain, elikagai eta paisai hornitzaile nagusia dela. Horregatik guztiagatik eta baliabidea eta jarduera mantentze adera, nekazal praktiken garapena bultzatu behar da ingurumenarekin errespetua izango duten nekazal praktiken bidez.
- ◆ Ura beharrezkoa da giza garapenaren arlo guztietan eta oinarritzkoa da gizarteetan bizirauteko. Ur baliabideen kudeatze lan eraginkorra etxeko erabileran nekazal guneetan eta industrian, funtsezkoa da epe luzerako ur hornikuntza bermatzeko. Kudeatze lan hau ere ondo egin behar da baiabidea hartzeko tokiekiko eta ondorengo arazketa prozesuarekiko.
- ◆ Nafarroako mendi guneak bereziki garrantzizkoak dira Foru Komunitatearen sare sozio-ekonomiko-naturalean, bertan daude baso erreserba handienak, desagertzeko bidean dagoen nekazal jarduera eta Nafarroako natura zaintzeko elementu esanguratsuenak; horregatik arauak ezarri behar dira eta laguntasunak eman garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko eta lurraldearen inbrikazioa sustatzeko.
- ◆ Nafarroa ondo kokatuta dago elikadura industria handitzeko eta eraldatzeko prozesuetarako lehengaien produkzioaren aldetik. Esperientzia honetatik eta ondo bideratutako inbertsio teknologikoekin, elikadura industriaren hazkundea eragin behar du eta lanak sortzeko gune berriak eragiteaz gain, nekazal produkzio handiagoa eragin behar du, nekazal lurzoru produktibo handiagoa eta ondorioz herrialde oreka handiagoa.
- ◆ Nafarroak izen ona du kalitatezko nekazal produktuak produzitzen dituelako eta hau aprobetxatu behar da produktu propioak bultzatzeko, fresko zein eraldatuta saltzeko orduan.
- ◆ Nekazal eta elikadura sektorea bultzatzea, aldi berean elikagaiak eraldatzeko industriarekin batera; honek guztiak Nafarroa orekatuagoa ahalbidetuko du, batez ere ekonomikoki.

Nazioarteko erreferentziak

Suitza

70. Hamarkadatik eta nekazaritza eta abeltzaintza apurka apurka desagertuz joan zelarik, erabakiak hartu zituen lehen sektorea babesteko, ez soilik ehun ekonomikoaren zati bat babesteko, baizik eta goi mailako helburuekin nekazal biztanleria mantentzeko eta sendotzeko lurraldea orekatzeko eta nekazal gunerako politikak sustatzeko eta horrek landa turismoaren hazkundea eragin du eta aberastu egin dira baztertuta geratu ahal ziren guneak. Aldi berean Elikaduraren Industria bultzatu zen eta Suitzan sendotu ziren eikadura enpresa handiak, Nestle enpresa den moduan.

Frantzia

Frantziako produktuen nazioarteko arrakasta handia, hau da, Bordeleko, Alsaziako, Behe Loirako Champagne-ko ardoen arrakasta handia erakundeek emandako babesari eta jatorri izendapenei zor zaie, bai eta zenbait hamarkadatan zehar aurrera eraman diren merkaturatze eta marketing politika bikainei ere.

Marketinaren gakoak produktuetan kalitate handia lortzeaz gainera, honakoak izan dira: etiketetan eta bildukietan kontu berezia jartzea eta ustiategiak indartzea.

Aldi berean, azpiegitura batzuk eratu dira, sortutako produktuak indartzen eta sustatzen laguntzen dutenak. Hori bereziki ardoaren kasuan gertatzen da. Izan ere, ardo-ustiategiak hotel xarmangarri, jatetxe, museo eta hitzaldi eta batzar toki bilakatu dira; eta horrekin, produkzio-jarduera bera dinamizatzeaz batera, kokatuta dauden eskualdeen garapen ekonomikoa lagundu dute (mahastigintza Bordele inguruetan, barazki eta fruta produkzioa Probertzan; gaztaren produkzioa herrialde osoan eta abar)

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA: Nekazal-elikadura sektorearen hazkunde jasagarria laguntzea.

1. Nekazal-elikadura sektorearen prestakuntza eta profesionalizazioa hobetzea eta gorenean hobetzea lehen sektorearen aukerak, nekazaritzan zein basozaintzan.
2. Mailarik gorenean nekazal azpi sektorearen potentzia garatzea, nekazal-elikadura industriaren hornitzaile gisa, bio-erregaiak produzitzeko eta biomasaren bidea argindarra sortzeko.
3. Elikagai ekologiko eta funtzionalen garapenaren alde egitea, exijentzia goreneko eta elikagaien kalitate irizpideekin.
4. Ingurumenarekin errespetua duten nekazal praktiken garapena sustatzea.
5. Lurraldeari lotutako enpresa bokazioak sustatzea eta ospe ona ematea.

HELBURUA : Balio erantsia sortzea bultzatzea Nekazal-elikadura sektorean.

6. Produkzio sektoreak elikadura kate mailekin negoziatzeko duen gaitasuna hobetzea (enpresa prestakuntza, elkarteak, merkatu leihakorrako aukeratzea eta abar)
7. Kanpo aldean Reyno Gourmet izenpeko Nafarroako produktuak sustatzea.
8. Nekazal-elikadura klusterra sortzea.

12- Herrialde garapen orekatu eta jasangarria

Gakoak

- ◆ Beharrezkoa da Nafarroako herri politiketan, bere lurralde zati handi baten “mendi izaera” barneratzea. Horrek ingurumenaren gaineko eta herrialde kudeaketaren inguruko irizpide bereziak suposatzen ditu, Nafarroa Atlantiko Pirinio eta gune Mediterraneoen arteko muga bioklimatikoa delako eta bere orografiatik dituen zailtasunengatik; baina garapen turistikorako eta herrialde kalitatearen inguruko ahalmen handiak suposatzen ditu.
- ◆ Lurraldearen Antolamendua era harmonikoan egin behar da eta Nafarroa osoa hartu behar da kontuan, zentro anitzeko garapena sortuta eta Iruñeko nagusitasunetik alde eginda, indar zentrifugo erraldoiarekin Nafarroaren gainerako Nafarroako lurraldea desertu bihurtzen du. Pirinioen inguruko arkoa (Errotik Isabaraino) zentzu horretan da Nafarroaren lurralde zatirik ahulena. Dimentsio demografiko baxuak beherako duen joerak eta biztanleriaren sakabanaketak lurralde zati hau toki kritikoan kokatzen dute jarduera ekonomikoa eta etorkizuna bermatzeko zerbitzu eskaria sortzeko. Eskualde honek duen mugaz gairikoz izateak bere garapenaren kontra egin du batzuetan eta orain dinamizatzeko faktore garrantzitsutzat erabili beharko litzateke.
- ◆ Nafarroa herrialdearen garapen orekatu eta jasangarria lortzeko, lurralde testuinguru hurbiletan integratu beharra dago, hau da, Euskal Autonomi Erkidegoa, Ebro ibaiaren bailara eta Pirinioetako ingurua. Komunikazio ardatzen garapena, baina batez ere, elkar trukaketarako sare kultural eta sozialak esparru hurbilekiko ezartzea funtsezkoa da mendebaldeko Pirineo inguruko indartsua eratzeko Europar herrialdeen mapan.
- ◆ Nafarroaren marka irudia garatzea. Esparru mugatu batean, ingurumen eta kultura aldetik baliotsuak diren paisaia mota ezberdinak biltzen ditu. “Kalitatezko herrialde berezia”.

Nazioarteko erreferentziak

Gune alpinoak

Gune alpinoak, hirigune/landa gune eta biztanleriadun mendi guneen arteko inbrikazio gradu handia dutelarik, Nafarroak aurrez aurre dituen erronkei aurre egin behar izan die: landa esparruko, azpiegitura esparruko eta hiri esparruko jardueren artean lurzoru eskasengatik leihakortasun handia, mendi izaeratik eratorritako ingurumen arriskuak, gizartearen eskari handia, bizi maila...

Gauza guzti hauek guztiek eratzten duten testuinguruak tamaina txikiko lurralde antolamendurako tresna eta metodologiak behar ditu, lurralde arkitekturaren diseinuan inplikaturako eragile ekonomiko, kultural eta ingurumenezko guztiak kontu handiz uztartzeko.

Gune alpinoen kasuan, sozietate hauek bide zati handia egin dute tresnen garapenean, martxan jarri baitziren 70. eta 80. hamarkadetan. Garapen politiken une garrantzitsuena suposatu zuten (bititoki eta turismo arlokoak) eta horietatik aurrera kontuan hartu ziren beharrezkoa zela antolamendu politikak lurralde txikia alferrik ez galtzeko eta paisaiaren banalizazioa ez gertatzeko.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA : Lurraldearen jasagarritasuna lagunduko duten azpiegiturak garatzea.

1. Garraio energetikorako azpiegiturak garatzea.
2. Trenbide eredia bultzatzea, merkantziak garraiatzeko eta AHT bultzatzeko, lehenetsi behar da euskal Y trenbidearekin eta Madril- Bartzelona ardatzarekin lotzea.
3. Aire bidezko lotura bermatzea europar plaza ekonomiko nagusiekin giza talentua bertan gera dadin.
4. Pirinioetako autobidea garatzea ipar-mendebaldeko gunearen garapenari laguntzeko eta jarduera ekonomikorako superfizieak sortzearen alde egin N1etik hurbil dagoen ardatzaren eta Irunekiko lotunetik hurbileko guneeetan.
5. Turismorako azpiegiturak garatzea Nafarroako iparraldearen aberastasun biologikoari eta paisaiari bere balorea emateko.

HELBURUA : Nafarroaren marka garatzea, gune berezia eta kalitatezko lurraldea delakoan.

6. Jarduera berezituak ezartzea Nafarroako lurraldea artikulatu ahal den gune ezberdinen arabera eta gune urbano eta nekazal guneen arteko oreka ezberdinen arabera: hirien inguruan dauden nekazal gunek, tarteko nekazal gunek , isolatutako gune ahulduak.
7. Neurri berezien bidez Pirinio inguruko eskualdeen garapena bultzatzea, mugaren inguruan izateagatik eta Pirinioetako bestelako guneen ondoan izateagatik dauden aukerak eta sinergiak aprobetxatuz.

13- Aldaketa klimatikoaren kontrako ekimena

Gakoak

- ◆ Nafarroako biztanleriaren erdia baino gehiago (%56) bizi da hiriguneetan eta beraz inguru hau da eguraldi aldaketaren kontrako borrokaren arduradunik garrantzitsuen. Ezinbesteko gertatzen da berehalako etorkizunean eragitea hirigintza eta eraikuntzaren garapen jasagarriaren bidez.
- ◆ Bereziki garrantzitsua da hau hirigune nagusienetan, Sakana aldean eta Nafarroa Atlantikoan. Nekazal urbanizazio fenomenoak ematen dira eta zaila da nekazal eta urbanoaren arteko muga argia ezartzea. Gune hauetan, nekazal arloa zaintzeko beharrezkoa da nekazal gune eta hiriguneen arteko harremana, nekazal jardueren eta haiekin lotutako paisaia, ingurumen, kultur eta gizarte baloreen mantentze orekatua bermatzeko; beti ere hirigunetik hurbil egoteak ematen dituen abantailak alde batera utzi gabe (merkatu hurbilak, zerbitzuen kalitatea eta abar)
- ◆ Ezin da eguraldiaren aldaketaren kontrako borrokarik egin, botere publikoek ez badituzte negutegi eragina duten gasen murrizketa sustatzeko ekimen eraginkorrak benetan sustatzen, eta hau sektore politika guztietatik abiatu beharra dago (nagusiki garraio, energia, industria, nekazaritza eta kontsumo sektoreetatik) .

Nazioarteko erreferentziak

Mexikok du munduaren beroketa globalari aurre egiteko neurri onenen klasifikazioa eta Klasifikazio horretan Alemania du soilik egoera hobean.

Autobus trantsitoaren sistema arinak negutegi eragina duten gasak murrizten ditu eta gainerako onurak ere baditu osasun eta ongi izate terminotan.

Kolonbia, Brasil, Txile edo Indonesia moduko bestelako herrialdeetan daude antzeko adibideak eta eragin positiboak zabaltzen dituzte orain garraio publikoko azpiegiturarik ez dagoen tokietan.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA : Eguraldiaren aldaketaren kontrako borroka sektore ekonomikoen planifikazioan eta I+G+Bn integratzea.

1. Nekazal-basogintza sektorea karbono-hobi gisa sendotzea: gutxienetan mantendu eta ahal den neurrian Nafarroako baso superfiziea handitzea eta CO2 xurgatze handiagoko laborantzak sustatzea (uhaza, brokolia eta zerba)
2. Enpresek Ingurumen Kudeatzerako Egiatzenak hartzea sustatzea (ISO 14001).
3. "Basogintza egiaztatze" protokoloak garatzea, egurraren produkzioa ingurumen jasangarri baldintzetan bermatzeko.
4. Energia berriztagarriak sustatzea.
5. Enpresei "ad hoc" zerga laguntasun eta pizgarriak emateko politikak ezartzea GEis isurketak murriztetik eratorritako kosteak arintzeko.

HELBURUA : Hiritargoa eguraldiaren kontrako borrokan sentsibilizatzea.

6. Nafarroan Eguraldiaren Aldaketari aurre egiteko Bulegoa sortzea hiritargoa eguraldiaren aldaketaz eta honen ondorioez sentsibilizatzeko.
7. Presidentearen menpeko Jasangarritasun Idazkaritza sortzea, aginte nahikoa duena eta jasangarritasun arloan zerikusia duten Nafarroako Gobernuako Saisetako jarduerak koordinatuko dituena.
8. Garraio publiko ez kutsakorren erabilpena sustatzea, autobus kopurua handitzea, maiztasuna handituta eta erabiltzaileentzako garraio ekonomikoa izan dadin.
9. Administrazio eta DGTren aldetik txirringaren erabilera sustatzea , arauak eta azpiegiturak ezartzea txirringa-garraioa hirietan eta inguruetan errazteko.

14- Aniztasun eta aberastasun kulturala garapen ekonomiko, sozial eta pertsonalerako

Gakoak

- ◆ Nafarroak errealitate geografiko anitza du eta inplikazioak ditu talde nortasun ezberdinen osaketan eta ondorioz hizkuntzan, kulturen eta harremanetan. Ezinbestekoa da nortasun balore ezberdinak bultzatzea lur honen aniztasun eta aberastasuna bereganatua.
- ◆ Kultura topagunea izan behar litzateke, ez gatazka politikoak konpontzeko gunea; lurralde egituratze eta kohesiorako tresna da, bereziki nekazal guneetan. Aukera handiak dituen elementua da bizitza kalitatea sortzeko, aisialdirako, gizarteko elementu ezberdinen artean harreman sozialerako eta komunikaziorako aukerak emateko.
- ◆ Bizi garen munduan mendebaldeko kultura urbanoak leku guztietara iristen dira eta komunikabideen bidez bihurtzen dira jarraitu beharreko eredu. Nafarroako biztanleriaren zati handi bat kultura urbano horietatik bere talde nortasunari ekarpenen bat egingo dion bestelako kultur manifestaziotik baino hurbilago dago.
- ◆ Beste alde batetik, kultura hiritargoaren eskubide gisa egituratzen da , eta hala ezarrita dago Giza Eskubideen Adierazpenean. Ondorioz, gobernuen ardurakoa da hiritargoa kulturen garatzen laguntzea eta ahalbidetzea. Horretarako ezinbestekoa da erakunde mailan Kulturaren tratamendu integrala.
- ◆ Nafarroako kultur politika instituzionala duela 30 urte diseinatutako egitasmoetan oinarrituta garatzen da eta hauek ez datoz bat oraingo errealitate sozial eta kulturalarekin. Apur bat pentsatu behar da eta kultur politika eta gestioa antolatu eta planifikatu behar da.
- ◆ Nafarroako kultur sektoreak oinarritzko gabezi handiak ditu (egiturarik eza, profesionalizaziorik eza eta babes instituzionalik eza...) ; ondorioz kultur eskaintza eskasa ematen da eta ezinbesteko gertatzen da sektorearen normalizazioa kultur politika koherentearen bidez garatuta eta inplementazio egokirako beharrezko tresnak erabiltzea.
- ◆ Kulturaren kudeatze instituzionalaren ordenamendu eta egituratzerik eza, aurretiaz diseinatutako egitasmo estrategikoarekin bat eginik, oztoporik handiena da garapen ekonomiko, sozial eta pertsonala eta aberastasunaren sorkuntza ahalbidetzeko kultur ehuna sortzeko orduan. Nafarroako kultur ehunak biziraupena baino ezin du espero.
- ◆ Aldaketa handiak ematen diren unea bizi dugu, industria osteko gizarte eredutik igarotzen ari gara nazioarteko eredu batetarantz. Jarrera ekintzailea behar da, borondatea eta gaitasun politikoak atzean kulturaren kontzeptu zaharkitua uzteko eta XXI. Mendeko Kulturari aurre egiteko. Gardentasun handiagoa behar da eta parte hartzea sustatu kultura kudeatzeko orduan.

Nazioarteko erreferentziak

New York

New York hiriak Kultura Gaietarako Saila dauka hirian ematen den bizitza kultural bizia babesteko eta garatzeko. Helburuetako bat da irabaz asmorik gabeko erakundeek hiriko auzo guztietan antolatzen dituzten jarduerak kulturen finantzaketa bermatzea.

Kultura aberastasun iturria da hirian. New York hirian dagoen eskaintza kulturala mundu osoko handienetakoa da, interes guztietako jarduerak antolatzen direlarik.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELURUA: Nafarroako kulturari tratamendu integrala ematea .

1. Nafarroako Gobernuari kudeatzea arintzeko eta erabakiak hartzeko tresna administratiboa ematea; zuzenbide pribatuaren arabera arautua, profesionalak zuzendua planifikaziozko irizpideen arabera, alderdikierietaz kanpo eta kultur ekintza guztia koordinatzeko.
2. Kutur eragileekin batera eta alderdi politikoen artean adostuta, Nafarroarako Kultur Plan handia egitea kalitatezko kudeatze kulturalerako zuzentarauak ezartzeko eta epe ertain eta luzera Nafarroan programazio berritzailea gauzatzeko.
3. Kultuaren planifikazio estrategikoaren markoan, erregioko administrazioaren egitekoa eta eskumenak argitzea, toki erakundeei dagozkien egiteko eta eskumenak eta egitekoak eta ekimen pribatuei lankidetzeta eta laguntasuna emateko moduak.
4. Kultur egitasmoak diruz laguntzeko politikak berriz planteatzea. Gauza zehatzetarako laguntasunak egitasmo-kontratuekin ordezkatzeta, neurrigarriak eta egiaztagarriak diren helburuei lotuak eta diru publikoarekiko ardurak eskatuta erdietsitako lorpenen arabera (abonatutako pertsona kopurua, museoen kasuan bisitari kopurua, ekimen didaktiko kopurua...) Kulturaren ere konkurrentzia leihakorraren alde egitea.
5. B+G+I kontzeptuan inbertitzea eta kultur esparruan ikusentzulegoa prestatzea.
6. Kulturaren planifikazio estrategikoaren markoan, prestakuntzatik eta hezkuntzatik lan egitea arte diziplina ezberdinetako ikus-entzuleak sortzeko orduan eta hiritarren parte hartzea bultzatu eta lagundu kultur jarduera eta programazioan.
7. Gardentasun eta parte hartze handiagoa kudeatze kulturallean.

HELBURUA: Kultura kanpora zabaltzea .

9. Nafarroako sortzaile kulturalak erregio , nazio eta nazioarte mailako kultur sareetan parte har ditzaten laguntzea, zabaltze eta hedatzeari emandako laguntasunen bidez.

HELBURUA: Jarduera arautzea eta egokitzea Nafarroako Antzerki Artean.

10. Egitasmo estrategikoa egitea Nafarroako Antzerki Arteen sektorearen antolamendurako ildoak, bere lehiakortasuna, sormena eta kalitatea handituz eta Komunikazio eta Marketing Egitasmoaren bidez bere proiektzioa bultzatuz. Egitasmo Estrategiko honek sektoreari emandako laguntasunen kudeatze koordinatu eta zentralizatu arautuko du. (antzeppen muntaketak, Udaletarako ezarri den programazioa...).
11. Nafarroako programazio eta eskaintza kulturalaren kalitate eta kantitatea hobetzeko ekimen argiak ezartzea bere lurralde osoan, ikusentzuleri berriak sortzea bultzatuta.
12. Antzerki Arteen sektorea antolatzea, bultzatzea eta proiektatzea, toki produkzioaren garapena zaintzeko eta ahalbidetzeko.
13. Dauden antzez guneetan kultur kudeatzaile profesionalak jartzea programazioari jarraipena ematea ikusentzuleriak sortzea berma dezaten.

HELBURUA: Sektorea antolatzea eta gizartean ikusgarri egitea Nafarroako Arte Garaikidea.

14. Erakunde eta Arte Garaikidearen sektorearen artean prozesu parte hartzaile baten markoan elkarrizketa ireki eta publikoa eratzea, Egitasmoa Estrategikoa egiteko eta esparru honetako politikak garatzeko.
15. Uharteko Arte Garaikidearen etorkizun eta helburuak zehaztea, ondoren kudeatze tresna egokienak ezartzeko.
16. Arte Garaikidea erakusteko erakusketa egitaraua egitea, lengoai aurrerakoi eta ausartak bereganatzen dituzten eta gustuen kontserbadurismoa gainditzen dituzten artista gazteak sustatuta.
17. Nafarroa osora iritsiko diren prestakuntza egitasmoak eta sormena laguntzeko egitasmoak egitea.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA: Literatura sustatzea.

18. Literatura eta sorkuntza literarioa sustatzeko baliabide gehiagotan inbertitzea, baliabide gehiago ahalbidetzea bereziki idazle gazteei begira, euren lanak editatzeko aukera izan dezaten (bereziki aipagarria da nafar emakumezkoen sorta nabarmena egile berrien artean; kalitate handiko egileak dira eta euren lanek argia ikus dezaten ahaleginak merezi du).
19. Tokiko sorkuntza literarioa hedatzea eta ezagutzera ematea jarduera ezberdinen bidez eta Nafarroako Liburutegi Sarearen bidez.

HELBURUA: Arte ikusgarriak sustatzea.

20. Arte ikusgarriak dira oraingo garaiko sorkuntzazko dinamismora ondoen egokitzen diren adierazpen artistikoak. Sustatzea derrigorra da botere publikoen aldetik eta inolako bazterketarik gabe. Dena sartzen da, komiki batetik "performances" aurreratuenetara.
21. Arte ikusgarriak sortzen laguntzeko politikak indartzea.
22. Artista, zinegile, argazkilari eta sortzaile berrien lanak hedatzea.
23. Oraingo bitarteko informatikoen ikaskuntza eta erabilpena sustatzea, adierazpen artistiko eta kulturalerako bitartekoak direlakoan.

HELBURUA: Liburutegia hiritargoarengana hurbiltzea eta presentzia handiagoa izatea.

24. Nafarroako Liburutegi Sarearen kontzeptua eta zerbitzu kartera modernizatu behar da. Oraingo informazio gizartean ikusi dugu aldatu egin dela liburutegiek bete izan duten egitekoa. Gero eta txikiagoa izango da mailegu zerbitzua eta ez da izango testuak eta informazioa eskuratzeko bidea, orokortu egingo delako teknologia berrien zabalkundea. Beharrezkoa da XXI. Mendeko liburutegien kontzeptua eta funtzioak berriro zehaztea.
25. Garai berrietara egokitze hau ezin da planteatu langileriarekin kontatu gabe, Nafarroako Liburutegi Sistemaren oinarritzko zutabea baita. Ezinbestekoa aintzat hartzea eta balorea ematea langileriaren maila laborala. Hobetu beharrezkoa da Nafarroako Liburutegi sarearen giza baliabideen kudeatzea, Urteko prestakuntza jardunaldiak berreskuratu behar dira eta XXI. Mendeko Liburutegiei eskatzen zaizkien funtzioetarako profila zehaztea. Profil dinamiko eta sortzailea behar da sinergiak sortzeko eta jarduerak diseinatzeko.
26. Arintasun handiagoa Liburutegiak Garatzeko Osoko Plana martxan jartzeko orduan.
27. Inplikaturako erakundeen arteko lankidetzaren hobetzea, hau da, Nafarroako gobernua, toki korporazioak, bestelako erakundeak eta liburutegiak.
28. Liburutegiak bizikidetzarako, gizarte kohesiorako, kulturen arteko trukaketarako toki gisa sustatzea programazio erakargarri baten bidez, hiritargoaren bizitzan liburutegien presentzia handituz.
29. Nafarroako Liburutegi eta Filmoteka berrietan Liburutegi Sarearen funtzionamendu eta helburuak egokitzea.
30. Plataforma teknologikoa sortzearen alde egitea (liburutegi digitala) eta ikus-entzunezko ondarea eta dokumentalak hartuko dituen.
31. Teknologia berrien eta liburu digitalaren eskutik etorriko diren aldaketetarako prestatzea.

15- Ondarea eta kultur nortasuna

Gakoak

- ◆ Nafarroa herrialde anitza da arlo guztietan eta errealitate honek markatzen du nortasun kulturala eta beraz geografia osoan ematen diren kultur manifestazioak . Nafarroak ondare kolektiboa du , material zein inmateriala eta oso aberats eta anitza da. Ondare inmaterialaren barruan euskara azpimarratu behar da bere balore handia kontuan hartuta. Nafarroan agintaritze publikoak euskara baloratu behar du , gure kultura aberastasunaren folkloreak adierazle izateko harago, eskubide guztiak eta gizarteak egiten duen eskariari erantzunez.
- ◆ Talde ondarea izango da nortasun partekatu anitzaren oinarria, gizarte kohesioaren eta demokraziaren motorea eta eleaniztasunean oinarrituta (baina euskarari zaintza berezia emanda), balore berrietan, talde oroimenaren sustapenean, kultur ondarearen zabaltze eta sentsibilizazioan eta toki nortasun anitzen barneratzean.
- ◆ Ezinbestekoa da topaketarako puntu handiagoak aurkitzea eta balore eta jardura demokratikoetan sakontzea. Kultur protagonismoa hiritargoari dagokio eta antolatutako gizarte zibilari.
- ◆ Talde ondarea, batzen gaituena eta beste lurraldeengandik banatzen gaituena. Horixe izan behar da garapen ekonomikorako motorea. Horretarako ezinbestekoa da ondare horri balorea ematea eta hori bakarri ulertuko da nortasun aniztasuna onartuta eta aintzat hartuta.
- ◆ Euskal Autonomi Erkidegoarekin eta Iparraldearekin ondare kulturala eta hizkuntza partekatzeak lurralde horiekin lankidetzaz harremanak sendotzera eramane behar gaitu arlo kulturean eta hizkuntzaren alorrean.
- ◆ Ondare materialari dagokionez, azken urteotan era publiko eta pribatuan hainbat museo etnografiko eta espezializatu sustatu dira. Eta horien bidez gorde ahal izan da ondare materialaren zati garrantzitsua. Nafarroak gaur maila turistikoan eskaini ahal du bere onare materialaren zati garrantzitsua , egiteko asko dagoen arren.
- ◆ Ondare ukiezina eta beronen berreskuratzea da Nafarroak gainditu behar duen gaia. Azken hamarkadetan, batez ere industrializazioak eta globalizazioak eragindako exodoagatik, desagertu eta galdu egin dira bizitzeko modu batzuk, tradizioak eta gure lurraldean hainbat mendetan bizi izan diren hizkuntza adierazpenak. Erronkariko euskara, aezkoarra... euskalki hauek desagertzeko bidean daude eta premia handia da berreskuratzea.
- ◆ Eduki eta balore ukiezinen sorkuntza industria bultzatu behar da. Horretarako ondarea sortzeko eta gozatzeko azpiegiturak sortu behar dira, ondarea mantentzeko, defendatzeko eta zabaltzeko zerga politiko bereziak egin behar dira, ondarea eta kultura sarean laguntzeko eta babesteko erakundeak koordinatzea eta lankidetzaz publiko-pribatua sendotzea. Sorkuntzarako eta kultura mantentzeko eta talde ondarea zabaltzeko enpresek beren balorea izan behar dute, behar besteko tamaina hartu eta kokapena hobetu behar dute nazioarteko hedatzea barnean hartuko duten marketing estrategien bidez.

Nazioarteko erreferentziak

Frantzia, Italia eta Erresuma Batua: identitatea eta ondarea motor ekonomiko gisa

Hiru herrialdeek apustua egin dute beren kulturari balioa emateko eta sektore hori ekonomiaren oinarrietako bat bihurtzeko. Kultura baliagarri izan zaie “herrialde marka” bat sortzeko, mundu osoan erraz identifika daitekeena.

Ondarea zaintzea Norvegian Norvegia herrialde txikia da, gutxi gora behera bost milioi inguruko biztanleria dauka. Kultura aniztasuna azken urte hauetan loratu da eta politika publikoen xedea da talde etniko ezberdinak integratzea eta tolerantzia sustatzea.

Norvegiako kultur politikaren beste ezaugarrietako bat da kanpora zabalduta dagoela. Nazioarteko mugigarritasuneko programek artisten eta kulturkudeatzaileen trukea sustatzen dute, berariaz Europa Iparraldeko kontseiluaren esparruan (Europa iparraldeko bost herrialdeen- Islandia, Danimarka, Suedia, Finlandia

eta Novegia-eta Feroe, Groenlandia eta Aland uharteetako lurralde autonomoen arteko lankidetzarako parlamentuen arteko antolaketa) Horrelako programek kultur dinamismo handia ahalbidetzen dute.

UNESCO

Kultura da herri baten bizimodua, bere ohiturak, tradizioak, arauak, jakinduriak eta adierazpen artistikoak bateratzen dituen.

Kultura tradizioetatik sortua da eta tradizioak sortzen ditu: jatorri antzinakoa duen giza taldearen berezko jokoera eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen dena.

Biek sortzen dute **identitate soziokulturalaren** sentsazioa: pertsona ezberdina izatearen sentsazio edo sentipen intimoa, nortasun ,duintasun eta askatasun propioarekin.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

1. Partekatutako ondare kolektiboa sendotzea nortasuna, gizarte kohesioa eta demokrazia indartuko duena. Nafarroak aurrerako urratsak eman behar ditu talde nortasun guztiek integratzeko eta egokitzeko xedez.
2. Baloreak sustatzea nortasunaren oinarri diren aldetik (solidariorotasuna, errespetua, tolerantzia, lankidetzak) eta talde konpromisoa sustatzea nortasun kontzeptuaren gizarte dimentsioa sendotzeko eta Nafarroara iritsi berriak diren pertsonen gure errealitate kultural eta hizkuntzaren berri ematea.
3. IKTak erabiltzea euskal-nafar esparru kulturala eguneratzeko eta garatzeko.
4. Lan taldea eta sare-lana sustatzea: alde batetik kultur instituzioen, ondare-zaintzaileen, artisten, sorkuntza eta zaintza artistikoaren profesionalen arteko koordinazioa sendotzea, eta beste alde batetik museoaren arteko kultur sareak sortzea, talde ondarearekin erlazionaturako kultur zentroak barne eta kanpo proiektu handiagoa ahalbidetuko dutenak.
5. Ondarea digitalizatzea sustatzea eta Sarean eskaintzea, baliabide, ondare, hizkuntza, kultura eta etnografia, historia, heraldika eta bestelakoekin datu basea egitea eta ondare eta kultura hori Sarean eskaintzea.
6. Galdutako ondare inmateriala berreskuratzea helburu duten ekimenak bultzatzea, bereziki desagertu diren euskalkiak berreskuratzea lehenetsiz.
7. Nafarroari Museo Etnografiko garrantzitsua ematea erreferentea izan dadin eta Nafarroaren ondarearen aberastasuna eta aniztasuna gorde eta zabal dezan. Museo Etnografikoaren kokapena ezartzea eta behar eta merezi duen bultzada ematea.
8. Museoaren gaineko Foru Legea eta Ondarearen gaineko Foru Legearen inplementazio eta garapenaren dinamismo eta arintasuna.
9. IKTen gaitasunak eta globalizazioa aprobetxatzea, gure ondarea digitalizatzea eta Sarearen bidez eskaintzea.
10. Gure kultur erreferenteen, gure ondarearen eta kultura nortasunaren kanporako proiektuak bultzatzea. Talde ondarea komunikaziorako tresna gisa, barnean eta nazioartean. Aliantzak kanpo aldean bilatu behar dira eta jarduera publiko eta pribatuaren arteko koordinazioa egitea.

16- Nafarroa, Euskara lurraldea

Gakoak

- ◆ Gaur egun 200 estatu inguru daude eta uste da hizkuntza biziak 6000 inguru direla, eta horien erdia desagertzeko prozesuan daudela. Gero eta joera handiagoa daukagu gaitasun eleaniztun eta kultur aniztun handiagoak bilatzeko, zeren eta eleaniztasuna baliagarria baita beste kultura batzuk ezagutzeko eta aniztasuna errespetatzeko, gizarte kohesiorako eta bakerako. Hizkuntza erkidegoaren identitate-zeinu garrantzitsuena da, gizateriaren ondare garrantzitsuenetako bat eta mundua ulertzeko modu desberdinen arrazoia.
- ◆ Hizkuntza aniztasuna zaintzeko talde kontzientzia lortu behar da. Bermatu behar da lurraldeko bi hizkuntzetan emandako zerbitzu orekatua eta hori izan beharko litzateke hizkuntza politika ororen oinarritzko helburua.
- ◆ Euskara osagai nagusia da Nafarroako hirirangoaren zati baten talde nortasunean, eta aldi berean ukapenak berak ordezkari politiko nagusia duen beste sektorea batzen du bere inguruan. Nafarroako elite kultural, ekonomiko eta politikoei euskararengandiko desafektio sakona erakusten dute.
- ◆ Nafarroako bi hizkuntzak oso egoera desorekatuan daude ezagutza eta gizarte erabilpenari dagokionez. Azken hamarkada hauetan Nafarroako Foru Administrazioak hizkuntza bien arteko parekotasuna bilatu beharrean, euskara eta gaztelaniari tratu legal desorekatuan oinarritutako hizkuntza politika egin izan du, hizkuntza-mugak sortu ditu bere lurraldean eta hizkuntza eskubide ezberdinak aitortu ditu, euskaraz mintzatzen diren pertsonen kalte eginik Nafarroan bete-betean urratzen dira Gutxitutako Hizkuntzen Europar Eskutitzak ematen dituen gomendioak.
- ◆ Gaur egun euskara Euskal Herri osoan garatu beharra dago. Funtsezkoa da Euskal Herri osoko administrazioak, herrialde ezberdinetako pertsonak batzea eta koordinatzea euskararen alde egiteko.
- ◆ Hezkuntza lan tresna funtsezkoa da euskara ikastolen bidez eta orokorrean D ereduaren bidez bultzatzeko.
- ◆ Hizkuntza batek komunikabideak behar ditu bizirik irauteko, hedatzeko eta garatzeko. Komunikabideetan erabiltzea lehentasuna da, erabilera normalizatzearekin batera, hizkuntza horretan informazio jaso nahi duten hiritarren hizkuntza eskubideak bermatuz. Foru Administrazioak ahal dituen oztopo guztiak jarri ditu esparru honetan.
- ◆ Teknologia berriak dira gazteen aisialdiaren ardatz nagusia eta hauek ere badira bide kulturalak. Zentzu honetan aprobetxatu behar da IKTeK euskal kultura eta euskara zabaltzeko duten ahalmena.
- ◆ Era irmoan bete behar dira Gutxitutako Hizkuntzen Europar Kartaren inguru egin diren informe guztiak Nafarroarako proposatzen dituzten gomendio guztiak (gaur egun Nafarroako Gobernuak sistematikoki urratzen ditu).

Nazioarteko erreferentziak

Québec

Laurogeigarren hamarkadaren erdialdean Estatu Batuetan sortu zen “bizitoki egokia” kontzeptua Kanadara zabaldu zen luzapen kualitatibo gisa eta “diskriminazio ezaren” zentzu berarekin. Kontzeptu honek esan nahi du demokrazia ez dela soilik botoa emateko kontzeptuarekin lotzen, baizik eta demokraziaren ideiak sistema juridiko-politiko osoa berbiderratu behar duela eta hasita bere legezotasunaren alderdi oinarritukoekin, hau da, pertsona guztien giza eskubideak haintzat hartuta eta bermatuta.

Bizitoki egokiak garapen handiena izan du Quebec probintzian. Bertako Pertsonen eskubideen Eskubideen Kartak beren 43. Artikuluan ezartzen du kultura eta hizkuntza gutxituak mantendu behar direla.

Heziketa eleanitza, Catalunya eta Hungria Papúa Guinea Berrikoa, Guatemalako edo Eritrekoa bezalako irakaskuntza eredu eleanitzek ongi erakusten dute hizkuntza aniztutan hezteko posiblea izateaz gainera -baita erkidego txikietan ere- hezkuntzarako aurrekontuak errespetatuz ere egin daitekeela, behin programak abian direnean. Eleaniztasunean oinarritutako hezkuntza lagungarri gertatzen da munduko Eleaniztasuna zaintzeko eta berekin ekartzen du hitzunen beren hizkuntzen balioa aitortzea eta haien mundua modu ezberdinetara ikusteko eta, horrenbestez, egokitzeko eta ikasteko gaitasun handiagoa izateko. Horrenbestez, kulturaren zaintzea indartzen du, ekonomikoki bideragarria da eta emaitza didaktiko oso onuragarriak lortzen ditu.

“**Voluntaris per la llengua**” proiektuan etorkinen eta catalá hiztunen arteko bikote linguistikoak osatzen dira. Catalunyako Generalitateko hizkuntza normalizazioko departamentuaren ekimen bat da. Etorkinen pertenezia-borondatea sustatu eta haien identitatea sendotzen du; ikasteko motibazioa sortzen du eta batasun emozionalerako pizgarria da; gizarteratzea errazten du; ikasgelako lana kalean osatzen du; eta hizkuntzaren erabilera soziala bultzatzen du. Proiektuaren oinarria etorri berrien erantzukizuna ez ezik, haiei abegi egiten dieten herritarrena ere bada. Etorkinen gizarteratzea guztion konpromisioa da.

“**Hungariako Asteburuko eskolak**” hungariarren erkidegoak Australian aurrera eramane duen neurri bat da, beren kultura zaintze aldera. Eredu horren arabera, erkidego batek bere egiten du adituek babestutako ekimen baten konpromisioa.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA: Euskal hizkuntzaren normalizazioa sustatuko duen hizkuntza politika ezartzea Erregioetako edo Gutxitutako Hizkuntzen inguruko Europar Gutunaren printzipioaren arabera.

1. Nafarroako hizkuntza erkidego biak berdintzea: Nafarroako bi hizkuntzek izan behar dute legezko estatus beera. Euskarari ematea gaztelerak duen estatus bera, hau da, Nafarroa osoan hizkuntza ofizialtzat hartzea, hori da hiritargo osoan berdintasuna bermatzeko lehen baldintza. Hizkuntza politikak pertsona euskadunen kontrako diskriminazioa zuzendu beharko luke, oraingo legeriak halakoa aurreikusi arren, hau da, LORAFNA legearen 9 artikulua.
2. Hiritargoari aukera ematea Nafarroako hizkuntza bat zein beste erabiltzeko aukera eta Administrazioa derrigorra ezartzea borondate hori eskubide gisa onar dezan.
3. Nafarroako pertsona guztien hizkuntza eskubideak sustatzea, euskal hiztunak zein erdal hiztunak izanik eta Nafarroan kokatuta dauden administrazio guztien aldetik.
4. Historikoki gutxitutako eta legez zapalduetako hizkuntzaren aldeko jarduera positiboa sustatzea: euskara gazteleraren parean egongo da urteetan garatutako politika diskriminatzaileek eragindako gabeziak zuzentzen direnean.
5. Malgutasuna sustatzea Nafarroa osoan hizkuntza politika guztia aplikatzeko orduan eta aplikazio graduatuak ahalbidetuta. Gutxieneko batzuk ezarri behar dira Erkidego osorako hiritargoaren hizkuntza eskubideak errespetatzeko eta egoera soziolinguistiko bakoitzera egokitutako hizkuntza politika ezartzea. Toki erakundeek funtzio garrantzitsua dute eta protagonismoa izan behar dute hizkuntza politika horren gradu eta mailak zehazteko orduan.
6. Ofizialtasunari lotutako neurrien inplementazioan progesibotasuna ezatzea, errealitate soziolinguistikoari gertakari dinamikoa den aldetik arreta eginez.
7. Zeharkakotasuna aplikatzea, Erkidegoko hizkuntzei emango zaion tratua sail administratibotik harago doalako eta balore eta irizpide transbertsala, zeharkako, izan behar delako jarduera politiko osoan eragina izango duena.
8. Hizkuntza politika aroan akordiorik zabalena behin betiko sendotzea, euskara eta gizarte kohesioa lotuko dituen itun berriztatua lortze aldera.

HELBURUA: euskara komunikabide eta teknologia berrien bidez sustatzea.

9. Euskal kulturari lotutako arloak lantzen dituzten edo komunikazioan euskara erabiltzen duten medioei laguntasuna ematea.
10. EITBrekin Lankidetzaren Hitzarmena ezartzea Nafarroan irrati eta telebista kanal guztiak emititu ahal izateko.
11. Bereziki, hezkuntza, medioen funtzionamendu, jarduera kultural eta era horretako esparruetan aukerak sortzea euskara egoera ahulean izan daitekeen Nafarroako guneeetan.
12. Euskal kultur kontsumoa sustatzea.
13. Hizkuntza teknologiak erabiltzea eta orokorrean informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea euskararen garapenerako, Sarean edukiak sortzea ea komunikazio sare birtualak era egokian erabiltzea, euskararen normalizazioaren eta erabiltzeko aukeren onerako. Euskaak informazio eta komunikazio teknologiak erabili behar ditu hizkuntza gisa dagokion garapen osoa erdiesteko ezinbesteko baldintza gisa.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

HELBURUA : Euskara hezkuntzaren bidez sustatzea.

14. Ikastolen alde egitea eta bereziki D ereduaren alde, erakutsi behar da hori dela eleaniztasuna bermatzen duen eredu bakarra.
15. Euskara ohiko hizkuntza den guneak zaintzea, indartzea eta hedatzea, euskararen transmisioa bermatzeko eta gizarte erreferentziako izaera sendotzeko. Azken finean, helburua ez da soilik euskararen ezagutza hedatzea, baizik eta euskaldunak produzitzea.
16. Familia barruko trantsizioa bermatzea, bereziki gazteri elebidunari arreta emanda eta 25 urte barru hogeita hamar urte inguruan izango delarik erabil dezan euskara familia hizkuntza gisa.

HELBURUA : euskararen aberastasunaren inguruko irudi baikorra hiritargoan zabaltzea

17. Euskal komunikabideak laguntzea.
18. Euskara erakargarri egitea eta era egokian hedatzea: euskarak unibertso kopuru handia du eta aukera badu barnean euskarara datozenen unibertsoak hartzeko. Euskararen unibertsoa zabaltzen dugun irudiak ematen duena baino anitzagoa da eta are anitzago egin behar dugu, gizartean dagoen aniztasun mailara iritsiko delarik.
19. Euskararen ospe ona sendotzea, argi eta garbi, kultura eta komunikazio mailako lorpenak hedatuta eta bestetik praktikan adierazita eta diskurtsoan sartuta euskara Nafarroaren kohesiorako osagaia dela.
20. Marketing politika egokia egitea, euskara gizartean sustatzeko eta bereziki erdal komunikabideetan. Behar besteko ahaleginak egitea euskararen presentzia IKTetan handitzeko eta gaztelera hiztunengana iristeko, besteak beste gaztelerazko komunikabideetan oihartzun txikia dugulako.
21. Biztanleria euskalduna sendotzea, euskara erabiltzeko sare presentzial eta birtualak hedatuta eta sendotuta.
22. Pertsona adin nagusien artean euskara sustatzea eta indartzea eta gutxieneko helburu gisa elebitasun pasiboa lortzea.
23. Euskara eta bere unibertsoak etorkinengana hurbiltzea, integrazio zabal eta aberasgarriak errazteko eta euskara demografikoki dinamikoak diren esparruetara hurbiltzea.
24. Euskara bistaratzea nafar guztien ondarea den aldetik eta kontuan hartu gabe pertsona bakoitzaren hizkuntza nagusia; horrela euskalduna den oro (musika, literatura balore kulturalak) Nafarroako gizartean sartuko da (ez guztiz hizkuntzaren aldetik, baina bai kultura aldetik), biztanleri erdaldunean barne.

17- Aisialdirako esparru berriak

Gakoak

- ◆ “Aisiaren zibilizazio”rako joera hartu dugu, aisiaren inguruan egiten dugun balorazioagatik baina baita bere garrantzi ekonomikoagatik; herrialde garatuetan BPGren % 20 baino altuagoa izan daiteke.
- ◆ Aisia, talde jarduera izan daitekeen arren eta gizarte esparruetan garatzen den arren, esperientzia indibiduala da eta pertsonaren errealizatorako. Aldi berean, aisiak norbanakoa eta taldea eraldatzeko gaitasuna du.
- ◆ Aisia edo denbora librea lurralde propioa da eta askatasun esparrua, pertsonak bilatzen eta nahi duten jarduera delako eta aske sentitzen dira beren denbora horretan erabiltzea.
- ◆ Aisialdiaren kontsumo handia dago, baina batzuetan kontsumoarekin berarekin nahastu da eta honek aisiaren merkantilizatora eramaten gaitu.
- ◆ Aisia eskatzen duten taldeak daude, gazteria besteak beste; baina beste talde batzuk daude garrantzia irabazi dutenak, hau da, familiak eta adinekoak. Azken hauen kasuan garrantzizkoa da zahartze aktiboa sustatzea eta horretarako aisia bide aparta izan daiteke.
- ◆ Kirolaren praktika eta jarraipena ere bada aisialdi elementua suposatzen duten gozatzeko pertsonalagatik; aldi berean kirola praktikatzeko denean, onura argiak ekartzen ditu norberaren osasunerako eta ongizaterako.
- ◆ Nafarroan gabezia handia dago aisialdi eta jardueretako esparruen alorrean; honek suposatzen du hazkunde ekonomikorako aukera handiak daudelako. Aisia gizarte modernoetan sektore ekonomiko berrietarako garapen esparrua da, besteak beste IKTak, nanozientziak, turismo kulturala eta nekazaritza.
- ◆ Azken bi hamarkada bioteknologiaren merkatal zentro handiak jarri eta zabaldu dira eta gero eta gehiago dira Nafarroako familiek asteburuetarako dituzten aisialdi alternatibak. 80. hamarkadan etorri zen amerikar eredua da eta merkatal planifikaziotik baino, lurzorua sustatzeko irizpideetatik dator. Mundu txikiak dira eta elementu ikusgarri eta ikonografikoen bidez fikziozko unibertso erakargarriak antolatzen dira. Eredua hau mehatxua da kontsumoaren inguruko aisialdia sustatzen delako; topagunea hirigunetik periferiarantz eramaten da eta hiriek erakartzeko gaitasuna eta hiriguneak izan duen aisialdi erreferentzia galtzen dute. Aisialdi gune hauek dakartzaten kultur eta nortasun erreferenteek ez dute zerikusirik bertako erreferente kulturekin.
- ◆ Sorkuntza industrietan bereziki Aisialdi oso lotuta dauden kultur industrietan aberastasun ekonomikoa sortzeko marko berria osatzen dute eta modernotasun eta tolerantzia irudia sortzea eta hedatzea ahalbidetzen dute. Esparru berritzaile honetan eta bestelakoetan lan egiten duten pertsonak kalitatezko kultur eta aisialdi eskaintza eskatzen dute Nafarroara etortzeko eta bertan geratzeko orduan.
- ◆ Aisialdirako inguru egokia garatzeak azpiegitura fisikoak sortzea eskatzen du aisialdia bizitzeko moduekin erlazionaturako jarduerak bertan bilduko direlarik (parke tematikoak, musika, antzerkia, kirola, lorategiak, turismo azpiegiturak eta abar.)

Nazioarteko erreferentziak

Melbourne, Australia

Melbourne da Australiako hiri lorategia. Hirian parke eta lorategi ugari daude, hauetako asko Finantza Barrutitik hurbil, oinezkoentzako bideak eta etorbideak arbolez jantziak.

Amerikako Estatu Batuak

AEBetan garatu izan da zinemaren inguruko aisialdi industria handia; parkeak eta gune publiko ugari daude hiritarren eskari horri erantzuteko. Aisialdiarekin erlazionaturako jarduerak, turismoa barne, BPGren % 25 hartzen dute.

Frantzia

Honezkerok frogatu izan da Frantzian periferian diren merkatal gune handiek eragin ezkorra izan dutela; 80. hamarkadan aise handitu zen gisa honetako guneen kopurua eta horrek hirietako merkataritzan eragina izan du, aisiarako gune gisa erabat deprimitu baitira hiri askotako erdialdeak. Administrazioek ahalegin berezia egin dute, esaterako, Bordelen eta Baionan, bertako zentro historikoak biziberritzearen alde. Europa mailan marko komertzial hau kolokan jarri da, jasangarritasunaren kontrako delakoan.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

1. Aisialdirako jarduera berriak sustatzea jarduera kultural eta musikalaren bidez, eskaintza, gune eta aisialdi parke berriak sortuta .
2. Familientzako aisialdirako guneak bultzatzea, familia uztartzeko elementu gisa eta elkarrekin jarduerak ahalbidetzeko gune gisa, ordutegiak familien beharrianetara egokitu eta familientzako tarifak eskaini.
3. Hirigintza diseinuetan gune ireki eta zabalak aurreikustea, aisialdi eta kirol jarduerak egiteko familia eta talde giroan.
4. Garraio publikoa berriaz antolatzea, kirol eta aisialdi gune nagusietarako iresgarritasuna errazteko
5. Biztanleriaren gehiengoan kirol praktika orokortzea eta berriazko azpiegiturak eta guneak eskaintzea.
6. Hurbileko erregioekin, lotura egonkor eta hurbilak ezartzea, bereziki EAE eta Akitaniarekin, kirol,kultura eta aisialdirako eskaintza dinamiko eta lehiakorra sortzeko kanpoko pertsonak egoiliar gisa gera daitezten lurraldean.
7. Nafarroa eta Iruñearen irudi berria sortzea eta hedatzea, gune moderno eta toleranteen erreferente gisa, gune kontserbadore eta ireki gabeak izan beharrean.
8. Landa turismoaren eta turismo kulturalaren garapena bultzatzea.

18- Erakundetze partekatua

Gakoak

- ◆ EAJ-PNVk bere izate politikoaren oinarritzat dauka euskal lurralde guztiak eta berdintasunean konfederazioan batzeko euskal aberri proiektua.
- ◆ Euskal Herriaren osoko subiranotasunerako bidean eta hau delarik EAJ-PNVren ekimen politikoa, autogobernuak gizartearen bizitza kalitatea eta ongizatea neurri handi batean handitu ditu. Gure garapenerako ezinbestekoa da gure eskumen mapa handitzea.
- ◆ Beharrezkoa da itun politikoa berrikustea, singularitasun, aldebikotasun eta Nafarroako hiritargoaren erabakitzeko eskubidearen onarpen printzipio nagusi diren marko berria eraikitzeko; hau guztia egonkortasun instituzionala ematen duten berme nahikoekin eta Hitzarmen Politikoaren alde bateko murrizketak ekidingo dituztenak.
- ◆ Ezinbestekoa da Nafarroaren bigarren trantsizio demokratikoa, oraingo LORAFNA legearen berrikustea suposatzen duena eta Nafarroari bere nortasun propioa adierazten lagunduko diona eta horrela bere etorkizuna erabakitzerik izan dezan bizikidetzatza demokratikorako marko berrian, bazterketarik gabe eta tokia izango dutelarik Nafarroako gizarte aberasten duten nortasun eta talde sentimendu guztiak.
- ◆ Lurraldearen batasuna: Euskal Herria osatzen duten erkidego ezberdinekiko harremanak ezartzeko gaitasuna hau da, EAE, Foru Komunitatea eta Iparraldea.

Nazioarteko erreferentziak

Erabakitzeko eskubidea Kanada-Quebecen

Nazioarte mailako jurisprudenzia dago Kanadako Auzitegi Konstituzionalak Kanada eta Quebecen arteko gatazka politikorako soluzio demokratikoaren inguruan eman zuen ebazpenak eraginda. Jurisprudenzia honek ezartzen du herri gisa erabakitzeko eskubidea printzipio demokratikoa dela.

Printzipio hau izan da Irlandako gatazkari konponbide baketsua emateko irtenbidea eutsi duena.

Danimarkako kasua

Danimarkako gobernuak jarrerara zehatza mantendu izan du Feroe Irlen eta Groenlandiaren autogobernua bultzatzeko eta erabakitzeko gaitasunerako eskarien inguruan.

Nafarroako EAJ-PNVren Proposamenak

HELBURUA : Akordio edo itun politikoa ezartzea.

1. Itun politikoan aurreikusten diren konpromisoen betepena gainbegiratzeko kontrolatzeko eta egiaztatzeko mekanismoak ezartzea eta bereziki Nafarroako Foru komunitateak beregana ditzakeen eskumenak.
2. Nafarroa eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan Nafarroak Estatu karga orokorrei egiten dizkien ekarpenak arautzeko sistema ezartzea; honen bidez Nafarroako Foru Komunitateak automatikoki deskontatu ahal izango du bereganatzeko prest aukan eskumenari agkion kostea, behin betiko arautze edo egokitzapenei kalte egin gabe.
3. Hartutako konpromisoen inguruko gatazken konpontzea sustatzea eta era berean ezarritako itunen kontra sor daitezkeen inpugnazioen kasuan.

HELBURUA : Mekanismo hauek neurri zehatzen bidez bideratzea.

4. LORAFNA legearen eskumenak eta ahalmenak zabaltzea, Nafarroaren erabakitze gaitasuna ahalbidetzeko estaturaz gaindiko eta Europa mailako foroetan.
5. Nafarroa-Estatua arteko gatazkak aztertzeko sala berezia sortzea Auzitegi konstituzionalaren baruan eta horretan izan daitezen prestigiozko juristak, Foru Parlamentuak eta Gore Orokorrak neurri berean izendatuta.
6. Justizia Konstituzionalerako eredu berria planteatzea: "eskumen gatazka positiboa" ordenamendu konstituzionalean sartzea Administrazio zentralaren ekimenik ezaren aurrean zerbait egiteko.

HELBURUA: Autogobernua zabaltzea.

7. Erakundetze partekatua sustatzea, berme juridiko erregimenean oinarrituta eta alde biko zintzotasun instituzionaleko eta botereen arteko oreka printzipioetan oinarrituta eta era berean Nafarroaren ahalmen eta eskumenen garapen gorenenean, haren eskemarekin bat eginik.
8. Hiritargoak esparru politiko instituzionalean bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea sustatzea.
9. Berezko botere judizialaren eratzea sustatzea eta bertan amai daitezen instantzia judizialak, Epaitegi Gorenean dotrina bateratzeko kasazio balizko errekurtsuari kalte egin gabe.
10. Nafarroako Gobernuen Euren barruko erakundeetan parte hartze aktibo eta zuzenekoa sustatzea eta laguntzea, bere eskumeneko markoko gaiei eragiten dioten gaietan.

Nafarroako EAJ-PNVren Proposamenak

HELBURUA: Lurraldetasun harreman markoa ezartzea kanpoari begira.

11. Nafarroako Foru Erkidegoaren, EAEren eta Frantziar Estatuan dauden Euskal Lurraldeen artean lankidetzaren erakunde mantxan jartzea sustatzea, Euskal Herri osoak dituen beharrezko erantzuna emateko.
12. Era zabalenean, mugaz gaindiko lankidetzarako dauden europar arauak ematen dituzten aukerak erabiltzea Frantziar Estatuan dauden euskal lurraldeekiko lotune historikoak sendotzeko eta honen barnean udal eta lurralde mailan alde biko lankidetzaren tresnak ezartzeko gaitasuna sendotzea.
13. Nafarroa eta EAE artean lankidetzaren akordioak eta sektore hitzarmenak sendotzea eta 1996an legebiltzar biek onartu zuten Etengabeko Lankidetzaren Erakundearen berreskuratzea.
14. Hiritarrek aldeko jarrera adierazi ostean, Euskal Autonomi Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen erakundearen arteko negoziaketa prozesua ezartzea, Erkidegoaren arteko barne marko politikoa artikulatzeko.

19- Normalizazio politiko eta soziala bakea lortzeko

Gakoak

- ◆ Giza eskubideen defentsa eta errespetua egon behar da erdigunean. Zalantzarik gabeko moduan eskatu behar da indarkeriarik ez izatea normalizazio politiko eta soziala erdiesteko.
- ◆ Inongo helburu politikoa ezin izango da lortu indarkeriaren bitartez, eta indarkeria erabiltzen dutenek ez dute inolako zilegitasun sozial eta politikorik. Honako hau oinarritzko exijentzia izanen da, eragile politiko guztien aldarria, alegia.
- ◆ ETaren terrorismoa desagertzea lehentasun bat da bizitza demokratikoa berreskuratzeko, eta ezinbesteko puntua da bizikidetasun baketsuko edozein proiektu abiarazteko. ETak sueten iraunkorra aldarrikatu behar du. Horixe da gizartearen eskaera eta hori benetako bake eszenatoki baterako bidea.
- ◆ Normalizazio politiko eta soziala ekarriko duen eztabaida edota dialogo politikoari heldu behar zaio inongo bazterketarik gabe, gure gizartean diren sentsibiltate politiko guzti guztiak integratuz.
- ◆ Memoria eta terrorismoaren biktimen aitortpena beharrezko eta funtsezko elementu bat dira normalizazio politiko eta soziala lortzeko.
- ◆ Nafarroa erregio anitza da eta bertan sentsibiltate politiko eta sozial ezberdinak bizi dira. Aniztasuna eta dauden sentsibiltate ezberdinak aitortu eta errespetatu behar dira.
- ◆ Benetako Bake Kultura ahalbidetu beharra dugu, gizarte osasuntsuago bat garatu ahal izateko aukera eta beharrezko baldintzak ekarriko dituen kultura; balore, eta jokabide positiboak nagusituko diren gizartean soilik lortuko dugu modu baketsuago baten bizitzea, elkarbizitzea.
- ◆ Herritarren parte hartzea bakea eraikitzeko eragile gisa.

Nazioarteko erreferentziak

Irlandako bake prozesua

Irlandako bake prozesua inspirazioa da mundu barruan dauden antzeko gatazketarako: nahiz eta egoera guztiak ezberdinak izan, elementu unibertsal batzuk badaude nazionalitate, identitate eta estatutasun gaiei buruzko gatazketan.

Irlandako prozesuak Euskadin aplika daitezkeen gako batzuk iradokitzen dizkigu. Lehenbizikoa da bakea lortzeko talde armatuek beren indarkeriazko estrategiak bertan behera uzteaz gainera, alderdi demokratikoen konpromiso ausart eta mingarri batzuetara iritsi behar direla. Bigarrena da gatazkan dagoen gizarte baten etorkizuna soilik erabaki daitekeela erkidego-banaketa gaindituko duen benetako adostasun sozial baten oinarriaren gainean. Hirugarrena da nazioarteak egin dezakeen ekarpena prozesuak arrakasta izateko faktore erabakigarria izan daitekeela.

Hegoafrika

Hegoafrikako bake eta berradiskidetze prozesua nazioarte mailako ezinbesteko erreferentea da bakea erdiesteko xedea dagoenean, bere dimentsioa osokoa delako eta berritzailea delako. Bazterkeriarik gabeko eztabaida politikoarekin batera, Hegoafrikako indar politikoak gauza izan ziren egiaren berreskurapena eta indarkeriaren biktimenzako ordaintza integratzeko. Nazioarteko erkidegoak bake-konponbide ezinezkoa ikusten zuen arren, Hegoafrikako liderrek erakutsi zuten egoera zailenetan ere adiskidetzeak gaitasun eraldatzailea duela.

Bruselako Adierazpena

Euskal gatazka politikoan oinarritua eta lau Bake Nobel Sariak sinatua, besteak beste. Sinatzaileek parte hartze aktibo eta nabarmena izan zuten Hegoafrikako eta Irlandako bake prozesuetan. Premisa ezinbesteko batekin dator adierazpena: "Ekimen politikoa gara dadila bide politiko eta demokratikoa baliatuz, ez bestela". Ezinbestekotzat jotzen da ere "erabateko bortizkeri eza", eta hauxe izanen da eragile guzti guztiek onartu eta bere egin beharreko printzipioa.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

1. ETaren terrorismoa errotik desagerraraztea.
2. Indarkeriaren deslegitimazio soziala.
3. "Oroimen kolektiborako" eta arrazoi politikoei eragindako bortxakeriak eta terrorismoak eragindako biktimak aintzat hartzeko egitasmoak sendotzea, bake eta bizikidetzaren giroa bermatzeko.
4. "Bakerako heztea" helburu duten egitasmo egonkorak sendotzea, giza eskubideak, demokrazia eta bakezko bizikidetzaren aldeko talde sentimendua sortarazte aldera.
5. Toki esparruan bizikidetzarako egitasmoak sortzea, bortxakeriaren kariatz sortutako bazterketa gainditzeko.

20- Gobernatzeko berria eta herritarren parte hartzea

Gakoak

- ◆ Demokrazia ordezkatzaileraren akatsa da herritarren inplikazio gero eta txikiagoa dagoela esparru politikoan.
- ◆ Herrialde demokratikoen esparruan, erreferendum bidezko herri galdeketa, hiritarren parte hartze politikoaren gailurra dira. Dena dela, Espainiar estatuan, 1978ko Konstituzioa onartu zenean, herri galdeketa ikuspegi mugakorra hautatu zen, eta edonolako herri galdetegi, udal esparrukoa izanda ere, Espainiar Gobernuak hautatu behar du.
- ◆ Herritarren parte hartzea erronka globalei erantzuna emateko bide baten gisara sortzen da, eta gizartearen eskariei behar den bezala erantzuteko, herritarrei etengabe kontsulta egin behar zaie.
- ◆ Nafarroako demokrazia parte hartzaileak honako helburuak ditu. Gardentasuna, auto-kritika, elkarrizketa, kalitatea, sormena eta berrikuntza. Parte hartzerako mekanismoak biltzen dituzten eztabaida-eta adostasun prozesuak lagungarriak izan daitezke gure gizartean negoziazioaren eta kontzertazioaren kultura zabaltzeko.
- ◆ Herritarren parte hartzeak berarekin dakar herritarren iritzia ezagutzeko eta gainera kontuan hartzea eta haren arabera jokatzeko.
- ◆ Gaur egun, teknologia berriek aukera ematen diote administrazio publikoari herritarrengandik hurbilago jarduteko, eta parte hartzean eta demokrazian oinarrituriko eredu bat garatzeko aukera ematen dute. Gobernu-lanetan teknologia berriak erabiltzeko aukera ematen du administrazio gardenagoa, eraginkorragoa eta parte hartzaileagoa garatzeko.
- ◆ Nafarroan, oraingo legeriak era orokorrean arautzen du hiritarren parte hartzea, eta helburu edo oinarri orokorrak baino ez ditu ezartzen. Horregatik ezinbestekoa da legeri berria ezartzea, Udaletan hiritarren parte hartzea bultzatzeko eta ahalbidetzeko.
- ◆ Hiritarrek administrazio publikoei egiten dieten eskaririk nagusiena da kalitatezko zerbitzu publikoak izatea da, beren beharrez aurre egiteko eta bizitza kalitatea hobetzeko.
- ◆ Azken hamarkadetakoz hazkunde ekonomikoak administrazioei baliabide publiko handiagoak eman dizkie eta horrek eragina izan du zerbitzu publikoen hobekuntzan; ondorioz ere kudeatze publikoaren hobekuntza eta aurrerapen teknologikoa eman dira.
- ◆ Zerbitzu publiko onak emateak hiritargoaren bizitza kalitatearen hobekuntza dakar eta horrekin batera funtsezkoa da herrialde lehiakorra sendotzeko, inbertsioak, bisitariak eta aukera berriak erakartzeko gaitasuna izango duena.
- ◆ Esparru publiko-pribatuaren uztartzea eta zerbitzu publikoen kudeatzerako eredu mistoak erabilia, beraien prestazioa hobetuko da eta honek ez du suposatzen administrazioak ardurarik edo eskumenik galtzen zerbitzuak emateko orduan, bata edo bestea izanik kudeatzeko ereduak.

Nazioarteko erreferentziak

Zuzeneko demokrazia Suitzan

Suitzako herriak bi aukera dauzka bere herrialdeko legegintza politikoan esku hartzeko: alde batetik erreferendum bidez eragotzi dezakete Parlamentuak onetsitako lege batzuk legezko indarra hartzea; bestalde, herri ekimenaren bidez lege proiektu bat edo konstituzio federalaren aldaketa bat proposa dezake.

Suitzako gizartea, gainera, oso pozik dago zuzeneko demokraziaren ereduarekin. Suitzako herritarren %70k uste du sistema politikoarekiko aletasuna dela bertako herritarrek izateagatik harro sentitzeko arrazoi nagusia: Gai publikoetan inplikazio handiagoa izateak abantaila osagarriak dauzka; esate baterako, denbora gehiago eman ahal izatea jardura komunaletan, ebasio fiskal txikiagoa dago eta baliabide publikoen kudeatze lan hobea.

Sistemaren alde txar nabarmenena, erabakiak hartzeko prozesua geldoegia dela. Edonola ere, Suitzako gizartea negoziatzen eta hitzartzen ohituta dago, eta gai publikoetan parte hartzea ahalbidetzen duen ehun sozial garrantzitsua eraiki du.

Ubiquitous government, Korea e-Government

Gaur egun Hego Korea teknologikoki aurreratuenen eta ondoen konektatuta dauden herrialdeen artean dago. Hurrengo urteotan Hego Koreako Gobernuak sustapen estrategiko eta aktiboa garatu izan du hiritargoari eskaintako zerbitzuen hobekuntza erdiesteko eta administrazioaren eraginkortasuna handitzeko.

E-gobernua ezartzeko, Koreako gobernuak egitasmo handi bat garatu zuen eta horretarako 31 ekimen ezarri zituzten. Koreako eGobernuaren arrakasta etorri izan da ekimenak ondo garatu izan direlako eta gaur egun gobernuaren zerbitzurik gehienak on-line eskaintzen dira.

Egindako ahaleginei esker, Korea eGobenu arloan lehen postuetan dago, Japon eta Europako hainbat herrialderen gainetik.

Nafarroako EAJ-PNVk Hiritarren Parte hartze inguruan egiten dituen proposamenak

HELBURUA: Nafarroan hiritarren parte hartzearen inguruko legeria lortzea .

1. Toki esparruko Herri Galdetegiak arautzen dituen Foru Legearen aldaketa proposatzea, oraingo legeak irizpide zorrotzegiak jarraitzen dituelakoan; horrela eginik, herri galdetegiak bestelako hauteskunde prozesu batekin batera ospatu ahal izango dira eta honek kudeatzea erraztuko du.
2. Udaletan eta Foru Administrazioan hiritarren parte hartzea arautzeko eta sustatzeko lege berria bultzatzea. Nafarroako toki erakundeetako biztanleria eta bitartekoak aldatzen direla kontuan izanik, legeri hori malgua izango da eta laguntzeko eta bultzatzeko neurriak izango ditu hiritarren parte hartzea bultzatzeko, bereziki biztanleri kopuru txikiagoak dituzten udalerrietan.

HELBURUA: hiritarren parte hartzea udal mailan bultzatzea.

1. Toki demokratiaren inguruko Txostena edo Liburu Zuria egitea, eta bertan parte hartuko dute gai horretako toki adituek eta akademikoek; helburu izango dute nazioarte mailan diren toki demokratiako praktika ezberdinak aztertzea eta gure testuingurura egokitzea.
2. Aurrekontu parte hartzaileak egiteko prozesuei hasiera ematea eta udal aurrekontua gardenago egitea, erabakien inguruko benetako eztabaida erdiesteko.
3. Ahal den udalerrietan Toki Demokratiarako Batzordea eratzea, Parte hartzerako Araudiaren marko barruan, gaien inguruko erabakiak hartzeko; gai hauen gaineko prozesu parte hartzaileak jarriko dira abian eta aztertu egingo da nola egin behar den, daukaten eragina eta ebaluaketa.
4. Elkarrekin harreman karta bat ezartzea, hautetsi eta hiriko bizitza antolatuz arduratzen diren pertsonen arteko elkar ulermena hobetzeko eta bermatzeko. Bereziki, emakumeei begira aztertu behar da komenigarria ote den kuota sistema ezartzea prozedura parte hartzaileetako erakundeetan beren parte hartzea bermatzeko.
5. Udaletan eta korporazioaren laguntasunarekin, ume edo gazteek osatutako Batzordeak sustatzea. Adinekoek osatutako Batzordeak sustatzea korporazioaren laguntasunarekin.
6. Behatoki independentea sortzen laguntzea (edo izaera bereko bestelako egitura, hau da, hautetsi , teknikari eta biztanleek osatutako hiruko batzordeak kasu). Behatoki horrek parte hartzerako tresnak jarraitu eta aztertuko ditu. Behatokiak urteko txostenak argitaratuko ditu gai hauen guztien inguruan.
7. Udalerrian erroldatutako pertsona bakoitzari ongi etorri karpeta ematea eta bertan informazioa emango zaio gobernuaren inguruan eta udalak dituen eskumenen inguruan; halaber, informazioa emango da aurrekontuen gainean, egiteko bidean dauden egitasmoak, alderdi politikoek, hiritar elkarteek, GKEen helbide eta telefonoak eta udalerraren organigrama politiko eta administratiboa. Hiri handien hasuan, informazio orokorrari kalte egin gabe, bizitokia dagoen barruti edo auzoaren inguruko informazioa erantsiko da.

Nafarroako EAJ-PNVk gobernatzearen inguruan egiten dituen proposamenak

HELBURUA: Nafarroako administrazioak ematen eta bere hiritargoak jasotzen dituen zerbitzuen kalitatea hobetzea.

1. IKTen aplikazioa bultzatzea, administrazioaren hiritargoari emandako zerbitzu guztietan eraginkortasuna hobetzeko
2. Nafarroako erakunde publikoetan zerbitzu profesionalak ematearekin erlazionatutako esleipenen inguruko gardentasuna hobetzea.
3. Sasi-sarkoikeria egoerak ekiditea, enpresentzako zerbitzu profesionalen garapen normala ekiditen dutelakoan.
4. Nafarroan administrazio publikoen europar irudia sustatzea: funtzionarioen artean ingeles eta frantses hizkuntzen ezagutza sustatzea.
5. Funtzionarioen lanpostuan segurtasun absolutu kontzeptua berraztertzea: lanpostu publikoaren jarraipena eta soldata lotuta egon behar da ez une zehatz batean oposizio bat irabazi izan delako, baizik eta gutxieneko errendimendu maila etengabe ematen delako.
6. Nafarroa erkidego irekia izan dadin eta zuntz optikoaren bidez munduarekin lotuta egon dadin.
7. Osasunaren arloan, pertsonalizatutako medikuntzaren aldeko apustua egitea, tratamendu eta dosifikazioak hartzen dituen hiritargoaren ezaugarri pertsonaletara egokituak izan daitezten.
8. Hiritargoari teknologia berriak erabiltzeari lotutako jakintza erraztea eta bitartekoak ematea bere sormena garatzeko

21- Nazioarteko solaskideak

Gakoak

- ◆ Espainiar estatua 1986 urtean orduko Merkatu Batuan sartu zenetik, Foru Komunitatearen ordezkari eta batasunaren sistema osoak eskaini dituen aukera eta erronken aprobetxamendu mailak nahiko eskasa izan da, Europari urrunetik begiratu diogu, Nafarroako errealitate sozial eta politikotik urrun dagoen zerbait bailitzan, eta beti Madrilek ezarritako bideen bitartez, Nafarroak kokapen geografiko estrategikoa duen arren.
- ◆ Foru Komunitatean izan diren Gobernu ezberdinek ez dute lehentasunezko politikatzat jo Nafarroari Europan bultzada ematea eta aukerak bilatzea, egitasmoetan parte hartzea edo erregio markoen garatzea.
- ◆ Mundu ireki eta gero eta erlaxatuago batean, Nafarroak, berezko nortasuna duen Herria den aldetik, kanpo aldera arlo ekonomiko sozial eta politikoa zabaltzeko gaitasuna izan behar du. Presentzia zuzena izan behar dugu garapenerako estrategikoak diren arlo geografikoetan.
- ◆ Europar politikek eragin zuzena dute Nafarroako gizartean, beraz Nafarroako Erakundeek Europar Batasunarenak diren eta gure autogobernuaren inguruko erabakietan duten egiazko eragina funtsezko da gaurko eta etorkizuneko garapenari begira.
- ◆ Halaber, Europar aberastasun kulturalerako eta sakontze demokratikorako ezinbestekoa da mugaz gaineko eta erregioen arteko lankidetzak bultzatzea, lotura historiko sozial ekonomiko eta kultural garrantzitsuak dituzten hurbileko erregioen artean.

Nazioarteko erreferentziak

Alemaniano Länder-ek Europar Batasuneko gaitan duten parte hartzea

Länderrek Europar Batasuneko parte hartzeko duten eskubidea alde formalek eta edukiaren aldetik aldatu dira integrazio europarraren harira, azken horrek eragina baitu Länderren barneko eskumenetan.

Länderrek Bundesrat (Kontseilu Federala) erakundearen bitartez hartzen dute parte Europar Batasunarekin lotutako gaitan. Gobernu Federalak informazio zehatza eta arina ematen dio Bundesrati Länderren interesekoak izan daitezkeen Europar Batasuneko proiektuei buruz. Länderren interesak edo eskumenak ukitzen diren neurrian, prozedura batzuk aurreikusten dira; esate baterako, Länderrek eztabaidetan parte hartzea, Alemaniak negoziatioetan edukiko duen jarrera zehazte aldera.

Alemaniano kasuaz gain, Austria edo Belgika moduko estatuetan, estatuko araubideen barruan bideratu egiten dira parte hartzerako bide zuzen eta eraginkorrak eta horrela länder edo erregioek artikulatu ahal dituzte beren parte hartzea, bereganatuta dituzten eskumeneko gaien inguruan.

Québec.

Québecek Ordizkaritza sare propioa garatu izan du nazioarte mailan munduan estrategikotzat -arrazoi politiko, ekonomiko nahiz kulturalagatik- jo dituen toki guztietan: Egitura horiek Quebecentzat jomugako herrialdeak duen garrantzi erlatiboaren araberrako tamaina izaten dute, eta ederki integratu dituzte beren herrialdeko interes sektorialak eta kasuko agentzia edo/eta sozietate publikoek Québeci buruzko irudi bakar, bateratu eta koordinatua zabaltzeko.

Nafarroako EAJ-PNVren proposamenak

1. Estatuko hauteskunde barruti bakarra izateak eragiten duen oztopoa kentzea eta euro-ganberako hautagaien aukeratzea estatu azpiko erakundeen lurralde esparrua errespetatzeko irizpideen arabera egingo delarik, hau da, autonomi erkidego bakoitzean bereak.
2. Nafarroako Foru Komunitatea Europar Erkidegoen Epaimahaiaren aurrean legitimatzea, bere interes eta eskubideen (eskubide historikoak barne) aldeko defentsa egiterik izan dezan eta Europar Erakundeen aurrean eskubide hauek baliozkotuak izan daitezen.
3. Batasunean erabakiak hartzeko prozeduretan parte hartzerako mekanismoak bideratzea, Nafarroaren parte hartzea artikulatua izan dadin, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak diren gaien inguruan. LORAFNA legearen erreformaren bidez sartu diren mekanismoen eraginkortasuna neurtuko dugu.
4. EAErekin lankidetzan jardutea Europar Erakundeen aurrean Hitzarmen eta Kontzertu Ekonomikoaren aldeko defentsa egiteko xedez, orain arte ez delarik sekula egin.
5. Mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzea, bereziki “Euroerregioen” formularen bitartez, hori delakoan herrialde eta erakundeen artean politika ezberdinak partekatzeko eta betearazteko marko egokia: Zentzu honetan, Europar Komite Ekonomiko eta Sozialak Euroerregioen inguruan 2007ko uztailaren 11an eman zuen ebazpena partekatzen dugu eta geureganatzen dugu.
6. Euroerregioa (Akitania, EAE eta Nafarroa) eta antzeko edo osagarri izan daitezkeen euroerregioekiko eta Amerika, Asia, Afrika eta Ozeaniako interes estrategiko handiko erregio handiekikoa harreman instituzionalen garapena sustatzea

Nazioarteko erreferentziak



Herrialdeen garapen orekatu eta jasangarria: Alemania eta Singapur

Berdintasuna: Ipar Europako herrialdeak

Gizarte sareak, Adostasuna eta Lankidetzak: Ipar Europako herrialdeak

Industria sektorean esanguratsuak: Alemania, Japonia, AEB, Kanadá, Frantzia, Italia, Txile eta Hego Europa

Erakundetze partekatua: Kanada - Québec

Normalizazio politiko eta soziala: Irlanda y Sudáfrica

Lana: Danimarka

Zerbitzu publikoen kudeatze lan aurreratua: Hego Korea

Hezkuntza eta Berrikuntza: Suedia, Singapur, eta India

Gobernatze berria eta parte hartzea: Suitza

Etengabeko prestakuntza : Finlandia

Zerbitzu berriak eta sorkuntza: London, Hamburgo, Malasia eta Dublín

Osasuna, familia eta mendeko pertsonak : Ipar Europako ereduak

Gizarte kohesioa: Kanada eta Danimarka

Etxebizitza: Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua

Bizikidetzarako hezkuntza: Kolonia eta Finlandia

Berrikuntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak : Singapur

Energia berriztagarrien aldeko apustua/garapena: AEB, Alemania eta Erresuma Batua

Elikatze sektore jasangarria: Suitza

Nazioarteko elkar hizketa: Alemania eta Québec

Garapenerako kultura: New York

Ondarea eta Nortasuna: Frantzia, Italia, Erresuma Batua, Norvegia

Navarra Euskara Lurraldea: Québec, Guinea Berria, Guatemala, Eritrea, Catalunya eta Hungria

Aisialdirako gune berriak: Australia eta AEB



7. Gizarte erantzukizun korporatiboa eta EAJ-PNVren Gobernatze lan ona

Hazkundera eta ongizatea

EAJ-PNVrentzat, **Gizarte Erantzukizun Korporatiboak** eta **Gobernatze lan onak** esan nahi dute egitasmo baten eraikuntzan aurrera egiten jarraitzea, gure hazkundera eta ongizatea areagotzeko:

“Nafarroa aberatsagoa”

Giza kapitalean,
ingurunean eta
harremanetan inbertitzea

Europar Batzordearen arabera hau da GEK: “Beren borondatez erakundeek ardura sozial eta ingurumenekoak beren jardunetan eta solaskide ezberdinen arteko harremanetan integratzea”. Betebehar juridikoetatik harago joatea esan nahi du, giza kapitalean, ingurunean eta eragile ezberdinekiko harremanetan gehiago inbertituz.

Kudeatze lanerako
zeharkako prozesua

Era berean, GEK-k esan nahi du **erakundeak kudeatzeko zeharkako prozesu** bat abiaraztea, halako moduan non jarduera guztietan eta EAJ-PNVren kudeaketa eremuan bertan ere sartuko baita, modu iraunkorrean. **Jarduerak, kudeatze sistemak eta komunikaziorako eta gardentasunerako elementuak** hartzen ditu esparru ekonomiko, sozial eta ingurumenekoan, interesa duten taldeen eskakizunak eta giza eskubideekiko errespetua aintzat hartuta.

Esparru ekonomikoa
soziala eta
ingurumenekoa

GEKk lau arlo ditu EAJ-
PNVrentzat: ingurumena,
ekonomia, gizartea eta etika

Kudeatze ereduaren ikuspegi berri horrekin, **etengabeko elkarrizketa** bat zabaldu nahi da, interesa duten taldeei informazioa emateko. Horrekin, EAJ-PNVk bere estrategietan **ardura ekonomiko, sozial, ingurumenekoak eta etikoak** sartu nahi ditu, haien bidez Nafarroako biztanleriaren hazkundera eta ongizatea hobetzeko. EAJ-PNV erakundeetan esku hartzen duten alderdi politiko bat denez, GEK-k nabarmen eduki behar du osagai etikoa eta **gobernu zuzenaren aldekoa**.

Arlo etikoak esan nahi
du EAJ-PNVk eta haren
ordezkari instituzionalek
gobernu zuzenaren
aldeko konpromisoa
hartzen dutela.

Printzipio etikoak eta gobernu zuzenaren aldekoak honakoetan oinarritzen dira: **irekitasuna, erantzukizuna, parte hartzea eta koherentzia**. EAJ-PNVren pertsonentzako kode etikoa bateratu behar da, eta aldi berean, erakundeen kudeatze arloko neurriak argitu behar dira.

EAJ-PNVren konpromisoa da zuzentzen dituen erakundeek pixkanaka Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren estrategiak aplikatzea, eta Alderdiaren antolaketan bertan ere aplikatzea.

Gizarte Erantzukizun Korporatiboa eta EAJ-PNVren gobernatze zuzena

Gizarte Erantzukizun Korporatibo konbentzionalak funtsezko hiru konpromiso arlo hartzen ditu barnean: **ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala** ; EAJ-PNVren erantzukizunak honen barnean aurreikusi behar ditu **etika eta gobernatze onaren** arloa, erakunde ardurak dituen a eta baliabide publikoak kudeatzen dituen alderdi politikoa delako; gizartearekin eta sortutako aurreikuspenekiko hartutako konpromisoak bete behar ditu.

Ildo estrategikoak

1. Ingurumen arloa

Ingurumen arloan behar diren neurri guztiak bultzatzea, negutegi efektuko gasak gutxitzen laguntzeko eta berokuntza globalari aurrea hartzeko. Halaber, baliabide naturalek zentzuzko erabilera sustatzea eta gobernu-jardunetik ondare naturala zaintzeko eta garapen iraunkorra lortzeko politikak sustatzea.

2. Ekonomia arloa

Finantza baliabideen erabilera eraginkorra eta erantzukizuneko printzipioetan oinarritutako inbertsio publikoa sustatzea, eta ardurazko erosketak egiteko irizpideak sartzen joatea. Hazkunde ekonomikoarekiko eta lurralde enpresak eta negozioak ezartzearekiko konpromisoa hartzea. Horrek esan nahi du nafarroa atzerrian sustatzea eta sareetan parte hartzea.

3. Gizarte arloa

Kolektibo ezberdinetarako gizarte zerbitzuak hobetzea eta bermatzea, eta ahaleginak egitea aberastasuna birbanatzeko, bazterkeria egoerak saihestuz. Halaber, berdintasunaren printzipioa bermatu behar da, emakumeen sartzea erraztuz eta bazterkeria modu guztiak saihestuz.

4. Etika eta Gobernatze ona

Giza eskubideekiko errespetuaren oinarritzko printzipioa abiapuntu hartuta, gobernatze zuzenaren aldeko konpromisoa hartzen da. Jokabide-kode bat suposatzen du, eta administrazio publikoen kudeaketan zabaltasuna, gardentasuna, erantzukizuna, parte hartzea eta eraginkortasuna aplikatzeko banakako konpromisoa eta konpromiso kolektiboa da.

Nafarroako hiritargoak irekitze eta gardentasun prozesua eskatzen die gure erakundeei. Era berean, demokraziaren beraren funtzionamenduak nabarmenki hobetu beharra dauka. Europar erakundeen inguruan, nagusia da ezjakintasuna.

Hori dela eta, Nafarroako erakundeak gobernatzeko orduan, parte hartze demokratikorako tresneriak indartu behar dira; era berean politika publikoen aplikazioan ere sendotu beharra dago subsidiarotasun eta proportzio printzipioa. Ondorioz herritarren parte hartzea hobetu beharko litzateke eta gardentasuna nagusitu instituzio eta erakunde guztietan, bereziki hiritargoarengandik urrunen dauden horietan, urrun daudelako sentipena zabaltzen delako. Horrek guztiak gobernatze lanaren aldaketa ekarriko du, Nafarroako herri erakundeetan eragina izango duena.

Lan ildoak

Nafarroako erakunde ezberdinen arteko harremanak eta partaidetza sendotu behar da, politika publikoak planifikatzeko, egikaritzeko eta ebaluatzeko orduan.

Gobernu ekintzaren **koordinazio** orokorrerako tekniketari aurrera egitea, politika sektorialetan koordinazio eraginkorra erdiesteko.

Horrek berarekin dakar, praktika politikoan herri ekimeneko prozesu politikoetan plangintza berritzailea erabiltzea, gizarte zibilari kontsulta egitea, adostasuna bilatzea edo gatazkei konponbidea ematea; beti ere une oro eragile ekonomiko eta sozialek eta gizarte zibilak politika publikoen diseinuan eta prestaketan **parte har dezaten** bultzatuz.

Gobernu ekintza normalizatzeko oinarritzeko metodologia hobetzea, eta hartan sartzea **plangintza** osatzen duten alderdiak.

Antolamendu juridikoaren integrazioan aurrera egitea, **arautzea** behar duten politika publikoak betetzeko.

Gobernu programetan Europako **Gobernagarritasunaren** Liburu Zurian koordinaziorako metodo irekiari buruz ezartzen diren joerak.

Nazioarteko erreferentziak

Erresuma Batua. Best Value

Jarraibide batzuk eskaintzen ditu erakunde publikoak zerbitzuak ematerakoan etengabe hobetzen joan daitezela. Etengabeko hobekuntzak kostea eta kalitatearen arteko oreka mantentzea bilatzen du.

Best Value erdietsi nahi duen erakunde orok gauza izan behar du ezaugarri horietako bakoitza nola lortzen duen erakusteko. Are gehiago, ahaleginak egin behar ditu ezaugarri horiek etengabe hobetzen joateko, behar diren alderdietan lehentasunak ezarriz.

Zeharkako ebakera duten hiru gai badaude: batera egindako lana, aukera berdintasuna eta garapen jasangarria. Gai horiek Best Value lanaren alderdi guztietan izan behar dute eragina, planifikatzen garapen eta ebaluatzeraino. Kontzeptu hauek osotasunean bereganatzen dituen erakundeak bere zuzendaritzaren egiturari adieraziko ditu, bere planifikazio korporatiboan eta eratorritako egitasmoetan, interes guzietan egiten duen kontsultan, langileekin eta beste eragileekin duen komunikazioan, gobernu kodeetan, baliabideak banatzean eta praktikak aztertzerakoan.

1. Demokrazia parte hartzailearen inguruko barne prestakuntza prozesua garatzea: Alderdi barruko ordezkariak eta herri kargudunak sakontze demokratikorako bideen inguruko prestakuntza ikastaroan parte hartuko dute.
2. Hauteskunde kanpaina parte hartzailea: EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du hurrengo hauteskunde kanpainak hiritarren iritzia jasotzeko moduko era parte hartzailean eta irekian egingo dituela: Prozesu honen bidez hauteskunde egitasmoa egiteko orduan era parte hartzailean egingo dela, hiritargoarekiko eztabaida irekia egingo da eta hiritarren ebaluaziorako sistemak jarriko dira martxan.
3. Udal parte hartzerako Hiritar arteko Batzordeak eratuko dira (Hiritarrei entzuteko foroak) Nafarroako EAJ-PNV dagoen udalerri guztietan. Ehun urte luze hauetan Alderdi honen indarra herri honetako emakume eta gizonekiko harreman zuzenean errotu izan da. Demokrazia parte hartzaileak aliantza hau berriztatzea ahalbidetzen digu eta era horretan garai berrietara egokitu ahal dugu. Parte hartzerako Batzordeak irekita egongo dira gure alderdikideekin etengabeko elkarrizketa ezarri nahi duten sentiberatasun politiko guztietako pertsona eta erakundeentzat eta beren ekarpen eta proposamenak helarazi ahal izango dizkigute. Uri Batzarrak konpromisoa hartuko du hausnarketa hauek hiritargolari, alderdiaren zuzendaritzari eta ordezkariak dugun erakundeei zabaltzeko.
4. Sektorekako Hiritarren Parte Hartzerako Batzordeak eratzea (Hiritarrei entzuteko foroak): Sektorekako Parte Hartzerako Batzordeak irekita egongo dira Alderdiak Nafarroan duen zuzendaritzarekiko etengabeko elkarrizketa nahi duten sentiberatasun politiko guztietako pertsona eta erakundeentzat eta horrela aztertu ahal izango dira hurrengo legegintzaldian alderdiaren jardueraren gidatuko duten lerro estrategikoak. NBBk konpromisoa hartuko du hausnarketa hauek gizartean zabalduko dituela eta haintzat hartuko dituela ordezkariak dugun erakundeetako eguneroko praktika aberasteko.
5. Euskal Herri osorako izango den Parte Hartzerako Erkidego Birtuala Osatzea: Nahi duen hiritar orok izango du parte hartzerako erkidego birtualean izena emateko aukera eta horrela gure lanaren inguruko informazioa jaso ahal izango du, ekarpenak eta proposamenak bidaltzerik izango du eta batez ere Alderdiak hurrengo legegintzaldiari begira garatuko dituen egitasmoen inguruko informazioa jaso ahal izango du. Erkidego berri honen barruan egunero eta normaltasun osoz harremanetan jarriko ditu Nafarroan, EAEn, Iparraldean eta diasporan bizi diren euskaldunak.

Oinarri etikoak eta Gobernatze zuzenarenak

Irekia izatea

- ◆ Erakundeen funtzionamendu “irekiagoa”.
- ◆ Erabaki publikoak era aktibo eta eraginkorrean adieraztea.
- ◆ Oro har, jendearentzat ulergarria den hizkera erabiltzea.

Koherentzia

- ◆ Politiken eta ekintzen arteko koherentzia
- ◆ Gobernu ekintzarekin bat datorren ikuspuntua. Gauzatzeko, buruzagien aldetik buruzagitza politikoa eta konpromisoa behar duena.

Parte hartzea

- ◆ Herritarrek politikaren zikloko fase guztietan duten parte hartzea indartzea eta eraginkor egitea, erakundearekiko konfiantza sendotzeko.

Ardura

- ◆ Bakoitzak bere jardun eremuetan daukan eginkizuna argitzea
- ◆ Azalpenak eta kontu-ematea exijitzea
- ◆ Erantzukizuna bereganatzea

Eraginkortasuna

- ◆ Bilatzen diren emaitzak lortzea, oinarri bikoitzarekin:
 - a) helburu argiak
 - b) egikaritzaren eragina ebaluatzea, eta bere kasuan, izandako eskarmentua ebaluatzea.

Gobernatze zuzenerako oinarriak, Europako Liburu Berdean oinarrituta.

**EAJ-PNVren
herri kargudunek
partekatzen dituzten
baloreak**

**Norbanakoaren
jokabidea eta
erakundeekiko
konpromisoa**

Zerbitzu publikoa izateko bokazioa

Oreka eta tratu bera hizketakide guztiei

Zintzotasuna

Konpromisoa

Besteekiko begirunezko portaera

**Nafarroako EAJ-PNVren herri kargudunen
jokabide etikoa**

- » Interesen gatazka
- » Lanpostuen arteko bateraezintasunak
- » Gardentasuna erabakiak hartzerakoan
- » Gardentasun publikoa antolamendu gastuetan.
- » Gardentasun publikoa jasotako diruetan (finkoak eta aldakorrak)
- » Zuhurtasuna eta errespetuzko tratua adierazpen publikoetan.
- » Gizarte konfiantzaren defentsa eta sustapena.

Erakundeekiko konpromisoa

- » Praktika zuzen eta etikoa bermatzeko neurriak zehaztea (politika, barne gardentasuna, arriskuak eta arau etikoak betetzea, eraginkortasun administratiboa, eta abar)
- » Eraginkortasuna eta efizientzia saritzeko neurriak
- » Administrazio eta baltzu publikoetan kudeatze lana kontrolatzeko eta ebaluatzeko neurriak indartzea.
- » Kontuak azaltzeko derrigorra.
- » Lehentasunezko informazioa edo informazio eskusiboa isilpekotasunez aztertzekeo derrigorra.
- » Zerbitzu publikoa izateko bokazioa.

Nafarroako gizarte erantzukizuna eta Gobernatze Zuzena

Ingurumen arloa

Arlo ekonomikoa

Gizarte arloa

Etika eta Gobernatze zuzena

Etika eta Gobernatze zuzenaren oinarriak

Irekia izatea

Koherentzia

Parte hartzea

Ardura

Eraginkortasuna

EAJ-PNVren erakunde karguek partekatzen dituzten baloreak

Zerbitzu publikoa izateko bokazioa

Oreka eta tratu bera hizketakide guztiei

Zintzotasuna

Besteekiko konpromisoa

Besteekiko begirunezko portaera

Norbanakoaren portaera eta erakundeekiko konpromisoa

Nafarroako EAJ-PNVren herri kargudunen portaera etikoa

Erakundeekiko konpromisoa

Medidas

Interes gatazkak

Bateraezintasunak

Zintzotasuna

Gardentasuna

Begirunea eta tratu inpartziala

Zerbitzu publikoa izateko bokazioa



**“Think Gaur Nafarroa 2020” Hausnarketa Estrategikoa EAJ-PNVren NBBk onetsi zuen 2010eko urriaren 26an.
EAJ-PNV Nafarroa, Zapatería kalea 50 - 31001 Iruñea (Nafarroa) Telefono zenbakia: 948211974. <http://nbb.eaj-pnv.eu>**